



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

PSIKOLOGIA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE PSICOLOGÍA

GORPUTZ-IRUDIA ETA ALDERDI EMOZIONALAK GAINPISUAN ETA OBESITATEAN AURRENERABEZAROAN

IMAGEN CORPORAL Y ASPECTOS EMOCIONALES EN EL
SOBREPESO Y LA OBESIDAD
EN LA PREADOLESCENCIA

DOKTORE-TESIA / TESIS DOCTORAL



EVA PEREDA PEREDA

(c) 2021 Eva Pereda Pereda

2021



EVA PEREDA PEREDA

.....

**GORPUTZ-IRUDIA ETA ALDERDI EMOZIONALAK
GAINPISUAN ETA OBESITATEAN
AURRENERABEZAROAN**

ZUZENDARIAK

Enrique Echeburúa Odriozola

Karmele Salaberria Irizar

DOKTORE-TESIA

2021eko martxo

**Psikologia Klinikoa eta Osasunaren Psikologia
eta Ikerketaren Metodologia**

Psikologia Fakultatea

Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU)



Tesi hau Eusko Jaurlaritzaren Ikertzaileak
Prestatzeko 2014ko Doktoretza-aurreko
laguntzari (PRE_2014_1_213) eta Eusko
Jaurlaritzaren Proiektuetarako IT945-16
laguntzari esker gauzatu da.

Hitzak bidea egiten du.

ESKER ONAK

En primer lugar, me gustaría expresar mi agradecimiento a mis directores, Enrique Echeburúa y Karmele Salaberria. A Enrique, por acompañarme en este camino, por mostrar siempre disponibilidad y apoyo. Karmeleri, tesiaren azken txanpa honetan, zu gabe, amaitzea ezinezkoa izango zitekeelako. Por supuesto, también a Marisol Cruz-Sáez, por ser un apoyo desde el comienzo, desde aquellas clases de clínica infanto-juvenil mientras trabajaba de enfermera. Gracias por crear el espíritu investigador en mí.

A todos y todas las integrantes del Proyecto PENSOI, por creer en uno de los pilares del cuidado en la obesidad, la psicología. Gracias por darme la oportunidad de participar en este proyecto. También se merecen una mención todas las personas del Proyecto INMA.

Datu-bilketan lagundu ninduten psikologoak, Ane, Oihana eta Mireia, eta Itsasori, zuri bereziki, etxean egongo banintz, tratatu ninduzulako.

Debagoieneko ikastetxe guztiei, zuen atea parez pare irekitzeagatik, guraso, irakasle eta nola ez, haurrei, proiektu hau ez bailuke zentzurik izango zuek gabe.

Bestalde, urte guzti hauetan izan ditudan tesi-bidailagunei, hasieratik amaierara arte egon zaretenoi: Aini, Flor, Unai, Mikel, Manu, Jota, María, Iduzki, Olatz, June, Idoia, Iratxe eta Uzuriri. Eskerrik asko une zailenetan ere alboan egoteagatik. Baita fakultateko lankide eta lagunei: Itzi, Edurne, Íñigo eta Miriami.

Nire lagun taldeari, nire falta somatu duzuela esan didazuelako, mundu akademikoa ulertzen saiatu egin zaretelako eta Gasteizera joan naizen bakoitzean elkartzeko prest egon zaretelako. Jaio, ez ahaztu sormenak definitzen zaituela.

A mi familia. A mi madre, por hacerme más fuerte cada día que sigues a nuestro lado, he aprendido a ser mejor persona, mejor enfermera y mejor psicóloga. ¡Seguiremos luchando! A mi padre, porque desde pequeña me dijiste que estudiara, que no me rindiera y que persiguiera mis sueños. A mi hermano, por enseñarme a ser curiosa e intentar que me gustara el deporte, siempre habrá tiempo para otra carrera. A mi hermana, por ser mi amiga y confidente. Aitor, Izaskun eta Izarri, nire lana liburuak irakurtzea dela ulertzea zaila egiten zaizuelako, beti izango naizelako zuen tía.

Azkenik, bidai luze honetan alboan izan dudak kapitainari, hamaika abentura bizi izango ditugulakoan nago. Ilargia begiratzean zu beste aldean zaudela dakidalako.

Eskerrik asko bihotzez! Hitzak bidea egiten duelako.

AURKIBIDEA // ÍNDICE

ESKER ONAK // AGRADECIMIENTOS	I
TAULEN AURKIBIDEA // ÍNDICE DE TABLAS	VI
GRAFIKOEN AURKIBIDEA // ÍNDICE DE GRÁFICOS	VIII
IRUDIEN AURKIBIDEA // ÍNDICE DE IMÁGENES	IX
LABURDUREN ETA AKRONIMOEN ZERRENDA LISTA DE ABREVIATURAS Y ACRÓNIMOS.....	X
SARRERA // INTRODUCCIÓN	1

I. ATAL TEORIKOA // MARCO TEÓRICO

1. KAPITULUA: GAINPISUAREN ETA OBESITATEAREN PREBALENTZIA AURRENERABEZAROAN

CAPÍTULO 1: PREVALENCIA DEL SOBREPESO Y LA OBESIDAD EN LA PREADOLESCENCIA	7
--	---

- 1.1. Gainpisu eta obesitatea kontzeptuak // Concepto de sobrepeso y
obesidad..... 7
- 1.2. Ebaluazio-metodoak // Métodos de evaluación..... 8
- 1.3. Haur eta neraberen populazioan gainpisu eta obesitatearen
prebalentzia // Prevalencia del sobrepeso y la obesidad en
población infanto-juvenil..... 14
- 1.4. Etiologia // Etiología
- 1.5. Erikortasunak // Comorbilidades

2. KAPITULUA: GORPUTZ-IRUDIAREN ALTERAZIOAK GAINPISUA ETA OBESITATEA DUTEN AURRENERABEENGAN

CAPÍTULO 2: ALTERACIONES DE LA IMAGEN CORPORAL EN PREADOLESCENTES CON SOBREPESO Y OBESIDAD	41
---	----

- 2.1. Gorputz-irudiaren kontzeptua // Concepto de imagen corporal.. 41
- 2.2. Gorputz-irudiaren eraketa eta garapena // Formación y desarrollo
de la imagen corporal

2.3. Gorputz-irudiaren ebaluazioa eta neurtzeko tresnak // Evaluación e instrumentos de medida de la imagen corporal	52
2.4. Gorputz-irudiaren alterazioak // Alteraciones de la imagen corporal.....	56
3. KAPITULUA: ALDAGAI EMOZIONALAK GAINPISUA ETA OBESITATEA DUTEN AURRENERABEENGAN	
CAPÍTULO 3: VARIABLES EMOCIONALES EN PREADOLESCENTES CON SOBREPESO Y OBESIDAD.....	69
3.1. Antsietatea // Ansiedad.....	70
3.2. Depresioa // Depresión	76
3.3. Autoestimu baxua // Baja autoestima	84
3.4. Oldarkortasuna // Impulsividad	92
3.5. Elikadura-asaldurak // Alteraciones alimentarias	100
4. KAPITULUA: ONDORIOAK	
CAPÍTULO 4: CONCLUSIONES	109

II. ATAL ENPIRIKOA // PARTE EMPÍRICA

SARRERA // INTRODUCCIÓN	115
1. KAPITULUA: HELBURUAK ETA HIPOTESIAK	
CAPÍTULO 1: OBJETIVOS E HIPÓTESIS.....	117
1.1. Helburu nagusia // Objetivo general.....	117
1.2. Berariazko helburuak eta hauei lotutako hipotesiak // Objetivos específicos e hipótesis asociadas	117
2. KAPITULUA: METODOA	
CAPÍTULO 2: MÉTODO	123
2.1. Parte-hartzaileak // Participantes	123
2.2. Diseinua // Diseño.....	126
2.3. Ebaluazio-tresnak // Instrumentos de evaluación.....	126

2.4. Prozedura // Procedimiento	142
2.5. Datu-analisiak // Análisis de datos	144
3. KAPITULUA: EMAITZAK	
CAPÍTULO 3: RESULTADOS	147
3.1. AZTERLANA 1: Gainpisu eta obesitatearen prebalentzia aurrenerabezaroen // ESTUDIO 1: Prevalencia del sobrepeso y la obesidad en la preadolescencia	147
3.2. AZTERLANA 2: Gorputz-irudiaren alterazioak gainpisua eta obesitatea duten aurrenerabeengan // ESTUDIO 2: Alteraciones de la imagen corporal en preadolescentes con sobrepeso y obesidad.....	153
3.3. AZTERLANA 3: Aldagai emozionalak gainpisua eta obesitatea duten aurrenerabeengan // ESTUDIO 3: Variables emocionales en preadolescentes con sobrepeso y obesidad	175
4. KAPITULUA: ONDORIOAK ETA EZTABAIDA	
CAPÍTULO 4: CONCLUSIONES Y DISCUSIÓN.....	207
4.1. Hipotesien egiaztapena // Comprobación de hipótesis	207
4.2. Ikerketaren ekarpenak // Aportaciones de la investigación	233
4.3. Mugak eta etorkizuneko ikerketa-ildoak // Limitaciones y futuras líneas de investigación	234
ERREFERENTZIAK // REFERENCIAS	239
ERANSKINAK // APÉNDICES	295
A eranskina: ikerketan parte hartu duten ikastetxeen zerrenda // Apéndice A: lista de centros escolares participantes en la investigación	295
B eranskina: familiarentzako baimen informatua // Apéndice B: consentimiento informado para la familia.....	297
C eranskina: galdetegia // Apéndice C: cuestionario	299
D eranskina: artikulua // Apéndice D: artículo	321

TAULEN AURKIBIDEA

1. taula. Gizentasunaren neurri zuzenak eta zeharkako neurriak	9
2. taula. Pisu urritasun, pisu normal, gainpisu eta obesitatearen GMIaren sailkapena definizio desberdinen arabera eta web orrialdeetara estekak (erreferentzia taulak eta grafikoak)	13
3. taula. Autonomia-erkidegoaren arabera 2 eta 17 urte bitarteko Espainiako biztanlerian txikituz doan gehiegizko pisuaren banaketa ehunekoetan.....	19
4. taula. Haur gainpisu eta obesitatearekin lotutako erikortasun fisiko nagusiak.....	35
5. taula. Aurrenerabezaroan gorputz-irudia neurtzeko tresnak	54
6. taula. Haur eta gazteen gainpisu eta obesitateari eta antsietateari buruzko ikerketak	75
7. taula. Haur eta nerabeen depresioaren aurkezpen klinikoa	77
8. taula. Haur eta gazteen gainpisu eta obesitateari eta depresioari buruzko azterketak	82
9. taula. Haur eta gazteen gainpisu eta obesitateari eta autoestimuari buruzko ikerketak.....	90
10. taula. Haur eta nerabeen gainpisu eta obesitatearen eta oldarkotasunari buruzko ikerketak	98
11. taula. Haur eta nerabeen gainpisu eta obesitatearen eta elikadura- asaldurak izateko arriskuari buruzko ikerketak.....	106
12. taula. Sexu eta adinaren arabeko maiztasun eta portzentajeak.	125
13. taula. Ebaluazio-tresnak.	127
14. taula. OMEren araberako GMIaren sailkapena.	129
15. taula. GMIaren araberako irudien sailkapena.....	131
16. taula. Parte-hartzaileen ebaluazio-saioen laburpena.....	144
17. taula. Adinaren eta sexuaren araberako pisua kg-tan.	149
18. taula. Adinaren eta sexuaren araberako altuera cm-tan.....	149
19. taula. Sexuaren eta adinaren arabera frekuentziak eta ehunekoak.	152
Tabla 20. Tamaños corporales percibidos de los/as participantes en función del sexo y la edad	155
Tabla 21. Distorsión corporal de los/as participantes en función de la categoría ponderal	158
Tabla 22. Distorsión corporal de los/as participantes en función de la categoría ponderal según el sexo.....	159
Tabla 23. Distorsión corporal de los/as participantes en función de la categoría ponderal según la edad	161

Tabla 24. Tamaños corporales deseados de los/as participantes en función de la categoría ponderal	163
Tabla 25. Tamaños corporales deseados de los/as participantes en función de la categoría ponderal según el sexo.....	164
Tabla 26. Tamaños corporales deseados de los/as participantes en función de la categoría ponderal según la edad.....	166
Tabla 27. Insatisfacción corporal de los/as participantes en función de la categoría ponderal	169
Tabla 28. Insatisfacción corporal de los/as participantes en función de la categoría ponderal según el sexo.....	171
Tabla 29. Insatisfacción corporal de los/as participantes en función de la categoría ponderal según la edad.....	172
Tabla 30. Resultados más relevantes sobre las alteraciones de la imagen corporal en función del sexo, la edad y la categoría ponderal	173
Tabla 31. Puntuaciones medias y desviaciones típicas obtenidas por los/as participantes en las variables emocionales.....	181
Tabla 32. Puntuaciones medias y desviaciones típicas obtenidas por los/as participantes en las variables emocionales según sexo por edad	182
Tabla 33. Valores obtenidos en la prueba <i>F</i> en las variables emocionales en función del sexo y la edad	183
Tabla 34. Resultados más relevantes sobre las variables emocionales en función del sexo y la edad	184
Tabla 35. Comparaciones en las variables emocionales en función de la categoría ponderal	189
Tabla 36. Comparaciones en las variables emocionales en chicas según la categoría ponderal	194
Tabla 37. Comparaciones en las variables emocionales en chicos según la categoría ponderal	195
Tabla 38. Comparaciones en las variables emocionales en el grupo de 8-9 años según categoría ponderal	200
Tabla 39. Comparaciones en las variables emocionales en el grupo de 10-12 años según categoría ponderal	201
Tabla 40. Resultados más relevantes sobre las variables emocionales en función de la categoría ponderal y el sexo	202
Tabla 41. Resultados más relevantes sobre las variables emocionales en función de la categoría ponderal y la edad	204

GRAFIKOEN AURKIBIDEA

1. grafikoa. Gehiegizko pisuaren prebalentzia tasa, adinaren arabera estandarizatua, 5 eta 19 urte bitarteko neska eta nerabeengan	15
2. grafikoa. Gehiegizko pisuaren prebalentzia tasa, adinaren arabera estandarizatua, 5 eta 19 urte bitarteko mutil eta nerabeengan.....	15
3. grafikoa. 7-8 urte bitarteko haurrengan obesitatearen tasetan aldaketak, 2007-08 (edo urte hurbilena) eta 2015-2017.....	16
4. grafikoa. Haurren gainpisu eta obesitatearen ehunekoaren 1987-2917 eboluzioa sexuaren eta inkesta urtearen arabera	18
5. grafikoa. Gainpisuaren (obesitatea barne) prebalentzia sexuaren arabera 5 eta 19 urte bitarteko adin txikikoengan Espainian eta munduan.....	24
6. grafikoa. GMIaren kategorien prebalentzia estandarizatuan joerak sexuaren arabera Espainiako eskolaurreko haurrengan eta nerabeengan (5-19 urte artean).....	24
7. grafikoa. Europar ikerketa ezberdinen 2004-2017 arteko 3 eta 18 urte bitarteko adin txikikoen gainpisu (obesitatea barne) tasak	25
8. grafikoa. Pisu urritasunaren, pisu normalaren, gainpisuaren eta obesitatearen prebalentzia.	148
9. grafikoa. Sexuaren araberako pisu urritasun, pisu normala, gainpisu eta obesitatearen prebalentzia tasak.	150
10. grafikoa. Adinaren araberako pisu urritasun, pisu normala, gainpisu eta obesitatearen prebalentzia tasak.....	151
Gráfico 11. Distorsión corporal de los/as participantes	156
Gráfico 12. Insatisfacción corporal de los y las participantes	167

IRUDIEN AURKIBIDEA

1. irudia. Haurren hazkuntza patroiak, 5 eta 19 urte bitarteko adinerako GMiA	12
2. irudia. Obesitatearen eredu ekologikoa	21
3. irudia. Gainpisu eta obesitatearen sorrera eta garapenarekin lotutako faktoreen laburpena	23
4. irudia. Haur gainpisu eta obesitatearekin lotutako erikortasun psikosozial nagusiak.....	37
5. irudia. Gorputz-irudiaren osagaiak.....	44
6. irudia. Gorputz-irudiaren eredu	44
7. irudia. Parte-hartzaileak hautatzeko prozesua azaltzen duen fluxu-diagrama.....	124
8. irudia Sexuaren araberako adinaren banaketa	125

LABURDUREN ETA AKRONIMOEN ZERRENDA

APA	Amerikako Psikiatria Elkarte <i>American Psychiatric Association</i>
DSM-5	Buru asalduren diagnosi eta estatistika eskuliburua, 5. edizioa <i>Diagnostic and Statistical Manual of Mental Disorders, 5th Edition</i>
EAE	Euskal Autonomi Erkidegoa
EJN	Elikadura Jokabideen Nahastea
ELGA	Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundea
GMI	Gorputz Masaren Indizea
HTZ	Hondar Tipifikatu Zuzendutak
IOTF	Obesitatearen nazioarteko lan taldea <i>International Obesity Task Force</i>
OME	Osasunaren Mundu Erakundea
PENSOI	Prebentzioa, Hezkuntza eta Nutrizioa Haurren Gainpisuan eta Obesitatean

SARRERA

Gainpisua eta obesitatea osasunerako arriskutsua den gantz pilaketa anormal edo gehiegizko gisa definitzen dira (Osasunaren Mundu Erakundea, OME, 2020a) eta OMEk jakinarazi du 1975etik obesitatea hirukoiztu egin dela mundu osoan. Azken urteotan gehiegizko pisua osasun publikoko arazo bihurtu da, patologia kroniko transmitiezinarenean egungo baldintzatzaile nagusitzat hartzen delako eta prebalentzia larriki handitu delako Europan, Espainia barne. Fenomeno horien prebalentzia-tasa haurren % 30 eta % 40 artekoa da (Sánchez-Cruz et al., 2013).

Gainpisua eta obesitatea gaixotasun kardiobaskular eta zerebrobaskularrekin, diabetesarekin, hipertentsioarekin, dislipidemiarekin, lokomozio-arazoekin eta minbizi batzuekin lotuta daude. Gaixotasun horiek guztiek morbiditate-tasa handiak dituzte, eta eragin zuzena dute bizi-kalitatearen galeran. Pubertaroaren aurretik gainpisua duten haurrek berdin jarraitzen dute gazteak direnean, aipatutako gaixotasunak hasteko batezbesteko adina aurreratuz eta helduaroan obesitatea izateko probabilitatea handituz (Bauman et al., 2019; Kumar eta Kelly, 2017).

Orain arte, ikerketa gehiena gainpisua eta obesitatea prebenitzeko programetara bideratu da. Helburua elikadura osasungarria sustatzea eta ariketa fisiko erregularra egitea izan da, eta horrek, kasu askotan, tratamendu ez-integrala ematea ekarri du. Egindako azterlanetatik alderdi emozionalak eta jokabidezkoak kontuan hartzen dituzten aldagai psikologikoak barne hartu behar direla nabarmentzen da, hala nola, gorputz-distortsioa eta -asegabetasuna, antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia, autoestimu baxua, oldarkortasuna eta elikadura-asaldurak, besteak beste. Hala ere,

gainpisuari eta obesitateari dagokienez, alderdi psikologiko horiek, askoz gutxiago aztertu dira. Hori dela eta, doktoretza-tesi honek gainpisuaren eta obesitatearen, gorputz-irudiaren eta aldagai emozional batzuen artean dauden harremanei buruzko ezagutza zientifikoa areagotu nahi du aurrenerabegaroko etapan.

Ikerketa hau PENSOI proiektuaren barruan dago (Prebentzioa, Hezkuntza eta Nutrizioa Haurren Gainpisuan eta Obesitatean), zeina 6 eta 12 urte bitarteko adingabeen gainpisua eta obesitatea prebenitzen saiatzen den, arazoari modu integralean helduz. Proiektu hau diziplina anitzeko talde batek osatzen du, eta talde horretako kide dira pediatriak, dietista-nutrizionistak, kirol-teknikariak eta psikologiako eta irakaskuntzako profesionalak.

Doktoretza-tesi hau bi ataletan banatuta dago. Lehen atalean, hiru kapituluz osatuta dagoena, haurren gainpisuarekin eta obesitatearekin lotutako alderdi teoriko nagusiak aurkeztuko dira. *Lehen* kapituluan, gainpisuaren eta obesitatearen kontzeptuak eta diagnostiko-irizpideak aztertuko dira, horien artean etiologia, prebalentzia eta osasunean dituzten ondorioak. *Bigarren* kapituluak gorputz-irudiari, haren garapen ebolutiboari eta dauden alterazio batzuei egingo die erreferentzia (gorputz-distortsioa eta gorputz-asegabetasuna). *Hirugarren* kapituluan gainpisuan eta obesitatean inplikaturako aldagai psikologiko garrantzitsu batzuk berrikusiko dira: antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia, autoestimua baxua, oldarkortasuna eta elikadura-asalduren arriskua haurtzaroan.

Bigarren atala, beste lau kapituluz osatua, doktoretza-tesiarenean zati empirikoa da. *Lehenengo* kapituluan helburuak eta hipotesiak aipatuko dira. *Bigarrenean* metodoa, diseinua, laginaren ezaugarriak, ebaluazio-tresnak, prozedura eta datuen analisia deskribatuko dira.

Hirugarren kapituluan hiru azterlanen emaitzak aurkeztuko dira. Lehenengoan, laginean aurkitutako gainpisuaren eta obesitatearen prebalentzia-tasak aurkeztuko dira; bigarren azterlanean, gehiegizko pisuaren eta gorputz-irudiaren alterazioen arteko harremana aztertuko da; eta, azkenik, hirugarren azterlanean, gehiegizko pisuaren eta aldagai emozionalen arteko harremana aztertuko da, hala nola, antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia, autoestimu baxua, oldarkortasuna eta elikadura-asalduretarako arriskua. *Laugarren* kapituluan, tesi honen ondorioak eta planteatutako hipotesiak beste azterlan batzuetan lortutako emaitzekin alderatuko dira, eta lortutako emaitzak azalduko eta interpretatuko dira. Era berean, egindako lanaren emakari nagusiak aipatuko dira, azterlanaren mugak eta etorkizuneko ikerketa-ildoak identifikatuko dira.

Azkenik, tesi honetako ekarpenak aurkeztuko dira, ezagutza teorikoaz harago, lortutako emaitzei esker, aurrenerabezaroan gainpisu eta obesitate programak modu integratuan bideratzeko aukera izango baitira. Ariketara eta dietara mugatuta ez ezik, inplikaturako aldagai psikologikoei ere arreta berezia eskainiz, osasunaren psikologiaren esparruan kokatzen baitira.

I. ATAL TEORIKOA

1. KAPITULUA: GAINPISUAREN ETA OBESITATEAREN PREBALENTZIA AURRENERABEZAROAN

Kapitulu honetan gainpisuaren eta obesitatearen kontzeptuak, izandun irizpide anitzen araberako ebaluazio eta sailkapen metodoak, prebalentzia, etiologia eta gainpisuaren eta obesitatearen osasunaren erikortasunak jorratuko dira.

1.1. Gainpisu eta obesitatea kontzeptuak

Gainpisua eta obesitate terminoek erreferentzia egiten diote osasuntsutzat hartzen dena baino gorputz-gantz pilaketa handiagoari. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) gainpisua eta obesitatea “*osasunarentzat kaltegarria izan daitekeen gehiegizkoa edo anormala den gantz pilaketa*” gisa definitzen ditu (OME, 2020a). Gainpisuak, bere aldetik, sexua, altuera eta adina kontuan hartuz, gorputz-gantzaren ehunekoa osasuntsutzat hartzen dena baino handiagoa dela adierazten du, beti ere adinarentzat eta pisuarentzat egokia den mugen artean egonda (Chueca et al., 2002). Maila klinikoan, gainpisuak eta obesitateak hainbat baldintza inplikatzan dituzte, obesitatea gainpisuaren forma larria izanik.

Gainpisuaren eta obesitatearen oinarriko kausak kaloria maila altuko elikagaien ahoratzearen gehikuntza eta egoneko bizitza estiloen, garraio modu berrien eta urbanizazioaren areagotzearen ondoriozko ariketa fisikoaren gutxitzea dira. Horrek guztiak gehiegizko pisu eta gorputz bolumena errazten du (OME, 2020a).

OME edo *International Obesity Task Force* (IOTF, hemendik aurrera) bezalako nazioarteko organismoek obesitatea XXI. mendeko pandemiatzat hartzen dute azken hamarkadetan lortutako

larritasunaren, bizitza kalitatean duen eragin negatiboaren eta erakartzen duen osasun-gastuaren ondorioz (Dobbs et al., 2014).

1.2. Ebaluazio-metodoak

Aurrerago ikusiko dugun bezala haurtzaroan zein helduaroan lotuta dauden erikortasunak direla eta, adin goiztiarrean gehiegizko gantza identifikatzea eta zehaztea funtsezkoa da (Bauman et al., 2019; Kumar eta Kelly, 2017). Hala ere, gantz-ehunaren kopurua estatikoa ez denez, gehiegizko gorputz-gantza osasungaitza bilakatzen den ebaketa-puntua ezartzea gai korapilatsua da. Gainera, pertsonak gantz kantitate ezberdin izateaz gain, barruko gantzaren banaketa era ezberdinak ere izan ditzake. Hori dela eta, adipositatearen neurketa zuzen eta zeharkakoetan oinarritzen diren hainbat ebaluazio-metodo daude (Simoni et al., 2020) (ikus 1. taula).

Ebaluazio antropometrikoa ikerketa kliniko zein epidemiologikoetan gehien erabili den metodoa da, bere neurketaren erraztasuna eta kostu baxua direla eta (Kumar eta Kelly, 2017). Adin ezberdineko dimentsio fisikoak neurtzean eta erreferentziako estandarrekin erkatzean oinarritzen da. Gaur egun, nazioarteko mailan Gorputz Masaren Indizearen (GMI) balioen erabilera adostu egin da haur eta nerabeengan neurketarik egokiena izanik, adipositate orokorraren neurri zuzenekin egokitasunez lotzen baita (Freedman eta Sherry, 2009). Ikerketa honetan GMIIa gainpisuaren eta obesitatearen azterketarako erabili da.

1. taula. Gizentasunaren neurri zuzenak eta zeharkako neurriak

Gizentasunaren neurri zuzenak	
Hidrodensitometria	Gorputz bolumena zehazten du pertsona uretan murgilduz.
Energia bikoitzeko erradioabsorziometria (DEXA)	Masa muskularra, gantz masa eta hezur-masaren dentsitatea neurtzen ditu erradiazio baxuko prozesu baten bitartez.
Erresonantzia magnetikoa	Gorputz ehunen egitura eta konposizio kimikoari buruzko irudiak eskaintzen ditu. Gorputz konposizio totala edo eremu zehatz batena ezagutzea ahalbideratzen du.
Airearen desplazamendu bidezko pletismografia	Gorputz bolumena eta gorputz dentsitatea neurtzen ditu airearen desplazamenduaren bidez ganbera itxi batean.
Gizentasunaren zeharkako neurriak	
Inpedantziometria	Gorputzaren inpedantzia neurtzen du gorputzaren ur totala, gantz masa eta gantzik gabeko masa kalkulatzeko dituen dentsitate baxuko korrante alferno baten bitartez.
Neurri antropometrikoak	
Gorputz Masaren Indizea (GMI)	Pertsonaren pisua (kg-tan) zati altueraren berbidura (m-etan). Ez du gantz masaren eta gantzik gabeko masaren arteko bereizketarik egiten.
Gerri-aldaka erlazioa	Obesitate abdominala neurtzen du. Adin txikikoengan arazotsua izan daiteke gorputzaren neurri aldakorren eraginez.
Gerriaren zirkunferentzia	Obesitate abdominala neurtzen du.
Larruazaleko tolesturak	Gorputzaren eremu ezberdinetan larruazalpeko gantza neurtzen du (bizipitala, trizipitala, sorbalda-hezuperkoa eta iliako-gainekoa) lipokalibratzaile baten bitartez gorputz-gantzaren ehunekoa eskuratuz.

1.2.1. Gorputz Masaren Indizea

Gorputz Masaren Indizea (GMI) edo Quetelet-en Indizea haur gainpisu eta obesitatearen diagnosi pediatrikorako metodorik zabalduena da. Pisua (kilogramoetan) zati neurriaren berbidura (metroetan) kalkulatzuz lortzen da.

$$\text{Gorputz Masaren Indizea}$$
$$\text{GMI} = \frac{\text{Pisua (kg)}}{\text{Altuera (m}^2\text{)}}$$

Helduen populazioan, GMIaren sailkapena adostuta dago eta praktika klinikoan asko erabiltzen da. OMEko adituen batzordeak honako tarte hauek definitu zituen helduen populaziorako:

- Pisu urritasuna: 18,5 kg/m² baino gutxiago.
- Pisu normala: 18,5 kg/m² eta 24,9 kg/m² artean.
- Gainpisua: 25 kg/m² eta 29,9 kg/m² artean.
- I. mailako obesitatea edo moderatua: 30 kg/m² eta 34,9 kg/m² artean.
- II. mailako obesitatea edo larria: 35 kg/m² eta 39,9 kg/m² artean.
- III. mailako obesitatea edo morbidoa: 40 kg/m² edo gehiago.

Hala eta guztiz ere, 18 urte baino gutxiagoko pertsonengan ez da ahobatezko irizpiderik existitzen pisu urritasun, pisu normal, gainpisu eta obesitate maila desberdinen ebaketa-puntuak zehazteko (Flegal, 1993). Nazioartean, IOTFk (Cole et al., 2000; Cole eta Lobstein, 2012) eta OMEk (de Onis et al., 2007) proposatutako irizpideek onarpenik handiena dute.

IOTFren sailkapenaren garapenak nazioarteko ikerketak erkatu nahi zituen. Horretarako, 1963 eta 1993 urteen artean Brasil, Erresuma


Batua, Hong Kong, Herbehereak, Singapur eta Estatu Batuak herrialdeetako laginetan lortutako datuetatik abiatuta, ez egiturazko eredu matematikoa (LMS metodoa) aplikatu zuten. LMS metodoak onartzen du aldagai antropometrikoak asimetria maila (L), erdiko joera (M) eta sakabanatzea (S) kontuan hartuz eraldatzen direnean, banaketa normal batera egokitu daitezkeela. IOTFk Haur Obesitatearen Talde Europarrean oinarritu zuen bere proposamena (Poskitt, 1995). Horrela, pisu urritasuna, gainpisua eta obesitatea definitzeko, ebaketa-puntuak pertsona helduengan erabiltzen diren GMI balioen estrapolazioan oinarritzen dira: $18,5 \text{ kg/m}^2$, 25 kg/m^2 eta 30 kg/m^2 hurrenez hurren. Lortutako hazkuntza kurbek 2 eta 18 urte bitarteko adinetarako sexuaren arabera ebaketa-puntuak eskaintzen dituzte (Cole eta Lobstein, 2012).

OMEren arabera, adingabekoen GMIIa definitzeko ebaketa-puntuak sexuaren eta adinaren arabera aldatzen dira haurtzaroko eta nerabezaroko hazkuntza naturalaren eraginez. Honela, OMEk medianaren gainetik desbiderazio tipiko bat edo gehiago dagoen GMI balioan ezartzen du gainpisua (85 pertzentila); eta obesitatea bi desbiderazio tipiko edo gehiagotan (97 pertzentila). Erreferentzia balio hauek 5 eta 19 urte bitarteko haurrengan ezartzen dira (ikus 1. irudia). OMEren sailkapena egiteko erabilitako datuen jatorria *National Center for Health Statistics*-en -1977ko NCHS/OMEren- hazkuntza patroien berreraikuntza da, 5 urte baino gazteagoentzako hazkuntza patroien datuekin osatuta (de Onis et al., 2007). Duela gutxi analisi batek GMIaren adinaren arabera batezbesteko estandarizatuak adin txikikoengan mundu mailan gora egin zuela erakutsi zuen, baina ez modu berean eskualde guztietan (Benthan et al., 2017).

1. KAPITULUA

BMI-for-age GIRLS


5 to 19 years (percentiles)



2007 WHO Reference

BMI-for-age BOYS

5 to 19 years (percentiles)



2007 WHO Reference

1. irudia. Haurren hazkuntza patrioiak, 5 eta 19 urte bitarteko adinerako GMiA (OME, 2007)

Espainiari dagokionez, arlo klinikoan nahiz ikerketa arloan, Faustino Orbegozo Eizaguirre Fundazioak 0 eta 18 urte bitarteko adinentzako argitaratutako pertzentilen taulen erabilera hedatua dago (Fernández et al., 2011). Taula hauentzako datuak 2000-2001 urteetan eskuratu ziren eta ebaketa-puntuak ezartzeko Cole et al.-en (2000) aipatutako irizpideetan oinarritu ziren. Gainpisua sailkatzeko erabilitako irizpidea 25 kg/m^2 baino gehiagoko GMIa azaltzea da, emakumeengan 89ko pertzentilaren eta gizonengan 79ko pertzentilaren baliokide izanik. Obesitatearentzat, GMIa 30 kg/m^2 baino handiagoa izan behar da, 99 pertzentilaren baliokidea dena emakumeengan eta 97,5 pertzentilarena gizonengan. Aipatutako pertzentiletatik abiatuz, pisu urritasunerako, pisu normalerako, gainpisurako eta obesitaterako ebaketa-puntuak ezarri ziren adin talde desberdinetan (ikus 2. taula).

2. taula. Pisu urritasun, pisu normal, gainpisu eta obesitatearen GMIaren sailkapena definizio desberdinen arabera eta web orrialdeetara estekak (erreferentzia taulak eta grafikoak) (Rolland-Cachera, 2011tik moldatua)

Sailkapena	OME ^a (5-19 urte)	IOTF ^b (2-18 urte) eta F. Orbegozo ^c (0-18 urte)
Pisu urritasuna	GMI < -2DT	GMI < C-18,5*
Pisu normala	-1DT < GMI < +1DT	C-18,5* < GMI < C-25*
Gainpisua	+1DT < GMI ≤ +2DT	C-25* ≤ GMI < C-30*
Obesitatea	GMI > +2DT	GMI ≥ C-30*

* C-18,5; C-25 eta C-30-ek 18 urterekin $18,5 \text{ kg/m}^2$, 25 kg/m^2 eta 30 kg/m^2 -ren baliokideak diren pertzentilekin bat dato; DT: Desbideratze Tipikoa.

^ahttp://www.who.int/growthref/who2007_bmi_for_age/en/index.html

^b<http://www.bmj.com/content/320/7244/1240.full.pdf>

^chttp://www.fundacionorbegozo.com/wp-content/uploads/pdf/estudios_2011.pdf

OMEk darabilzkien gainpisua eta obesitatea definitzeko erreferentziazko populazioa eta ebaketa-puntuak (de Onis et al., 2007), IOTFk darabilzkien desberdinak dira (Cole eta Lobstein, 2012). Hau da, 18 urteko obesitatearen irizpidearekin bat egiten duten arren, adin goiztiarragoetan OMEk IOTFek obesitatea duten haur gehiago diagnostikatzen ditu, OMEren sailkapenarentzat pisu normalerako tartek txikiagoak baitira. Hortaz, sailkapen hau erabiliz gero gainpisuaren eta obesitatearen prebalentzia handiagoa da. Ikerketa honetan OMEren irizpidea erabiliko da, nutrizio-egoeraren araberrako arriskuan dauden pertsonak identifikatzean izaera prebentiboago duelako (Bergel et al., 2014).

1.3. Haur eta nerabeen populazioan gainpisu eta obesitatearen prebalentzia


OMEren 57. Batzarrak obesitatea XXI. mendeko pandemia bihurtu zela jakinarazi zuen (OME, 2004). Gaur egun erakunde honek adierazi du mundu mailan gehiegizko pisuak pisu urritasunak baino heriotzarekiko lotura handiagoa duela (OME, 2020a).

1.3.1. Mundu mailako prebalentzia


Mundu mailan, 5 eta 19 urte bitarteko adin txikikoen gainpisuaren eta obesitatearen prebalentzia modu esponentzian areagotu da. Hala, 1975ean % 4koa zen eta 2016an % 18 gaintu zuen. Igoera hau bi sexuetan antzeko moduan gertatu da: 2016an, nesken % 17,5k eta mutilen % 19,2k gainpisua zuten. Ehuneko hauek gainpisua eta obesitatea duten 337 milioi haur eta nerabe dira. 1975an obesitatea zuten adin txikikoen ehuneko ez zen % 1era iristen; 2016an, berriz, obesitatea zutenak 124 milioi ziren, nesken % 6ren eta mutilen % 8ren

baliokide dena. Mundu mailan gehiegizko pisua duten pertsona helduek 1900 milioi baino gehiago dira (Benthan et al., 2017; OME, 2020a).

Hurrengo grafikoetan gainpisua duten 5 eta 19 urte bitarteko haur eta nerabeen mundu mailako prebalentzien mapak aurkezten dira banandurik (obesitatea barne hartuz) (Benthan et al., 2017) (ikus 1. eta 2. grafikoak).



1. grafikoa. Gehiegizko pisuaren prebalentzia tasa, adinaren arabera estandarizatua, 5 eta 19 urte bitarteko neska eta nerabeengan




2. grafikoa. Gehiegizko pisuaren prebalentzia tasa, adinaren arabera estandarizatua, 5 eta 19 urte bitarteko mutil eta nerabeengan

Europako hogeita zortzi herrialdeetako 103 ikerketekin egindako metaanlisi baten arabera, 2 eta 13 urte bitarteko haurren gainpisuaren eta obesitatearen prebalentziaren estimazioa % 20,6tik 1999tik 2006ra, % 21,3ra igo zen 2011tik 2016. urtera. Eskualde europarren araberrako prebalentziari dagokionez, Iberiar eskualdean

(Espainia eta Portugal) beherako joera behatu zen bitartean, prebalentziak gora egin zuen Mediterraneoko herrialde gehienetan (adibidez, Italia), % 24tik % 37ra bitarteko tasekin. Aitzitik, Atlantikoko eskualdeko (adibidez, Frantzia) eta Erdialdeko Europako (adibidez, Alemania) datuek egonkortzea edota murrizketa adierazi zuten, % 14tik % 21era bitarteko murrizketa-tasekin (Garrido-Miguel et al., 2019).

1.3.2. Espainiako prebalentzia

Ekonomia Lankidetzeta eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA, 2018), *Health at a Glance: Europe 2018* txostenaren arabera, herrialde europarren artean, Espainiak obesitatea duen adin txikikoen ehuneko handiena du (ikus 3. grafikoa). Zehazki, 7 eta 8 urte bitarteko haurren % 18k obesitatea du, Europako Batasunean batezbestekoa % 12koa izanik.




Oharra: EBeko batezbestekoa ez da ponderatzen herrialdearen tamainarengatik.

3. grafikoa. 7-8 urte bitarteko haurrengan obesitatearen tasetan aldaketak, 2007-08 (edo urte hurbilena) eta 2015-2017 (Iturria: ELGA, 2018)

Azken hamarkadetan, estatu mailan gainpisuaren eta obesitatearen prebalentziari buruzko hainbat ikerketa burutu dira. Lehen ikerketako bat, 1984. urtean PAIDOS ikerketa izanik, 6 eta 13 urte bitarteko nesken % 4,6ko obesitate-prebalentzia aurkitu zuen eta % 5,1koa mutilengan, besteak beste. 1998tik 2000ra bitartean gauzatutako *enKid* ikerketak % 12,4ko gainpisuaren eta % 13,9ko obesitatearen prebalentzia erakutsi zuen, balio horiek txikiagoak izanik emakumeengan (% 22,5) gizonengan baino (% 29,9) (Serra-Majem et al., 2006). Ikerketa horretan erabilitako adinaren eta sexuaren arabera ebaketa-puntuak 85 pertzentilaren baliokideak ziren gainpisuan eta 95 pertzentilarenak obesitatean (Hernández et al., 1988).

Aurrerago, ALADINO ikerketan (2016), 2015-2016 urteetan 6 eta 9 urte bitarteko populazioan burutua, OMEren hazkuntzaren estandarren arabera gehiegizko pisuaren prebalentzia % 41,3koa izan zen (gainpisua: % 23,2; obesitatea: % 18,1).

Azkenik, 2017ko Osasunaren Inkesta Nazionalaren emaitzek, IOTFren irizpideen arabera (Cole eta Lobstein, 2012), haur obesitatearen prebalentziaren pixkanakako areagotzea adierazten dute (ikus 4. grafikoa). Gaur egun, 2 eta 17 urte bitarteko adin txikikoen % 28,56k gehiegizko pisua du (gainpisua: % 18,26, obesitatea: % 10,3) (Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko Ministerioa, 2017a, 2017b).



4. grafikoa. Haurren gainpisu eta obesitatearen ehunekoaren eboluzioa sexuaren eta inkesta urtearen arabera (1987-2017) (Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko Ministerioa, 2017c-tik moldatua)

Aranceta et al.-ek (2005) adierazten duten bezala, lan hauen datuen artean desberdintasun nabaria beha daiteke, sailkapen irizpideen, erabilitako ebaluazio-metodoen eta erreferentziazko populazioen homogeneitate falta dela eta; dena den, nabaria da azken hamarkadetan gehiegizko pisua duten adin txikikoen ehunekoak gora egin duela. Horri buruzko azkenetariko ikerketa batek baieztatu du 3 eta 24 urte bitarteko Espainiako biztanlerian gehiegizko pisua % 30etik gorakoa dela, edozein sailkapena erabilita ere (Aranceta-Bartrina et al., 2020).

Autonomia-erkidegoen araberako prebalentzia

2017. urteko Osasunaren Inkesta Nazionalak (Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko Ministerioa, 2017a), autonomia-erkidegoen arabera, 2 eta 17 urte bitarteko biztanleen gehiegizko pisuaren prebalentzia tasak % 14,95 eta % 39,96 bitartean daudela dio (ikus 3. taula).

3. taula. Autonomia-erkidegoaren arabera 2 eta 17 urte bitarteko Espainiako biztanlerian txikituz doan gehiegizko pisuaren banaketa ehunekoetan (Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialako Ministerioa, 2017a-tik moldatua)

Autonomia-Erkidegoa	Gainpisua	Obesitatea	Gehiegizko pisua
Murtziako Eskualdea	25,75	14,21	39,96
Zeuta	19,12	17,97	37,09
Melilla	24,50	11,51	36,01
Kanariak	25,15	10,38	35,53
Andaluzia	20,92	12,48	33,40
Balearrak	22,97	10,14	33,11
Valentziako Erkidegoa	16,94	11,98	28,92
Gaztela-Mantxa	18,46	10,14	28,60
Errioxa	19,36	8,29	27,65
Katalunia	14,84	12,65	27,49
Asturias	18,20	7,86	26,06
Madril	17,66	7,51	25,17
EAE	13,59	11,10	24,69
Kantabria	20,95	2,55	23,50
Gaztela eta Leon	17,87	5,60	23,47
Galizia	17,11	6,18	23,29
Extremadura	11,88	10,38	22,26
Aragoi	18,17	2,54	20,71
Nafarroa	13,51	1,44	14,95

Autonomia Erkidegoen artean, Murtziako Eskualdeak, Ceutak, Melillak eta Kanariar Artxipielagoak gehiegizko pisuaren tasa handiena aurkezten dute: guztiek % 35 gaingitzen dute. Kontrako muturrean Nafarroa eta Aragoi daude, ez dute gehiegizko pisua duten adin txikikoen % 22 gaingitzen. Inkesta honen arabera, EAEan adin txikikoen % 24,69k gainpisua eta obesitatea du, gainerako erkidegoen aldean batezbestekoan kokatuz. Datu hauek zertxobait handiagoak dira

EAEan burututako azken inkestan, 4 eta 18 urte bitarteko biztanleen % 28,1ek gehiegizko pisua aurkezten zuela ikusirik, zehazki, % 15,9k gainpisua eta % 12,2k obesitatea (Eusko Jaurlaritza, 2006).

1.4. Etiologia


Obesitatea nagusiki haurtzaroan edo nerabezaroan hasten den eta jatorri heterogeneo eta faktore anitz duen gaixotasun kronikoa da, zeinaren etiopatogean faktore biologikoak zein inguruneokoa inplikaturik dauden. Obesitatearen etiologiari buruzko azken ikerketak maila anitzeko ikuspegitik egin dira (banakakoa, familiakoa, eskolakoa eta soziala).

Obesitatea sailkatzeko orduan, bi talde ezar ditzakegu: batetik bigarren mailako obesitatea, bestetik lehenengo mailako obesitatea. Bigarren mailako obesitatea, organikoa edo endogenoa ere deitua, beste gaixotasun batzuen (adibidez, hipotiroidismoa) edo farmakoen (adibidez, antidepresibo triziklikoak) ondorio da, kasuen % 5 izanik. Lehen mailako obesitatean, exogenoa edo poligenikoa ere deitua, ez dago azpiko ageriko kausarik eta askotariko geneen eta elikadura eta ariketa fisikoa bezalako kanpo faktoreen eraginaren ondorio izan daiteke. Talde honek haur eta nerabeen obesitate kasuen % 95 barne hartzen du (Pallardo, 2019).

Jarraian, gainpisua eta obesitatearen eredu ekologikoak deskribatuko dira, baita horien sorrerari eta garapenari lotutako zenbait faktore ere.

1.4.1. Gainpisuaren eta obesitatearen eredu ekologiko-ebolutiboa

Gainpisu eta obesitatearen faktore anitzeko jatorriak, zenbait faktore endogeno edo biologiko eta faktore exogeno edo ingurumeneko faktore tartean, gaixotasun honen etiologia zehaztea zailtzen du. Egger-ek eta Swinburn-ek, 1997an, gorputz-gantzaren biltegitratzea azaltzeko ekarpen eta gastu energetikoak bitartekari eta doitze fisiologikoak moderatutako faktore biologikoak, jokabidezkoak eta ingurumenezkoak biltzen zituen eredu ekologikoa proposatu zuten (ikus 2. irudia).



2. irudia. Obesitatearen eredu ekologikoa (Iturria: Egger eta Swinburn, 1997)

Zenbait urte beranduago, sistemen teoria ekologikoaren inguruko informazio zabala (Bronfenbrenner, 1986) laburbiltzen saiatu ziren beste autore batzuk. Eredu hauek garapenaren etapa desberdinetan desoreka ponderalaren momentu kritikoak laburbiltzen dituzte (adibidez, nerabeزارoan, Neumark-Sztainer-en kasuan, 2005; eta haurtzaroan, Tabacchi et al.-en kasuan, 2007).

Berriki, Harrison et al.-ek (2011) aipatutako lanak zabaldu zituzten herentziako nahiz inguruneko eraginak kontuan hartzen dituen eredu ekologiko baten bitartez. Hauek inguruneko eraginak sailkatzeko sistema bat zehazten duelarik eta haurtzarotik nerabezaroko garapenaren edozein etapetara egokitzea baimentzen duelarik. “*The Six-Cs*” deritzon eredu hau, ingelesezko laburdurengatik, sei eremutan dago banatua: zelula, haur, familia, komunitate, herrialde eta kultura.

Lehen aipatutako eredu ekologikoa inguru obesogenikoaren kontzeptuaren barne sartzen da. Haur obesitatearekin amaitzeko Batzordearen azken txostenean (OME, 2016) inguru obesogenikoa “*ekarpen energetiko altua eta jokabide sedentarioa sustatzen dituen ingurune*” gisa definitu zen. Desoreka energetikoa elikagaien kalitate, erabilgarritasun, eskuragarritasun eta komertzializazioko transformazioen ondorio da, ariketa fisikoaren gutxitzearekin batera, aisialdiko jarduera sedentarioetan denbora gehiago igaroz (adibidez, pantailen erabilpena). Aldagai horiez gainera, ingurune obesogenikoa faktore politiko eta komertzialek, eraikitako inguruek, balioek, arau sozialek eta familia inguruek osatzen dute. Hortaz, obesitatea inguru osasungaitz baten esposizioaren eta inguru horrekiko jokabide zein erantzun biologiko desegokien konbinaketaren ondorio da.

1.4.2. Gainpisuaren eta obesitatearen sorrera eta garapenarekin lotutako faktoreak

Atal honetan gehiegizko pisuaren sorrera eta garapenarekin lotutako faktoreak jorratuko dira, faktore biologiko, ama-haur faktore eta inguruneko faktoreak direlarik (ikus 3. irudia).



Faktore biologikoak

- Sexua eta adina
- Faktore genetikoak eta familia aurrekariak



Ama-haur faktoreak



Ingurune faktoreak

- Jokabidezko faktoreak
- Familia faktoreak

3. irudia. Gainpisu eta obesitatearen sorrera eta garapenarekin lotutako faktoreen laburpena


a) Faktore biologikoak

Sexua eta adina

Mundu mailan, gainpisua eta obesitatearen tasetan sexuaren eta adinaren arabera desberdintasunak behatu dira, hauek sendotasunik gabekoak badira ere (Sweeting, 2008). *NCD Risk Factor Collaboration*-eko aditu taldearen 5 eta 19 urte bitarteko adin txikiko gehiegizko pisuaren munduko prebalentziari buruzko datuen arabera, nesken % 17,5ek gainpisua dauka (obesitatea barne), mutilen % 19,2ren aurrean. Zehazki, mundu mailako obesitatearen prebalentzia % 5,6koa da nesken eta % 7,8koa mutilengan (Benthan et al., 2017). Adinari dagokionez, obesitatearen prebalentzia nerabeengan eskolaurreko umeengan baino handiagoa izaten da, eta sexuen arteko haur nagusien eta nerabeen desberdintasunak txikiak edo hutsalak izan ohi dira (Gupta et al., 2012). Hala ere, Europako herrialde gehienetan neskek mutilek baino gainpisu/obesitate prebalentzia handiagoa dute; desberdintasunak txikiak izanik ere (Garrido-Miguel et al., 2019).


1. KAPITULUA

Espainian gainpisuaren (obesitatea barne) prebalentzia tasak % 30,7ra igo ziren emakumeengan (% 8,2 obesitatea) eta % 36,7ra gizonengan (% 12,9 obesitatea) (Benthan et al., 2017) (ikus 5. grafikoa).




5. grafikoa. Gainpisuaren (obesitatea barne) prebalentzia sexuaren arabera 5 eta 19 urte bitarteko adin txikikoengan Espainian eta munduan (<http://ncdrisc.org/overweight-prevalence-line-ado.html>-tik moldatua)

Ondoko grafikoan Espainiako adin txikikoen azken 40 urteetako GMIaren prebalentziaren joera azaltzen da (Benthan et al., 2017) (ikus 6. grafikoa). Bosgarren eta seigarren grafikoetan azken hamarkadetan bi sexuetan gainpisu eta obesitatearen pixkanakako igoera gertatu dela beha daiteke.



6. grafikoa. GMIaren kategorien prebalentzia estandarizatuan joerak sexuaren arabera Espainiako eskolaurreko haurrengan eta nerabeengan (5-19 urte artean) (Iturria: <http://ncdrisc.org/country-profile.html>)

Izan ere, Espainiak gainerako europar herrialdeen aldean gainpisu eta obesitatearen zifra altuenetarikoa du (Estudio ALADINO, 2016; World Obesity, 2019) (ikus 7. grafikoa).



7. grafikoa. Europar ikerketa ezberdinen 2004-2017 arteko 3 eta 18 urte bitarteko adin txikikoen gainpisu (obesitatea barne) tasak (World Obesity, 2019¹-tik moldatua)

ELGAK 2018an egindako azken informearen arabera, 7 eta 8 urte bitarteko espainiar neskek eta mutilek obesitatearen % 18,7 eta % 16,8 dute, hurrenez hurren, Europar Batasuneko batezbestekoa neskontzat % 9,9 eta mutilentzat % 13,4 izanik.

Prebalentzia-tasen desadostasun horien azalpenetako bat haur eta nerabeen gainpisu eta obesitatea zehazteko irizpide desberdinen erabilpena da. Espainian, ikerketa gehienek gainpisu eta obesitate prebalentzia tasa altuenak mutilengan eta aurrenerabezeroan daudela adierazten dute (Estudio ALADINO, 2016; Serra et al., 2003), baina kasu batzuetan ez da desberdintasun estatistikoki esanguratsurik aurkitu (Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko Ministerioa, 2017c). Izan ere, Sánchez-Cruz et al.-ek (2013) 8 eta 17 urte bitarteko Espainiako biztanlerian egindako ikerketan, mutilek neskek baino gehiegizko pisu handiagoa zuten, baina desberdintasun hau ez zen estatistikoki esanguratsurik izan. Adinari dagokionez, 8 eta 13 urte bitarteko taldeak % 45,4ko prebalentzia tasa azaldu zuten (% 30,7ko gainpisua eta % 14,7ko obesitatea) 14 eta 17 urte bitarteko taldearen aurrean, zeinak % 25,5eko prebalentzia tasa adierazi zuten (% 17ko gainpisua eta % 8,5eko obesitatea).

Ondoren, azken ALADINO ikerketan (2016) aurkitu zen gainpisuaren prebalentzia antzekoa dela bi sexuetan, baina, aurreko ikerketa espainiarretan bezala, obesitatearen prebalentzia estatistikoki handiagoa zen mutilengan. Adinaren araberrako taldeetan, 7 urtetik aurrera gainpisuaren prebalentziak gora egiten zuten adinarekin batera nesken eta obesitatearen prebalentziak mutilengan.

Azken Osasunaren Inkesta Nazionalak 2 eta 17 urte bitarteko adin txikikoen gainpisu eta obesitatearen prebalentzia % 28,56n kokatzen du (Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko Ministerioa, 2017a, 2017c). Gainpisu eta obesitatearen portzentajeak antzekoak dira bi sexuetan, % 28,7 mutilengan eta % 28,4 nesengan, eta beraz, ez dago sexuaren araberako desberdintasun estatistiko esanguratsurik. Adinari dagokionez, gehiegizko pisuaren tasa handiena aurkezten duen taldea 5 eta 9 urte bitartekoa da, % 36,49; bigarrenik, 2 eta 4 urte bitarteko taldea eta 10 eta 14 urte bitarteko taldea daude % 31,91 eta % 26,04, hurrenez hurren; eta azkenik, 15 eta 17 urte bitarteko taldea da tasarik txikiena aurkezten duena (% 18,67). Zehazki, EAEn gainpisuaren prebalentzia tasa % 13,59koa da eta obesitatearena % 11,10ekoa. Portzentaje hauek zertxobait txikiagoak dira EAEan 2005ean burututako Nutrizio Inkestarekin erkatuta (Eusko Jaurlaritza, 2006).

Faktore genetikoak eta familia aurrekariak

Obesitatearen etiologian faktore genetikoaren eragina zehazteak interes handia piztu du. Bras-en eta Bustos-en (2005) arabera, GMIaren aldakortasuna % 40 eta % 70 bitartean esleitzen dakieke faktore genetikoei. Bikiei eta adoptatutako haurrei egindako ikerketek faktore genetikoek GMIaren aldakortasunean eragin handia dutela nabarmendu dute, nahiz eta oraindik inplikaturako geneak zehazki identifikatu ez diren (Silventoinen et al., 2010). Stunkard et al.-en (1986) ikerketa klasikoan aurkitu zen harreman handia zegoela haur adoptatuen GMIaren eta guraso biologikoen GMIaren artean, baina ez adopziozko gurasoen GMIarekin.

Geroztik, hainbat ikerketak haur obesitatearen eta gurasoen obesitatearen arteko harremana aztertu dute. Ezarrita dagoenaren arabera, bi gurasoek obesitatea dutenean, transmisioaren arriskua % 69 eta % 80 artekoa izango da; gurasoetako batek soilik duenean obesitatea % 41 eta % 50 artekoa izanik; eta gurasoetako batek ere obesitaterik ez badu, transmisio arriskua % 9koa soilik izango da (Acosta-Hernández et al., 2013). Ondorioz, guraso batek edo biek loditasuna duten familiek arriskua handiagoa dute obesitatea duten seme-alabak izateko; hau 10 urtetik beherakoetan gertatzen da. Hortik aurrera, haurraren GMIa bera da iragarlerik onena (Villagrán et al., 2010). Gainera, guraso batek edo biek loditasuna izateak haur obesitatea ondorengoko etapetan mantentzeko aukera areagotzen du (Aranceta et al., 2005).

Lau eta sei urte bitartean, garapenaren berezko gantz-errebotea ere kontuan izan behar da; izan ere, zenbat eta lehenago gorputz-gantzaren areagotzea gertatu, orduan eta helduaroan obesitatea izateko arriskua handiagoa izango da (Carrascosa et al., 2011). Hala ere, ez dago jakiterik areagotze hau fenomeno epigenetiko baten ala energiaren balantze positibo bat sustatzen duten familia faktoreen eta bizitza estilo baten ondorio den.

Azkenik, obesitate endogenoarekin lotutako sindrome genetiko eta hormonalak (Prader-Willi sindromea, Cushing sindromea, hipotiroidismoa, hazkuntza hormonaren defizita...) haur obesitatearen kausa arraroak dira (% 5 baino gutxiago), baina garrantzitsuak dira. Askotan, garapenaren atzerapena, altuera baxua, ezaugarri dimorfikoak eta organo edo sistema espezifikoek alterazioak izaten dituzte ezaugarri (Hassink, 2010).

b) Ama-haur faktoreak

Amaren pisua eta elikadura

Zenbait berrikuspen sistematikok haurdunaldian amaren gehiegizko pisua haurren gainpisu eta obesitatearekin maila altuan korrelazionatzen dela ezagutzera eman dute (adibidez, Heslehurst et al., 2019). Halaber, arestiko ikerketa batek haur obesitatea sorkuntza baino lehenago has daitekeela ezagutarazi du, sortutako obuluek gantz-azidoen konposaketa desberdina dutela argudiatuz (Matorras et al., 2020). Haurdunaldian amaren nutrizio kalitateari dagokionez, hau erabakigarria da bai haurtzaroko pisu urritasun eta obesitatean, baita helduaroko erikortasunetan ere (Black et al., 2013).

Jaiotzako pisua, hazkuntza azkarra bizitzako lehen urtean eta haurtzaroko gehiegizko pisua

Makrosomia (jaiotzako pisua ≥ 4 kg) eta hazkuntza azkarra bizitzako lehen urtean haurtzaroko gehiegizko pisuaren garapenarekin lotutako faktore gisa aipatu ere egin dira (Escudero et al., 2018; Weng et al., 2012).

Amaren edoskitzea

Amaren edoskitzeak gainpisu eta obesitatearen prebentzioan erantzukizun nagusia du (Aguilar et al., 2015). ALADINO ikerketaren (2016) arabera, amaren edoskitzeari dagokionez obesitatea zuten mutilek pisu normala zutenek baino portzentaje baxuagoak aurkeztu zituzten; neskengan, ordea, ez zen pisuaren araberrako desberdintasun esanguratsurik aurkitu. Weng et al.-ek (2012) amaren edoskitzea jasotako haurren artean gehiegizko pisua izateko probabilitatea % 15 gutxitu zela ikusi zuten.

c) Ingurune faktoreak

Jokaera faktoreak

Gehiegizko pisuaren intzidentzia dieta, ariketa fisikoa, loa eta pantailen erabilpena bezalako jokabidezko faktoreekin lotu da. Gurasoek funtsezko papera dute beren haurren oreka energetikoan eragiten duten jokabideen laguntzan eta erabileran (Bogl et al., 2017). Wilfley et al.-ek (2019) dioten bezala, haur obesitatearen arriskuan eragiten duten familia ohiturak aztertu dituzten ikerketek bizitza estilo antzekoak nabarmendu dituzte etxean, batez ere adin txikikoengan.

Honela, *familia elikadura ohiturek* pisuaren irabaztea baldintzatzen dute (Serra-Majem et al., 2006). Adin goiztiarretik, familia otorduak elikadura ohiturak eta jokabideak erakusteko espazioa dira. Izan ere, otorduen maiztasun handiagoa GMI baxuagoarekin eta dietaren kalitate hoberekin lotuta dago (Dallacker et al., 2018).

Haur eta nerabeen gainpisu eta obesitatean eragiten duen elikadura patroi osasungaitzari dagokionez, eskuragarri eta energia dentsitate handiko elikagaien gehiegizko ahoratzea (azukreak, gantz aseak eta animalia proteina) eta ano handiagoak izaten dira fruitu, barazki eta zereal integralen ahoratzea baino (Katsa et al., 2018), halaber gosari eza (Ma et al., 2020).

Ariketa fisikoari dagokionez, familia inguruak ere ariketa fisikoko ohituretan eragiten du. Izan ere, Burke et al.-ek (2005) ama aktiboa zuten 4 eta 7 urte bitarteko haurrek aktiboak izateko aukera bikoitza zutela azaldu zuten, ama ez-aktiboa zutenen aldean; aita aktiboa zelarik, probabilitateak 3,5era egiten zuen gora; eta biak aktiboak baziren, 7ra. Orobat, Cooper et al.-ek (2015) burututako ikerketan 7 eta 18 urte bitarteko gazteen artean, gainpisua eta obesitatea zutenek pisu normala zutenek baino ariketa gutxiago gauzatzen zutela

agerian geratu zen. Nazioarteko adituen gidatan oinarrituta, Tudor-Locke et al.-ek (2011) lehen hezkuntzako urteetan zehar ariketa fisikoa egunean 60 minutuz egitea edo gutxienez 10 000 pausu ematea gomendatzen dute.

Pantailen erabilpena (telebista, ordenagailua, bideo-jokoak) ere haur gainpisu eta obesitatearekin lotuta dago (Mazur et al., 2018). Ia jarduerarik gabeko bizimoduak gehiegizko pisuaren sorburuan garrantzia handia du (Wijnhoven et al., 2015), adin txikikoek kirol praktika, ibilaldi eta aire libreko jolasak ekiteari saihesten baitiote. Borghese et al.-ek (2015) egunean 4 ordu baino gehiago telebista ikusten zuten adin txikikoek obesitatea izateko probabilitate handiagoa zutela topatu zuten. Halaber, telebista ikusten ordu gehiago egoteak korrelazio positiboa azaldu zuen azukredun edari edo *snack* gehiago kontsumitzearekin (Borghese et al., 2015). ALADINO ikerketak (2016) erakutsi zuen telebista egunean 2 ordu baino gehiagoz ikusteak eta adingabearen gelan pantaila bat izateak lotura estua zuela obesitatearekin eta lo-ordu gutxiagorekin.

Loa dela eta, Loaren Fundazio Nazionalak (*National Sleep Foundation*, n.d.) 6 eta 13 urte bitarteko haurrek egunean 9 eta 11 ordu bitartean lo egin dezaten gomendatzen du. Metaanalisi batek erakutsi zuen, gomendatutako orduak baino gutxiago lo egiteak haur eta nerabeen obesitate-arriskua ere areagotu lezakela (Li et al., 2017). Erlazio hau telebista gehiago ikustearen eta elikadura-ohitura okerragoen ondorio litzateke (Magee eta Hale, 2012).

Azkenik, *giza komunikabideen eraginpean jartzeak* garrantzi handia du egungo obesitate-epidemia (Mazur et al., 2018), bere mezuak kontraesankorrak izan daitezkeen arren. Alde batetik, neskenentzako arketipo lerden edo argalak eta mutilentzako arketipo

muskulatuak erakusten dituztelako. Bestetik, eduki kaloriko altuko produktu ugari azaltzen dituztelako (Bras eta Bustos, 2005). Tiberio et al.-ek (2014) pantailen erabilpenaren denboraren gaineko gurasoen kontrolak haurren GMian epe luzerako ondorioak izan ditzakeela aurkitu zuten, beraz, haur gainpisu eta obesitatea prebenitzeko beren erabilpena mugatzearen garrantzia azpimarratzen dute.

Familia faktoreak

Familiaren maila sozioekonomikoak ere haur eta nerabeen obesitatearen garapenean eragiten du, erlazio mistoa azalduz (Bauman et al., 2019; Weng et al., 2012). Hasiera batean diru-sarrera ertaineko herrialdeetan, haurren obesitatearen hazkundera bizkorragoa izan da, klase ertain-altuetan eta altuetan, Txinan beha daitekeen moduan (Jia et al., 2017). Aldiz, diru-sarrera altuko herrialdeetan patroia alderantzizkoa da: haur obesitatearen tasa handiagoa da maila ekonomiko behartsuen artean (adibidez, Suedia), baina hainbat europar herrialdeetan patroia misto konplexuagoak daude (Lissner et al., 2016). Gose et al.-ek (2013), esaterako, Alemaniako auzo behartsuetan bizi diren adin txikikoek bertan bizi ez direnek baino GMI altuagoa dutela aurkitu zuten.

Espanian 2001-2017 urte tartean egindako ikerketek erakutsi zuten ekonomi-maila altuko haurtzaroko populazioan, bi sexuetan, prebalentzia baxuagoak zirela. Azken urte horretan ekonomi-mailarik altuenean % 5,41ekoa izan zen eta mailarik apalenean % 15,37koa (Osasun, Kontsumo eta Ongizate Sozialeko Ministerioa, 2017c). Eraitza hauek bat datoz ALADINO ikerketarekin (2016), hor desberdintasun geografikoak agertu ziren, Espainiako hegoaldean bizi diren haurrek obesitaterako joera handiagoa aurkeztuz.

Gurasoen hezkuntza mailak ere eragiten du obesitatearen prebalentzian. Zenbat eta baxuagoa izan ikasketa maila, orduan eta haurrak obesitatea pairatzeko probabilitate handiagoa du (Aranceta et al., 2005). Ikerketa italiar bateko datuen arabera, amaren hezkuntza maila baxu/ertaina haur obesitatearen arrisku faktorea zen; gainera, hezkuntza maila altuko gurasoen aldean, hezkuntza maila baxuko gurasoen haurren obesitatearen prebalentzia esanguratsuki handiagoa zen (Parrino et al., 2016). Gure inguruan, Euskal Osasun Inkestak ikasketa mailak jaitsi ahala, helduen obesitateak gora egiten zuela erakutsi zuen. Eskainitako datuen arabera, unibertsitateko ikasketak dituzten emakumeen % 6,1k eta gizonen % 8,4k loditasuna du lehen mailako ikasketak dituzten emakumeen % 16,7 eta gizonen % 18,9ren aldean (Eusko Jaurlaritza, 2018). Aldiz, ikerketa batzuek ez dute haurraren GMIaren eta gurasoen hezkuntza mailaren arteko erlazioirik aurkitu (León et al., 2018).

Gehiegizko pisuaren prebalentzian lagundu dezakeen beste faktore bat familia egitura da. Hona hemen zenbait arrisku faktore: seme/alaba bakarria izatea, adoptatua izatea, familia handi bateko azken seme/alaba izatea, guraso bakarreko familia batekoa izatea, 35 urtetik gorako ama izatea edo familia ugariko seme/alaba izatea (Datar, 2017).

Familia-faktoreek eragiten dute ingurune sozioekonomiko behartsuetan eta gurasoek ikasketa maila baxua duten haurrengan gehiegizko pisuko tasa handiagoak adierazirik (Valdera-Gil et al., 2020). Dena den, bizimoduak, batez ere elikadura eta ariketa fisikoko ohiturak, obesitatearen prebalentzia tasetan dauden desberdintasunen faktore eragile nagusiak dira.

1.5. Erikortasunak

Haur gainpisua eta obesitatea hainbat efektu kaltegarri edo erikortasunekin erlazionatzen dira, osasun fisiko eta mentalen arriskuak ekartzen dituztenak epe motzean, ertainean eta luzean (ikus 4. taula eta 4. irudia).

Erikortasun hauetako askok helduaroan gaixotasunen arrisku faktore bihurtzeko aukera dute (Kumar eta Kelly, 2017). Adibidez, haurtzaroko obesitatea nerabezaroko (Albañil et al., 2011) eta helduaroan obesitatearen (Wilfley et al., 2019) iragarle indartsua da, baita helduaroan heriotza goiztiarreko arrisku-faktorea izanik ere (Wilfley et al., 2019). Cunningham et al.-en (2014) luzerako ikerketak erakutsi zuen 14 urte baino lehen obesitatea garatu zuten adingabeen artean ia erdiak gehiegizko pisua zuela, eta % 75ek 5 urterekin 70ko pertzentila gainditzen zuela.

1.5.1. Erikortasun fisikoak

Etorkizuneko arrisku hauez gain, haur obesitatea lehen soilik helduaroan agertzen ziren gaixotasun kutsagaitzekin erlazionatuta dago (Kumar eta Kelly, 2017). Horren adibide dira gaixotasun kardiobaskularren markatzaileak, besteak beste, hipertentsio arteriala, dislipidemiak, aterosklerosia eta horren ondorioz, sindrome metabolikoa (Lloyd et al., 2012).

Halaber, gehiegizko pisua duten gazteek glukosarekiko intolerantzia, insulinarekiko erresistentzia eta 2. motako diabetesa izateko arrisku handiagoa dute (Pulgaron eta Delamater, 2014), hazkuntza hormonaren erantzunaren gutxitzeaz gain (Bueno, 2004). Asma edo loaren apnea eragozgarriak bezalako arnasketa zailtasunak ere aurkeztu ditzakete (Egan et al., 2013; Narang eta Mathew, 2012).

Haur hauek arazo ortopedikoak eta gihar- eta eskeleto-ondoezak pairatzeko aukera handiagoa ere badute, baita kirol praktikan zailtasunak ere (Paulis et al., 2014).

Beste erikortasun batzuk honako hauek dira: psoriasis, *acantosis nigricans* (artikulazio eta tolesturen inguruan orban ilun eta lodituak ezaugarri dituen azaleko alterazioa), mutilengan heltze berantiarra eta nesengan menarkia goiztiarra, obario polikistikoaren sindromea, esteatosi hepaticoa, kolelitiasia, errefluxu gastrointestinala, garun pseudo-tumorea eta neoplasia mota desberdinak (Africa et al., 2016; Berger, 2018; Laitinen et al., 2003; Mahé et al., 2014) (ikus 4. taula).

4. taula. Haur gainpisu eta obesitatearekin lotutako erikortasun fisiko nagusiak


Gaixotasun kardiobaskularrak:	Hilekoaren alterazioak:
- Hipertentsio arteriala	- Obario polikistikoaren sindromea
- Dislipidemiak	
- Aterosklerosia	Lokomozio-aparatuaren nahasteak:
- Sindrome metabolikoa	- Osteoartritis
Alterazio endokrinoak:	- Eskoliosia
- Glukosaren intolerantzia	- Blount-en gaixotasuna
- Erresistentzia intsulinikoa	Arnasketa gaixotasun kronikoak:
- Aurre-diabetesa eta 2. motako diabetesa	- Asma
- Hazkuntza hormonaren erantzunaren gutxitzea	- Hipobentilazioa
	Loaren apnea buxatzaileak

1.5.2. Erikortasun psikosozialak

Erikortasun fisiko horiez gain, haur eta nerabeen obesitatearekin lotutako erikortasun psikosozial negatibo anitz daude, aurrenerabeen arlo emozional, intelektualean eta sozialean eragiten dutenak. Nutrizio egoeraren eta aldagai psikologikoen artean erlazioak ezartzeko orduan, garrantzitsua da kontuan hartu beharreko bi alderdi

aipatzea. Alde batetik, gehiegizko pisuaren eta faktore psikologikoen arteko erlazioa bi noranzkoko da: biak izan daitezkeelako kausazko faktoreak, ondorioak edo gaixotasun interkurrenteak edo konkomitanteak. Hau da, gehiegizko pisuak pertsonaren funtzionamendu psikosozialean negatiboki eragin dezake, edo alderantziz (Burke eta Storch, 2015; Rankin et al., 2016). Beste aldetik, erikortasun psikologiko hauek elkarrekin lotuta daude, hots, aldagai bakoitzaren eta obesitatearen artean erlazioa existitzeaz gain, aldagai psikologikoen artean ere bi noranzkoko erlazioak existitzen dira (Gibson, 2011) (ikus 4. irudia).

Bibliografian arreta berezia jaso duen faktore bat gorputz-irudia eta bere alterazio posibleak dira, hala nola distortsioa eta gorputz-asegabetasuna. Gainpisua eta obesitatea duten haur eta nerabeei gorputz-irudi negatiboa edo beren gorputz-tamainaren pertzepzio desagokia izateko joera dute (Leppers et al., 2017; Uribe-Salas et al., 2018), hau da, berez dutena baino gorputz-irudi txikiagoa dutela pentsatuz. Hau obesitatearen arrisku faktoretzat (Cho et al., 2012) eta gorputz-irudiaren alterazioen mantentzat jotzen delarik (Rodríguez eta Senín, 2013).



4. irudia. Haur gainpisu eta obesitatearekin lotutako erikortasun psikosozial nagusiak

Halaber, gorputz-asegabetasuna eta gorputz-irudiaren inguruan gauzatzen den presio soziala elikadura jokabidearen nahasteak garatzeko arrisku faktore garrantzitsuak dira (Stice, 2002). Horrela, beren nutrizio egoeraren eraginez estigmatizazioa jasaten duten adingabeek ondorengo etapetan pisuaren kontroleko estrategia osasungaitzak neurri handiagoan erabiltzeko joera azaltzen dute, besteak beste, dietak, gehiegizko ariketa fisikoa, pilula argalgarrien eta laxanteen kontsumoa, oka edo tripakadak eragitea, eta abar (Libbey et al., 2008). Bai tripakadak bai kontrolaren galera gehiagotan gertatzen

dira obesitatea duten adingabeengan pisu normaleko adingabeengan baino, eta gainera, helduaroan obesitatea izatearen probabilitatea areagotzen dute (Tanofsky-Kraff et al., 2006). Hortaz, haurtzaroko gehiegizko pisua geroagoko etapetan elikadura jokabidearen nahasteak agertzeko arrisku faktorea da (Sim et al., 2013).

Gizentasunak eragindako erreakzio sozialak erlazio hori baldintza lezake, adingabe hauek beren berdinen partez estigmatizazioa pairatzeko eta interakzio sozial negatiboak izateko aukera handiagoa baitute (adibidez, isekak, jazarpena) (van Geel et al., 2014), hauek isolamendua bezalako jokabide barneratzaileak areagotu ditzaketelarik (Morales et al., 2019).

Ildo honi dagokionez, gainpisua eta obesitatea duten adingabeek antsietate- eta depresio-sintomatologia adierazteko arrisku handiagoa dute (Blanco et al., 2019; Quek et al., 2017), eta sintomatologia hau jokabide obesogeniko eta barneratzaileen azpian dauden erregulazio emozional gabeziek azal dezakete (Puder eta Munsch, 2010). Obesitatearen eta depresioaren artean kausa-efektu harremana argitzeko Gibson-Smith et al.-en (2020) bezalako luzerako ikerketak burutzea beharrezkoa da. Autore hauek aurkitu zuten gizentasunaren adierazle bakarra urtebete pasa ondoren, depresioa izan zela; alabaina, obesitateak, urtebete pasa eta gero, ez zuen depresioa iragarri. Ildo berean, nerabeekin egindako metaanlisi batek antzeko emaitzak ezagutzera eman zituen, jokabide barneratzaileak geroko obesitatearen iragarle izan daitezkeela iradokiz (Luppino et al., 2010).

Gehiegizko pisua duten adingabekoek jokabide kanporatzaileetan ere zailtasunak adieraz ditzakete, hala nola, oldarkortasuna edo arreta gabezia eta hiperaktibitatearen nahastea (Pauli-Pott et al., 2017). Esaterako, Thamocharan et al.-en (2013)

metaanalisian gainpisua eta obesitatea zuten adingabeen oldarkortasuna pisu normaleko adingabeena baino altuagoa izan zen, diferentzien tamaina moderatua azalduz ($g= 0,406$).

Gainera, hainbat ikerketek gainpisua eta obesitatea duten haurrek pisu normaleko haurrek baino autoestimu baxuagoa dutela nabarmenki egiaztatzen dute (Blanco et al., 2019; Delgado-Floody et al., 2019).

Obesitatea ere funtzionamendu kognitibo baxuari esleitu zaio, gehien bat funtzio exekutiboetarako (Bozkurt et al., 2017). Era berean, asoziazio honek azal dezake obesitatea errendimendu akademiko baxuagoarekin erlazionatuta egotea (Gable et al., 2012). Hala eta guztiz ere, gainpisuaren, obesitatearen eta errendimendu akademikoaren arteko erlazioa oraindik eztabaidagarria da (Caird et al., 2014).

Eneuresiak (Weintraub et al., 2013) eta bizi kalitatearen murrizketak (Morrison et al., 2015) ere haurren gainpisu eta obesitateari lotu zaizkio.

Datozen kapituluetan modu zehatzagoan helduko zaie gorputz-irudiarekin lotutako gaiei (gorputz-distortsioa eta -asegabetasuna), jokabide barnertzaileei eta kanporatzaileei (antsietatea, depresioa, oldarkortasuna), baita autoestimu baxuari eta elikadura-asaldurei.

2. KAPITULUA: GORPUTZ-IRUDIAREN ALTERAZIOAK GAINPISUA ETA OBESITATEA DUTEN AURRENERABEENGAN

Kapitulu honetan gorputz-irudiaren kontzeptua azalduko da, baita haurtzaroan eta nerabezaroan izan duen sorrera eta garapena ere. Gorputz-irudiaren kontzeptuaren eta bere bilakaera historikoaren berrikuspen bat aurkeztu eta definizio kontzeptuala eskainiko da. Jarraian, gorputz-irudiaren osagaiak neurtzeko tresnak aipatuko dira. Ondoren, gorputz-irudiaren asalduak agertuko dira: gorputz-distortsioa eta gorputz-asegabetasuna. Amaitzeko, gorputz-irudiaren alterazioekin lotutako hainbat faktore aipatuko dira.

2.1. Gorputz-irudiaren kontzeptua

2.1.1. Gorputz-irudiaren kontzeptuaren bilakaera

Gorputz-irudiaren kontzeptuak neurologiari lotutako erreferentzia medikoak izan zituen nagusiki hasieran. Head-ek (1920) proposatu zuen pertsona bakoitzak gorputzaren mugimenduak alderatzeko bere buruaren eredu edo irudi bat eraikitzen duela, eta horri "gorputz-eskema" deitu zion.

Ondoren, aldagai psikologikoen eraginak kontzeptua zabaltzen zuten, Schilder (1950) gorputz-irudiaren dimentsio anitzeko lehen kontzeptualizazioetako baten sortzailea zelarik. Schilder-ek gorputz-irudiaren auto-kontzientzia psikologikoan arreta jarri zuen. Egile horren arabera, prozesu kontziente eta inkontzienteek pertsonak bere gorputzari buruz duen irudiaren eraikuntzan esku hartzen dute, eta eraikuntza horretan emozioak, jarrerak, desirak eta gizarte-harremanak bezalako faktoreek parte hartzen dute. Bere liburuan, *Das Körperschemak* honela definitu zuen gorputz-irudia: "*gure gorputzari*

buruz sortzen dugun irudikapen mentala; hau da, gure gorputzaz agertzen zaigun forma" (Schilder, 1923, 1983, 15. or.).

80ko hamarkadara arte, gorputz-irudiari buruzko ikerketa psikologiko gehienak emakumei buruzkoak ziren; izan ere, ikerketak zuzenean elikadura-nahasmenduekin lotuta zeuden, eta, ondorioz, gorputz-irudia emakumeengan soilik garrantzitsua zela ondorioztatu zen (Wertheim et al., 2009). 1980tik aurrera, adin guztiak eta sexu maskulinoa ere gehitu ziren, gorputz-irudiaren eraikuntza multidimentsionala zabaltzeaz gain, pisuaren eta figuraren kezkatik haratago joanez (Grogan, 2017).

Azken hamarkadetan, gorputz-irudiarekiko interesa nabarmenki handitu da. Alde batetik, dieten eta emakumeentzako fisiko argalean eta gizonentzako gorputz-enbor gihartsuan oinarritzen diren edertasun-ereduen arriskuez hitz egiten da, horrek argaltasuna idealizatzea dakarrelarik (Grogan, 2017). Horrek gorputzarekiko atsekabea eta kezka orokorra ekarri du, zeina "arau-mailako ondoez edo atsekabe" bezala ezagutzen den, batez ere emakumeen gorputz-asegabetasun bereizgarriari erreferentzia eginez (Rodin et al., 1984). Bestetik, gizarteak eta komunikabideek atsekabe horri eusten laguntzen dute, fisiko argala zoriontasunaren eta arrakastaren sinonimo gisa erakutsiz, argaltasuna perfekzioarekin nahastera iritsiz (Grogan, 2017).

Honek gorputz-irudi positiboa sustatzeko programak bultzatu ditu, gorputzaren onarpena edo norberaren gorputzaren estimazioa bezalako terminoak barne hartuz (Paraskeva eta Diedrichs, 2020; Tylka, 2011). Duela gutxi, obesitateari lotutako estigmari aurre egiteko nazioarteko ekimen bat abian jarri da, zeinak herri-aurreiritzi eta estigmatizatzaileen eta gaur egun gorputzaren pisua erregulatzeko

mekanismoei buruz dauden ezagutza zientifikoaren artean dauden desberdintasunak aztertzea planteatzen duen (Rubino et al., 2020).

2.1.2. Gorputz-irudiaren definizioa

Gorputz-irudia oraindik modu eztabaida ezin definitu ez den dimentsio anitzeko konstruktua teorikotzat hartzen da (Skrzypek et al., 2001). Hainbat egileren ekarpenak aztertuz, Slade-k (1988) honela definitu zuen: *"gure gorputzaren tamaina, figura eta formari buruz dugun irudikapen mentala, nola ezaugarri horiei, hala hura osatutako zatiei erlazionatutako sentimenduak"*.

Pruzinsky-k eta Cash-ek (1990) elkarrekin lotutako hainbat gorputz-irudi izatea proposatu zuten: pertzepziozkoa (gorputzaren eta bere atalen tamaina eta forma), kognitiboa (gorputzari buruzko pentsamenduak, auto-berbalizazioak eta sinesmenak) eta emozionala (plazer/displazer eta/edo asetze/asegabetasun sentimendua gorputz-irudi eta -esperientziekin). Autore horiek gorputz-irudia honela definitu zuten: *"aurpegi anitzeko konstruktua bat, gorputz-tamainarekiko, gorputz-posizioarekiko, gorputz-mugekiko, gorputz-gaitasunarekiko eta egoera fisikoarekin, osasunarekin eta gaixotasunarekin lotutako alderdiekiko eta norberaren generoarekiko pertzepzioa eta jarrerak biltzen dituena"*.

Thompson-en (1990) arabera, gorputz-irudiaren eraikuntza osatzen duten hiru osagaiak pertzepziozkoa, subjektiboa eta konduktuala dira (ikus 5. irudia).

Osagai kontzeptuala

Gorputz osoaren edo atal baten gorputz-tamaina hautemateko edo estimatzeko zehaztasuna.

Osagai hori aldatzeak distortsioa eragiten du gain-estimazioagatik (benetakoa baino gorputz-tamaina handiagoa hautematea) edo gutxiesteagatik (erreal baino gorputz-tamaina txikiagoa hautematea).

Osagai subjektiboa (kognitibo-afektiboa)

Gorputzak pizten dituen sentimenduak, jarrerak, ezagutzak eta balorazioak adierazten ditu (gorputzaren tamaina, pisua, gorputz-atalak...), eta irudikapen mental horrekiko gogobetetze-konnotazioa ematen du.


Faktore hori aldatzeak *gorputz-asegabetasuna* eragiten du (hautemandako gorputz-tamainaren eta nahi denaren arteko desadostasuna).

Jokaerazko osagaia

Gorputzak hautematen dituen sentimenduen eta pertzepzioen aurreko jokabide-erantzuna da, hala nola erakusteko, murrizteko, saihesteko, konparatzeko eta/edo egiaztatzeoko jokabideak.

5. irudia. Gorputz-irudiaren osagaiak (Thompson, 1990)

Geroago, Slade-k (1994) honela definitu zuen gorputz-irudia: *"gorputz-irudiaren, formaren eta tamainaren irudikapen mental zehaztugabea, denboran zehar aldi ezberdinetan esku hartzen duten faktore historiko, kultural eta sozial, indibidual eta biologikoen eragina duena"*. Egile horrek gorputz-irudiari buruzko azalpen-eredu bat egin zuen (ikus 6. irudia).



6. irudia. Gorputz-irudiaren eredua (Slade, 1994)

Era berean, Raich-ek (2000) honako definizio hau eman zuen: *"konstruktua konplexua da, gorputz osoaz eta haren atal bakoitzaz dugun pertzepzioa nahiz haren mugimendu eta mugak barne hartzen dituen; egiten eta sentitzen ditugun jarrera, pentsamendu, sentimendu eta balorazioen esperientzia subjektiboa; eta sentitzen ditugun kogizioen eta sentimenduen ondoriozko jokamoldea"*.

Baile-k (2003) ekarpen horiek guztiak bildu zituen eta definizio integratzaile bat proposatu zuen: *"gorputz-irudia konstruktua psikologiko konplexu bat da, gorputzaren/itxuraren auto-pertzepzioak irudikapen mentala sortzen duela adierazten duena, gorputzaren eskema pertzeptibo batez osatua, bai eta lotutako emozioez, pentsamenduez eta jokabideez ere"*.

Horrela, gorputz-irudia bi dimentsiotan sailka daiteke: pertzepziozkoa eta jarrerazkoa. Lehenengoak gorputzaren tamaina, forma eta pisua zenbatzeko erabiltzen den zehaztasuna definitzen du; bigarrenak, berriz, gorputzarekin lotutako pentsamenduak, sentimenduak eta portaerak eskatzen ditu (Cash eta Smolak, 2011).

Laburbilduz, gorputz-irudia aurpegi anitzeko konstruktua da, etengabe eguneratzen ari dena, eta gorputzaren eta haren atalen pertzepzio globala, sentimenduen, jarreraren, ezagutzen eta balorazioen esperientzia bakarra eta propioa eta, azkenik, esperimendatzen dugunaren arabera jokatzeko modua biltzen ditu (Raich, 2000; Rodríguez eta Senín, 2013).

2.2. Gorputz-irudiaren eraketa eta garapena

Gorputz-irudia bizitzako lehen urteetan eratzen eta garatzen da. Garapenaren teorikoak erreferentziatzen hartuta (Piaget, 1985; Wallon, 1963), bi etapa zabal ezar litezke:

2. KAPITULUA

1. "Ni"aren indibiduaioa eta gorputzaren ezagutzaz jabetzea (jaiotzatik 6 urtera arte).
2. Gorputz-irudiaren ezagutza barneratzea (7 urtetik nerabezarora arte).

Lehen etapa batean, gorputz-irudia umetoki barruan garatzen hasten da, umekiak berez egiten dituen mugimenduen bidez (Fernández, 2013). Psikologia ebolutiboaren aldetik gorputz-eskemaren eraketa gorputza sentitua edo bizitua den moduan ulertzen da, jarduera fisikoaren objektu eta subjektu gisa (Spitz, 1969; Wallon, 1963). Horrela, garapen-prozesuan zehar, gorputz-irudia eratzen laguntzen duten hainbat faktore txertatzen dira:

- Zentzumen-motrizitatea, keinu-, pertzepzio- eta ezagutza-adierazpenekin.
- "Bestearen" kanpoko errealitatea "niaren" desberdin gisa atzemateak dakarren sozialazioa.
- Gorputzari buruzko sentimenduekiko bizitza afektiboa.

Haurrek bat-batekotasunean eskuratzen dute beren gorputzaren esperientzia, informazio kinestesiko eta somato-sentsorialetik abiatuta (norberaren gorputzarekin izandako esperientziak) eta ispilu-neuronen sistemaren bidez (inguruko pertsonetikiko elkarrekintza) (Fernández, 2013). Dirudienez, osotasunari lotutako gorputzaren nozioa 18-20 hilabete inguruan eraten hasten da, eta une horretan adingabeak ispiluan duten irudia beren gorputzaren "erreflexua" da, eta euren gorputza ez dela ulertzen hasten dira (Hosseini eta Padhy, 2020). 30. hilabetearen buruan, adingabeek beren gorputzaren forma, egitura eta tamaina oinarrizko maila batean irudikatzeko gaitasuna dute (Brownell et al., 2010). Adin horretatik aurrera, kontzientzia pertsonala eta gorputzaren ezagutza bereganatzeko beste aldi bat hasten da: "Ni" a

agertzen da "zu"tik ezberdintzeko (Berger, 2015). Nork bere buruaren ezagutza, "autokontzeptua" edo "ni"aren ezagutza eskolaurreko aldiaren garatzen joaten da. 6-7 urtera arte autokontzeptu zehatzak eta eskasak dituzten arren, horiek ezin dira berez "ni"aren kontzepzio hartu (Berger, 2015).

Bigarren etapa batean, 6-7 urteetatik aurrera, adingabeek kontserbazioaren nozioa bereganatzen dute, eta horrek objektu edo pertsona baten itxuraren azaleko aldaketek ez dutela haien esentzia aldatzen esan nahi du. Horrela sortzen dira "barneko ni"a, bakarrik egoteko beharra, sekretuak eta bat-batekotasun eza (Berger, 2015).

Pixkanaka beste pertsonaren ikuspegian jartzeko gai izaten hasten dira, sexuen kontzientzia argi geratzen da eta berezko bereizketa gertatzen da (Berger, 2015). Aldi berean, berdinen talde bateko kide bihurtzen dira. Aldi horretan, neskak eta mutilak elkarren artean alderatzen dira. Garapen fisikoak, lagun arteko harremanei ere eragiten die, hein batean, itxura eta gaitasun fisikoan oinarritzen baitira (Smolak, 2011). 9-10 urterekin autoulermena areagotzen da, horrek beren burua aldi berean hainbat gaitasunetan ikusteko aukera ematen dielarik eta 7 urterekin agertutako barne-dimentsioa baieztatzen da.

11-12 urterekin, garapenaren beste aldi kritiko bat gertatzen da: pubertaroa. Aldi horretan, aldaketa fisikoekin batera, egitura mentalean aldaketak gertatzen dira, pentsamendu formala eskuratuz, autoaurkikuntza eta autodefinizioa bultzatuz (Guadarrama-Guadarrama et al., 2018). Era berean, etapa honetan, aurrenerabeek beren irudia besteekiko egokitzen dute, eta, beren gizarte-ingurunetik jasotako mezuekin batera, nerabezaroan zehar lortzen saiatuko den "irudi ideal" bat eraikitzen dute (Berger, 2015).

Azken batean, pubertaroan gertatzen diren gorputz-aldaketek gorputz-irudia berregituratzeko prozesua dakarte, heldutasun intelektuala lortzearekin batera. Aldaketarekiko erresistentziak edo bestelako morfologia bat onartzeko zailtasunek desegokitasun-sentimendua ekar dezakete zenbait neraberengan benetako gorputzaren, hautemandako gorputzaren eta gorputz idealaren artean.

2.2.1. Gorputz-irudiaren eraketa eta garapenean eragiten duten faktoreak

Egiaztatu ahal izan denez, gorputz-irudiaren garapena prozesu dinamikoa da, eta hainbat barne- eta kanpo-faktorek eragiten dute (Guadarrama-Guadarrama et al., 2018). Hau da, inguruko pertsonengan eragiten duen inpresioak eta norberaren irudikapenak eragin handia du gorputz-irudian. Izan ere, haurtzaro eta nerabezaro osoan zehar, elkarri lotutako hainbat faktorek eragiten dute gorputz-irudiaren eraketan: faktore pertsonalak (adib.: GMIa, trebetasun kognitiboak, trebetasun motoreak, nortasun-ezaugarriak), familia, berdinen taldea, gizarte-hedabideak (King, 2018). Horrek guztiak gorputz-irudiaren konfigurazio positibora edo negatibora eramán dezake.

Alde batetik, gorputz-irudian eragiten duen faktore indibidualetakoa bat GMIa da, gorputz-irudiarekin duen loturagatik garrantzi berezia hartzen baitu. Azterlan gehienetan, hurrengo atalean ikusiko dugun bezala, GMI altua duten haur eta nerabeek gorputz-distortsio eta -asegabetasun handiagoak dituzte (Hosseini eta Padhy, 2020).

Bestalde, ikerketa gehienek faktore soziokulturalek gorputz-irudiaren eraikuntzan eta garapenean paper erabakigarria duten ideia babesten dute (Smolak, 2011).

Familia da haurrek gizartearekin duten lehen kontaktua, eta informazioa eta balioak transmititzeko bide nagusietako bat izanik (Kościcka et al., 2016). Haurrek gorputz-irudiari buruzko lehen ezagutzak, sinesmenak eta portaerak, zeharka, modelatuz eta/edo zuzenean gurasoen iruzkin eta ahozko jarraibide espezifikoaren bidez eraikitzen dituzte (Vázquez-Arévalo et al., 2018).

Zenbait azterlanek azpimarratu dute amek alabengan duten eragina, eta nabarmendu dute lotura positiboa dagoela amaren auto-objektibazioaren eta alaben itxurarekiko eta janzkerarekiko kezkaaren artean (Slater eta Tiggemann, 2016b; Tiggemann eta Slater, 2014). Damiano et al.-ek (2015) gurasoen eraginak ere barne hartu zituzten, eta haur txikien jarrerak aitaren jarrerekin eta portaerekin amarenekin baino lotuago daudela ikusi zuten.

Sexuari dagokionez, pisuarekin lotutako amatasun-mezu eta -jokabideetan ere desberdintasunak aurkitu dira; alaben kasuan, pisu galerari buruzko mezu gehiago jasotzen dituzte, eta semeek muskulu-irabaziari buruzkoak (Smolak, 2011).

Gorputz-irudiaren eraikuntzan inplikaturako beste faktoreetako bat berdinen taldea da. Eskolan, haurrak ikaskideekin harremanetan jartzen dira, familia-inguruetik haratago loturak sortuz. Izan ere, gurasoen papera murriztu egiten da adinarekin, berdinenak garrantzia hartuz (Hosseini eta Padhy, 2020). 4 eta 5 urteko haurrek dagoeneko gorputz-tamainari buruzko jarrera estereotipatuak aurkezten dituzte. Horrela, 5 urteko neskek itxurari buruz beste haurrekin dituzten elkarrizketek elikadura-moderazio handiagoan eragiten dute (Damiano et al., 2015).

Tatangelo-k eta Ricciardelli-k (2015) erakutsi zuten 8 eta 10 urte bitarteko neskek itxuraren arabera ebaluatuak izatea espero zutela,

eta askotan autokritika egiten zutela berdinekin konparatzean; mutilen kasuan, berriz, erkaketak gehienbat kirol-trebetasunetan zentratu ziren. Era berean, gehiegizko pisuaren ondoriozko kritikek, isekak, iruzkinak eta arbuioek norberaren gorputzarekiko sentimendu eta pentsamendu negatiboak sor ditzakete (Hosseini eta Padhy, 2020).

Ricciardelli et al.-en (2009) arabera, litekeena da aurrenerabezaroan konparazio soziala garrantzitsua izatea, berdinen taldea izanik gorputzaren pisuaren garrantzia edo konparazioen maiztasuna handitzen duena, eta, aldi berean, gorputz-asegabetasuna areagotzen duena (Wertheim et al., 2009). Hori da, ziurrenik, gehiegizko pisua duten eta beren buruarekin gaizki sentitzen diren aurrenerabeen kontzientzia hartzeko arrazoietakoa bat.

Gizarteak, oro har, eta gizarte-komunikabideek, bereziki, edertasun-estandar batzuk ezartzen dituzte, beti eskuragarriak ez direnak, eta itxura fisikoarekiko kezka handiagoa sortzen lagundu dutenak (Francisco et al., 2015; Rodríguez eta Senín, 2013), ondorioz, edertasunaren ideala barneratu egin da, eta, askotan, aurrez ezarritako gizarte-estandarrek ez betetzeagatik, atsekabetasun- eta desadostasun-sentimenduak sortzen dira (Vázquez-Arévalo et al., 2011).

Estandar horiek lehen haurtzarotik presente daude (Vaquero-Cristóbal et al., 2013). Horren adibide dira haurrek ikusten dituzten marrazkiak, 50eko hamarkadatik aldatu izan direnak. Izan ere, Klein-ek eta Shiffman-ek (2005) adierazi zuten pertsonaia argalen kopurua handitu den heinean, gehiegizko pisua duten pertsonaien kopurua gutxituz joan dela. Jostailu batzuek, hala nola *Barbie* edo *Action Man*, pertsona heldu batek izan beharko lukeen irudia ere sustatzen dute (Smolak, 2011).

Komunikabide sozialen eragina jada nabarmena da 5-6 urteetan, non haurrak edertasunaren idealak barneratzen hasten diren (Dohnt eta Tiggemann, 2005; Lowes eta Tiggemann, 2003). Slater-ek eta Tiggemann-ek (2016a) azken urteotan egindako ikerketa batean, besteak beste, gorputz-irudiari dagokionez, komunikabide sexualizatuen esposizioak izan duen eragina aztertu zuten, eta 5 eta 8 urte bitarteko nesken % 54k irudi argalagoa nahiago zuela frogatu zuten.

Hainbat azterlanek egiaztatu dutenez, nerabezaroa baino lehen ere, ideal estetiko nagusira iristeko dagoen presio sozialak sentimendu negatiboak eragiten ditu gorputzean, eta aldatzeko gogoia sortzen du (Tiggemann, 2011; Wertheim eta Paxton, 2011). Sexuari dagokionez, aurrenerabezaroen eragin mediatikoen mutilei neskei baino gutxiago eragin diezaieketela iradoki da. Murnen et al.-en (2003) ikerketan, aurrenerabezaroko mutilak gorputz idealari buruzko mezu soziokulturalen jakitun ziren, baina neskak baino gutxiago kaltetuak ziren. Halaber, ikerketen arabera, irudi hauen barneratzeak gorputz-irudiaren alterazioa eta elikadura-portaeraren arazoak eragin ditzake (Kaewpradub et al., 2017).

Garrantzitsua da nabarmentzea gorputz-irudiari buruzko ikerketaren zati handia nerabezaroen ardaztu dela; izan ere, gorputz-asegabetasuna, gorputz-irudiarekiko kezka eta elikadura-asaldurak bizitzako etapa horri esleitzen zaizkio gehienbat. Hala ere, Smolak-ek (2011) dioen bezala, arazo hauen erroa haurtzarora jo daiteke eta pubertaroaren sarrera momentu bereziki esanguratsua izan daiteke.

2.3. Gorputz-irudiaren ebaluazioa eta neurtzeko tresnak

Gorputz-irudiaren ebaluazioak bere baitan elkarren mendeko bi modalitate hartzen ditu: osagai pertzeptiboa eta osagai subjektiboa.

2.3.1. Osagai pertzeptiboen ebaluazioa

Osagai pertzeptiboaren ebaluazioa gorputz-tamaina hautemateko zehaztasuna baloratzean datza. Hautemate-estimazioa ahalegintzen da pertsonak bere gorputza neurtzen duen ustearen eta haren neurri objektiboaren arteko aldeak aztertzen, pertzeptzio-distortsioa deritzona. Hau da, pertzeptzio-zehaztasunik ezaren neurria benetako irudiaren eta pertsonak hautatu duenaren arteko desadostasun-mailaren ondorio da.

Hautemate-estimazioa ebaluatzeko, pertsonari hainbat zabalera gradu dituzten irudien artean bere irudi errealera ongien egokitzen dena aukeratzeko eskatzen zaio. Gorputz-irudiaren pertzeptzio-asaldurak ebaluatzen dituzten tresnak honako hauek dira:

- Gorputz-atalen estimazioa: gorputz-atal jakin batzuen estimazioaren zehaztasuna ebaluatzeko metodo analogikoak eta irudia trazatzeko prozedurak erabilienak izan ohi dira.
- Gorputz-estimazio globala: gorputz-tamaina osoa ebaluatzeko metodoetan nagusiena irudiak distortsionatzeko teknikak (ispilua, argazkia, bideoa edo ordenagailua) eta siluetak izan dira.

2.3.2. Afektibo-jarrerazko osagai subjektiboen ebaluazioa

Kasu honetan ebaluazioa pertsona batek bere gorputz-tamainari eta -irudiari buruz dituen sentimenduak baloratzean datza.

Gorputz-asebetetzea/asegabetasuna osagai subjektiboen artean ebaluatuena da.

Hautemandako irudiaren eta irudi idealaren arteko desadostasuna ebaluatzeko hainbat teknika dauden arren, silueten testak izan dira tresnarik erabilienetakoak (Hosseini eta Padhy, 2020). Eskala horietan hainbat siluetak zabaleran aldatzen diren bitartean, altueran ez dago aldaketarik. Subjektuek hautemandako irudiari eta irudi idealari dagozkien figurak aukeratzen dituzte eta haien arteko desadostasuna asegabetasun-mailari dagokio.

Silueta-testez gain, gorputz-irudiaren alderdi kognitiboak, jarrerazkoak eta afektiboak ebaluatzen dituzten galdetegi autoinformatu ugari daude (Yanover eta Thompson, 2009). Bosgarren taulan haur eta nerabeen gorputz-irudia ebaluatzeko eskura dauden tresna batzuk jaso dira.

5. taula. Aurrenerabezaroan gorputz-irudia neurtzeko tresnak (Raich, 2010; Yanover eta Thompson, 2009-tik moldatua)

Tresnaren izena eta mota	Egileak	Deskribapena	Normalizazio-lagina
<i>Silueten testa</i>			
“Figure Rating Scale”	Stunkard et al. (1983)	Gero eta gorputz-tamaina handiagoko emakumeen eta gizonen 9 marrazkiko bi serie.	9-16 urte
Izenik gabekoa	Collins (1991)	Argalengandik gizenerengana doazen 7 neskatoren eta 7 mutikoren marrazkiak.	6-9 urte
“Kid’s Eating Disorder Survey”	Childress et al. (1993)	Argalengandik gizenerengana doazen 8 neskatoren eta 8 mutikoren irudiak.	10-13 urte
“Body Rating Scale, BRS 11”	Sherman et al. (1995)	Aurrenerabezaroko 9 neskatoren irudiak.	11 urteko neskek
“Contour Drawing Rating Scale, CDRS”	Thompson eta Gray (1995)	9 emakumezkoen eta 9 gizonezkoen irudiak.	11-14 urte
“Body Image Assessment Procedure for Children, BIA-C”	Veron-Guidry eta Williamson (1996)	Argalengandik gizenerengana doazen 9 silueta femenino eta maskulino.	8-10 urte
“Body Image Scale”	Sands et al. (1997)	Aurrepubertaroko irudiak irudikatzen dituzten emakumeen eta gizonen 7 alboko profileko bi serie.	10-12 urte
“Children’s Body Image Scale, CBIS”	Truby eta Paxton (2002)	Argalengandik gizenerengana doazen 7 neskatoren eta 7 mutikoren argazkiak.	7-12 urte

5. taula. Aurrenerabezaroan gorputz-irudia neurtzeko tresnak (*jarraipena*)

Tresnaren izena eta mota	Egilea	Deskribapena	Normalizazio-lagina
<i>Neurri subjektiboak eta jarrerazko neurriak</i>			
“Body Esteem Scale”	Mendelson eta White (1982)	Bere gorputzari eta gorputz-itxurari buruzko jarrerak eta sentimenduak ebaluatzen ditu.	7,5-12 urte
Haurrentzako Autopertzepzioen profilaren Itxura Fisikoaren azpieskala (SPPC)	Harter (1985)	Bere gorputzarekiko gogobetetzea, itxura eta eder sentitzea ebaluatzen ditu.	8-14 urte
“Body Concept Scale”	Merbaum et al. (1986)	27 gorputz-atal ebaluatzen dira, 5 koloreko kode bat erabiliz.	8-14 urte
“Body-Cathexis Scale”	Mintz eta Betz (1986)	Gorputzeko 15 ezaugarri edo atalen asebetetzea ebaluatzen da.	8,1-15,5 urte
“Body Shape Questionnaire, BSQ”	Cooper et al. (1987); Raich et al.-en (1996) egokitzapen espainiarra	Gorputz-asegabetasuna eta pisuarekiko kezka ebaluatzen ditu.	18 urtetik beherakoak (lagin klinikoa)
Elikadura jokabide nahasteen inbentarioko gorputz-asegabetasunaren eskala (EDI-3)	Garner (2004); Elosua et al.-en (2010) egokitzapen espainiarra	Gorputz-tamainarekiko gogobetetzea ebaluatzen du.	8-18 urte

Ebaluazio-metodoak ez dira muga gabekoak, haurren gorputz-formak haurtzaroan eta nerabezaroaren hasieran aldaketa azkarrak jasaten baitituzte. Era berean, eskalak osatzen dituzten figuren kopuru mugatuak informazioa galtzera eraman dezake, gorputz-asegabetasuna aukera kopuru txiki batera mugatutako eskala batekin ebaluatzen saiatzean. Gorputz-asegabetasuna ebaluatzen duten auto-txostenei dagokienez, kontuan hartu behar da eskalak aldatu egiten direla batez ere itxurarekiko asebetetzea, kognizioa, kezka, jokabideak eta/edo antsietatea neurtzen diren mailan. Eskala batzuek alderdi horietako bat baino ez dute baloratzen, beste batzuek, berriz, horien konbinazio bat. Gainera, autotxosten tekniken berezko alborapenak aplikatu daitezke.

Azkenik, badira beste teknika batzuk, hala nola; auto-behaketa eta auto-erregistroa, non pertsonak berak bere gorputzarekiko sentimenduak eta jokabideak interpretatzen eta erregistratzen dituen, pentsamendu, sentimendu eta jokabide desegokiak aldatze aldera; edo errealitate birtuala bezalako teknikak, pertsona bere figura manipulatzeko duen espazio batean sartzea ahalbidetzen dutenak (Irvine et al., 2020).

2.4. Gorputz-irudiaren alterazioak

Arestian aipatutako ingurumen- eta norbanako-faktoreek eragina dute haurtzaro eta nerabezaroko gorputz-irudiaren sorreran eta garapenean, eta gorputz-irudi positiboa edo negatiboa osatzen bukatzen dute. Psikologia positiboaren ikuspegiaren arabera, gorputz-irudi positiboa ez da gorputz-irudi negatibo baxuaren bera (Tylka, 2011). Horrela, Grogan-ek (2017) honela definitzen du gorputz-irudi positiboa, norberaren gorputzasunari buruzko sententzia positiboak eta gizarte-egoerekiko auto-konfiantza. Cash-ek (2002), era berean,

norberaren itxuraren alderdiren bat negatiboki ebaluatzen denean, gorputz-irudia negatiboa dela uste du.

Gorputz-irudi negatiboaren kasuan, beste faktore batzuekin batera, esate baterako, nutrizio-egoera, argaltasunaren barneratzea edo konparazio soziala, gerora gorputz-irudiaren alterazioak garatzeko arrisku-faktorea izan daiteke, eta horrek, era berean, elikadurarekin lotutako arazo emozionalak sortzen lagun dezake (Gardner, 2001).

Gorputz-irudi negatiboaren garapenak interes handia pizten du aurrenerabegaroko garaian izan dezakeen eraginagatik; etapa hori, nerabezaroarekin eta gaztaro goiztiarrekin batera, gorputz-irudiaren alterazioak garatzeko etapa kritikoenetarikoa bat delako (Berger, 2015). Izan ere, 8 urtetik beherako adinetan ere, gorputz-irudiarekiko kezka aurkitu da (Smolak, 2011). Hori da Dohnt-ek eta Tiggemann-ek (2006) egindako azterlanaren kasua. Ikerketa horretan, 5-8 urte bitarteko neskek irudi argalagoak desiratzen zituzten eta dieta egitea argaltzeko metodo eraginkor gisa ulertzen zuten, edo Ricciardelli-ren eta Williams-en (2016) azterlana, non 8 urteko mutilek beren argaltasunagatik eta muskulaturagatik kezka agertu zuten eta gorputza sasoiari edukitzeari garrantzia eman zioten.

Cash-ek eta Smolak-ek (2011) proposatutako gorputz-irudiaren elementuen bereizketari dagokionez, gorputz-irudiaren alterazioa pertzepzioaren asaldura gisa (hau da, gorputz-distortsioa) eta/edo gorputz-asegabetasuna asaldura gisa ager daiteke (Hosseini eta Padhy, 2020).

Azaldutako ikerketa-datuen arabera, sexua, adina eta GMIA gorputz-irudiaren alterazioetan eragiten duten faktoreetako batzuk dira (Gardner et al., 1999; Smolak, 2004). Hurrengo azpiatalean, aldagai horiei lotuta, batez ere 8 eta 12 urte bitarteko aurrenerabeekin gorputz-

distortsioari eta -asegabetasunari buruz egindako hainbat azterlan jasotzen dira.

2.4.1. Gorputz-distortsioa sexuaren, adinaren eta GMIaren arabera

Pertzepziozko estimazioa gorputz-tamaina hautemateko edo estimatzeko zehaztasuna aztertzen saiatzea da, bai gorputz-atal desberdinena, bai gorputz osoarena. Haien artean bat ez datozenean, hau da, hautemandakoaren eta benetakoaren arteko desadostasuna dagoenean, gorputz-distortsioaren edo gorputz-tamainaren zehaztasun ezaren aurrean gaude. Gorputz-distortsioa duen pertsonak bere gorputz-tamaina benetan denarekiko baino handiago (gainestimazioa) edo txikiago (gutxiespena) hautematen du (Hosseini eta Padhy, 2020).

Sexua

Arestian aipatu bezala, sexua gorputz-tamainaren pertzepzioan eragiten duen faktore gisa azaldu da. Ikerketa batzuek neskak mutilak baino zehatzagoak direla egiaztatu dute (Coelho et al., 2013; Leppers et al., 2017); beste batzuek, aldiz, alderantzizko patroia aurkitu dute (Holub, 2008) edo ez dute sexuaren eraginik aurkitu (Cattelino et al., 2015; Knowles et al., 2014). Adibidez, van Vliet et al.-ek (2015) diotenaren arabera, mutilek eta neskek ez dute alderik ageri adin goiztiarretan; pubertaroan beren gorputzaz bestelako ikuspegi psikologiko eta soziala garatzen duten arte. Nerabezaroan, neskek batez ere, edertasun-idealekiko sentiberatasun handiagoa erakusten dute, argaltasun-gogo handiagoa erakutsiz. Mutilek, berriz, pisu-irabazia eta muskulu-bolumenaren igoera baloratzen dituzte. Horren ondorioz,

etapa honetan neskek beren gorputz-tamaina gainestimatzen dute eta mutilek gutxiesten dute (Brener et al., 2004; Park, 2011).

Figurak aukeratzeari dagokionez, orokorrean, bi sexuen artean desberdintasun esanguratsua aurkitu zen, neskek mutilak baino figura argalagoekin identifikatu ziren maizago (Kornilaki, 2015; López et al., 2018). Aitzitik, Leppers et al.-en (2017) ikerketan, neskek irudi argalak zabalak baino gutxiagotan aukeratu zituzten.

Gorputz-distortsioari dagokionez, emaitzak ez dira erabakigarriak. Dirudienez, neskek, mutilen aldean, beren gorputz-tamaina gainestimatzen dute, eta mutilek, berriz, gutxiesten dute (Cai et al., 2017; Cho et al., 2012). Steinsbekk et al.-en (2017) arabera, 6, 8 eta 10 urteetako haur gehienek beren gorputz-tamaina egoki estimatu zuten. Hala ere, talde handi batek, batez ere mutilen artean, benetakoa baino argalagozat hartu zuen bere burua. Ildo berean, Cho et al.-ek (2012) ikusi zuten neskek beren gorputz-tamaina % 23k gainestimatu zuela mutilen % 11,5en aldean, eta mutilen % 35,8k gutxietsi egin zuela, nesken % 18,8ren aldean. Haien pisua gutxietsi zuten mutilen kasuan, ia erdiek gehiegizko pisua zuten.

Eskolatutako gazteen jarrera osasungarriari buruzko ikerketan, 40 herrialde baino gehiagok parte hartu zuten eta emaitzek adierazten dute 11 urteko nesken % 36k euren buruari "gizenegiak" direla deritzote, mutilen % 22ren aldean. Espainian, nesken % 23k eta mutilen % 21ek "gizenegi" daudela uste dute (Inchley et al., 2018).

Adina

Gorputz-irudiaren pertzepzioan eragin zuzena duen beste aldagaietako bat adina da. Kasu honetan, hainbat azterlanek azaltzen dute gorputzaren auto-pertzepzioaren zehaztasuna hobetu egiten dela

eskolaurreko adinetik nerabezaro berantiarrera arte (Cai et al., 2017; Manios et al., 2015). Adibidez, Cattelino et al.-ek (2015) ikusi zuten 8 eta 10 urte bitarteko adingabeek beren gorputz-tamaina 6 eta 7 urte bitartekoek baino hobeto hauteman zutela, azken horiek gehiago gutxietsi baitzuten beren gorputz-tamaina. Knowles et al.-ek (2014) erakutsi zuten 8 eta 10 urte bitarteko neska-mutilek beren gorputz-tamaina gainestimatzeko probabilitate handiagoa zutela 10 eta 13 urte bitarteko neska-mutilek baino. Ildo beretik, 12 eta 17 urte bitarteko nerabeek 8 eta 11 urte bitartekoek baino egokiago hautematen dute euren burua (Chung et al., 2013; Gómez-Mármol et al., 2013). Emaizta horien arrazoia izan daiteke nerabezarora arte ez dela gorputzaren formaren kontzientzia egonkorra garatzen (Steinsbeek et al., 2017).

Aitzitik, Brault et al.-ek (2015) adierazi zuten, bi adin-taldeek beren pisua eta altuera gutxietsi zituzten arren, 11-12 urte bitarteko adingabeek 8-10 urte bitarteko adingabeek baino nabarmenago gutxietsi zuten beren GMia. Ildo beretik, Steinsbeek et al.-ek (2017) ondorioztatu zuten mutikoek adinean gora egin ahala gutxiagotzeko joera argia zutela; neskatoengan aldiz, ez zen desberdintasunik aurkitu 6 eta 8 urte bitartean, baina 10 urteko neskek 8 urtekoek baino askoz gehiago gutxietsi zuten beren gorputz-tamaina.

GMia

Hainbat azterlanek iradokitzen dute haurrek, eta bereziki gehiegizko pisua dutenek, beren gorputz-tamaina sistematikoki gutxiesten dutela gorputz-tamaina handituz doazen irudien bidez identifikatzeko eskatzen zaienean (Dion et al., 2016; Kornilaki, 2015).

Gutxiespen-ehunekoek parte-hartzaileen heren bat inguruko gorabeherak dituzte. Cai et al.-ek (2017) egindako ikerketan, pisuaren

gutxiespena ohikoa izan zen pisu normala zuten haurren % 40,6n eta gehiegizko pisua zuten haurren % 30,2n. Cattelino et al.-ek (2015) bestalde, pisu normala zuten haurren % 19k pisua gutxietsi zuela erakutsi zuten, eta gainpisua zuten haurren % 42k eta obesitatea zuten haurren % 32k gutxietsi egin zutela. Beste azterlan batzuek ehuneko handiagoak ematen dituzte, esate baterako, Knowles et al.-en (2014) arabera, obesitatea zuten haurren % 67k gorputz-tamaina gutxietsi zuten; edo Leppers et al.-en (2017) arabera, gehiegizko pisua zuten adingabeen % 83k gorputz-tamaina gutxietsi zuten.

Costa et al.-en arabera (2015), obesitatea duten mutilek beren gorputz-tamaina gutxiesteko 6,5 aldiz joera handiagoa dute, eta obesitatea duten neskek 4 aldiz. Gehiegizko pisua duten adingabeei buruzko beste ikerketa batzuek erakusten dute neskek beren pisua mutilek baino gehiago gutxiesten dutela (Cai et al., 2017; Saxton et al., 2009). Kornilaki-k (2015), ordea, ez zuen alderik aurkitu neska-mutilen artean, gehiegizko pisua duten neska-mutilek beren benetako gorputz-tamaina gutxiesten dutela baieztatuz.

Gorputz-tamainaren pertzepzio okerrak ondorengo etapetan ondoez psikologikoa izateko arriskua areagotu dezake. Adibidez, pisu normal batean daudenean, euren gorputz-tamaina gainestimatzan dutenak (Ali et al., 2010), edo, aldiz, gainpisua eta obesitatea dutenean gorputz-tamaina gutxiesten dutenak (Cattelino et al., 2015; Manios et al., 2015). López et al.-ek (2018) adierazi zuten aurrenerabeen ongizate fisiko eta psikologikoan gorputz-irudiaren pertzepzio okerrak gehiegizko pisua izateak baino eragin gehiago izan dezakeela.

2.4.2. Gorputz-asegabetasuna sexuaren, adinaren eta GMIaren arabera

Gorputz-asegabetasuna gorputz-ezaugarriekiko emozio, pentsamendu, sentimendu eta jarrera negatiboek dagokie (adibidez, tamaina, forma, muskulu-tonua, pisua), eta afektu negatibo bati lotuta dago (Grogan, 2017). Gorputza aldatzeko edo iritzi negatiboak saihesteko gorputz-asegabetasun hori alda daiteke atsekabe-maila txiki arin batetik muturreko portaerei lotutako larritasun handira arte (Wertheim et al., 2009).

Gorputz-irudiaren alterazioak gorputzaren alderdi espezifikoei biltzen dira. Gehien aztertu den elementuetako bat, elikadura-nahasmenduekin duen lotura dela kausa (Stice, 2002), pisua eta gorputz-formarekiko asegabetasuna da, oro har, hautemandako gorputz-tamaina eta -formaren eta desiratzen den gorputz-tamaina eta -formaren arteko desadostasuna dakar (Wertheim eta Paxton, 2011). Azken horrek norberak eduki nahi izango lukeen ideal barneratua adierazten du, argaltasunari lotutako presio sozialaren eta gorputz berarekiko auto-ebaluazio negatiboaren ondoriozko prozesu kognitibo baten emaitza dena (Heider et al., 2015). Duela gutxi, 6 eta 14 urte bitarteko adingabeekin egindako ikerketek agerian utzi dute gehienak ez zeudela gustura beren gorputz-irudiarekin (Ling et al., 2015; Paraskeva eta Diedrichs, 2020), eta argalagoak izan nahi zutela (Knowles et al., 2014).

Maganto-k eta Cruz-ek (2008) azaltzen dute gorputz-asegabetasuna gerta daitekeela desiratua den gorputz-tamaina txikiagoa (desiratua hautemandakoa baino txikiagoa) edo handiagoa (desiratua hautemandakoa baino handiagoa) izan nahi dutelako, edo proportzio desberdinak izan nahi dituztelako. Horri gehitu behar zaio

asegabetasuna aurreko gorputz-distortsio pertzeptual batetik edo itxuraren pertzepzio objektibotik etor daitekeela.

Gorputz-distortsioarekin gertatzen den bezala, gorputz-asegabetasunarekin gehien lotu diren faktoreak sexua, adina eta GMIA dira (Paraskeva eta Diedrichs, 2020; Smolak, 2004).

Sexua

Sexuari dagokionez, badirudi neska eta mutilen gorputz-asegabetasun maila desberdina dela. Smolak-en (2011) arabera, 6 eta 12 urte bitarteko adingabeen % 40 eta % 50ek gorputz-asegabetasuna erakutsi zuen, eta lehen hezkuntzako nesken % 40 eta mutilen % 25 inguru ez daude gorputz-tamainarekin gustura eta argalago egon nahi izango lukete.

Sexuaren araberako desberdintasunei dagokienez, badirudi 6 eta 16 urte bitarteko neskek, mutilen aldean, hautemandako gorputz-tamainaren eta desiratutakoaren arteko desadostasun handiagoa dutela, desiraturiko gorputz-tamaina adierazteko figura argalagoak aukeratzeko joera baitute (Guadarrama-Guadarrama et al., 2018; Park, 2020). Collins-en (1991) ikerketa klasikoan, nesken artean, irrikaturiko gorputz-tamaina bezalako irudi argalagoen hautaketa pisu, adin, arraza eta eskola-ingurunearen maila guztietan gertatu zen. Duela gutxi egindako luzetarako ikerketa batek frogatu zuen neskek mutilek baino gorputz-asegabetasunaren hazkunde azkarragoak izaten zituztela (Park, 2020). Ramos et al.-en (2010) arabera, 11 eta 18 urte bitarteko neskek, nahiz eta mutilek baino gainpisu eta obesitate maila txikiagoa izan, ez zeuden beren gorputz-irudiarekin asetuta. Nesken irudi argalagoen hautaketa, gorputz-asegabetasunean islatzen dena, orain arte

emakumeei aplikatu zaien "arau-mailako ondoez edo atsekabe"aren ondorioa izan daiteke (Phares et al., 2004).

Mutilek, bestalde, neskek ez bezalako eredia erakuts dezakete, batzuek irudi argalagoak eta beste batzuek zabalagoak aukeratzeko baitituzte (Grogan, 2017; Paraskeva eta Diedrichs, 2020). Esaterako, Ling et al.-en (2015) ikerketaren arabera, mutilen % 48k nahiago zuen argalagoa izan, eta % 25ek nahiago zuen handiagoa izan. Ricciardelli et al.-ek (2009) egindako berrikuspenaren arabera, gorputz-tamaina argalagoa desiratzen duten mutilen ehunekoa % 27 eta % 47ren artekoa da. Era berean, gorputz-tamaina handiagoa desiratzen duten mutilen ehunekoa % 15 eta % 44ren artekoa da. Mutilengan, gorputz-asegabetasuna GMIarekin erlazionatu daiteke; hala, GMI baxua duten haurrek giharrak handitu nahiko lituzkete, eta GMI altua duten haurrek, berriz, pisua galdu nahiko lukete (Ricciardelli et al., 2009).

Hamabi eta hamazazpi urte bitarteko nerabeekin egindako espainiar ikerketa batean, gorputz-asegabetasuna handiagoa zen mutilen artean, baina ez modu esanguratsuan (Gómez-Mármol et al., 2013). Egile horiek, López et al.-ek (2018) bezala, argalagoa izateko desira antzekoa zela bi sexuetan ondorioztatu zuten.

Adina

Gorputz-asegabetasunaren bilakaerari dagokionez, honek adinarekin batera gora egiteko joera du (Knowles et al., 2014; Park, 2020), nahiz eta egile batzuek loturarik aurkitu ez duten (Dion et al., 2016). Gardner-en (2002) arabera, ebidentzia zientifikoak iradokitzen du, lehen hezkuntzan hasten direnean, gorputz-asegabetasuna 8 urte inguruan adierazten hasten dela (Wertheim et al., 2009). Ildo berean, Smolak-ek (2011) dio, oro har, 9 urtetik gorako neskek gazteenek baino desira handiagoa dutela argal egoteko.

Berri-berriki, Grogan-en (2017) arabera, 5-6 urtetik beherako neskek ere emakume helduen antzeko diskurtsoak dituzte, eta, 5 urtetik aurrera, hurrek beren gorputz-irudia hautematen dutena baino irudi ideal argalagoak aukeratzen dituzte. Hala, behin gorputz-asegabetasuna ezarrita, badirudi neskato askorengan denboran zehar mantentzen dela, eta badirudi bereziki egonkorra dela neskatoak nerabazarora iristen diren arte (Wertheim et al., 2009). Izan ere, gorputz-asegabetasunak 12 eta 15 urte bitartean garrantzi handiagoa hartzen duela dirudi (Levine eta Smolak, 2002). Etapa honetan, pubertaroan aldaketa fisiko eta kognitiboak gertatzen dira, gorputzaren ardaztea eta ebaluazioa errazten dutenak, eta horrek itxura fisikoari buruzko sinesmenak ezartzea errazten du (Raich, 2000).

GMIa

Ebidentzia zientifikoak baieztatu du gorputz-asegabetasuna GMIarekin ere lotuta dagoela. Oro har, luzetarako ikerketen aurkikuntzek iradokitzen dute gorputz-asegabetasuna garatzeko adingabeengan GMI altua arrisku-faktorea dela (Paraskeva eta Diedrichs, 2020). Dirudenez, GMI baxuago batek lotura handiagoa duela hautatutako irudi idealarekin (Pallarés eta Baile, 2012).

Gehiegizko pisua duten lehen hezkuntzako hurrek pisu normala duten beren berdinek baino gorputz-asegabetasun handiagoa (Brault et al., 2015; Dion et al., 2016) eta argalagoak izateko desira handiagoa dute (Knowles et al., 2014). Leppers et al.-ek (2017) aurrera eramandako ikerketan, 9 eta 10 urte bitarteko mutilen % 80k eta gehiegizko pisua zuen nesken % 95,5ek figura argalagoak aukeratu zituen. Gainera, obesitatea zuten adingabeek gainpisua zuten adingabeek baino asegabetasun handiagoa erakutsi zuten. Ildo horretan,

duela gutxi egindako metaanalisi batek gainpisua duten adingabeek gorputz-asegabetasuna izateko arrisku handiagoa ez duten bitartean, obesitatea duten adingabeek bai dutela aurkitu du (Moradi et al., 2020).

Gehiegizko pisua duten adingabeei dagokienez, Knowles et al.-ek (2014) ikusi zuten pisu normala zuten neskek, pisu normala zuten mutilen aldean, irudi argalagoak idealtzat hartzeko joera handiagoa zutela, baina gainerako nutrizio-kategorietan ez zen desberdintasun nabarmenik aurkitu. Hala ere, Sweeting-ek (2008) ikusi zuen gehiegizko pisua zuten neskek mutilek baino gorputz-asegabetasun handiagoa zutela. Kelly et al.-en (2011) ikerketan, gorputz-asegabetasunaren maila handiagoa zen heinean, gehiegizko pisua zuten neskek irudi ideal argalagoak aukeratzen zituzten.

2.4.3. Gorputz-irudiaren alterazioek beste aldagai psikologiko batzuekin duten erlazioa

Gaur egun, ez dakigu gorputz-distortsioa eta -asegabetasunaren arteko kausa-erlazioa zein den. Ez dakigu gorputz-irudiaren distortsioak norberaren gorputz-asegabetasuna dakarren, gorputz-asegabetasunak gorputz-irudia desitxuratzea dakarren edo haien arteko lotura txikia den edo existitzen ez den (Leppers et al., 2017). Thompson-en (2004) arabera, gorputz-asegabetasuna duen pertsona batek gorputz-distortsioa izan dezakeenetz. Gardner et al.-en (1998) arabera, konstruktuek independenteak dira eta bereizita neurtu behar dira. Hala ere, hainbat egilek bi aldagai horien arteko lotura ikertu dute. Hala, gorputz-tamaina gainestimatzeko duten adingabeek gorputz-asegabetasun handiagoa dute, eta gorputz-distorsiorik ez dutenek baino joera handiagoa dute figura argalago bat aukeratzeko (Cai et al., 2017; Dion et al., 2016). Era berean, Leppers et al.-en (2017) ikerketaren

arabera, beren gorputz-tamaina egoki hauteman zuten gehiegizko pisua zuten adin txikiko guztiek argalagoak izan nahi zuten, baina gutxietsi zutenen artean % 79,2k baino ez zuen hori nahi.

Gorputz-irudiaren bi alterazioak beste aldagai psikologiko batzuekin erlazionatzen dira. Adibidez, aurrenerabezaroan ematen diren gorputz-asegabetasuna eta gorputz-irudiarekiko presio soziala arrisku-faktore erabakigarrietakoak dira ondorengo adinetan elikadura-asaldurak (adibidez, anorexia nerbiosoa edo bulimia) eta konplikazio psikologikoak (adibidez, autoestimua baxua, depresioa eta antsietatea) garatzeko (Cruzat-Mandich et al., 2016; Paraskeva eta Diedrichs, 2020). Park-en (2020) luzetarako ikerketaren arabera, gorputz-asegabetasuna eta autoestimua modu zirkularrean garatzen dira, denboran zehar haien artean zirkulu biziotsua osatuz, eta ez dira bata bestearengandik bereizirik garatzen. Autorearen arabera, horrek elikadura-nahasteak eta depresioa bizkortu ditzake, gorputz-irudiarekiko gehiegizko atsekabearen eta autoestimua okerrera egitearen adierazle baitira. Ildo beretik, beren gorputz-tamainagatik kezkatuta dauden adingabeek joera handiagoa dute autoestimua maila baxuagoen berri emateko (Ortega et al., 2015), eta gorputz-asegabetasuna dutenek depresio-sintomatologia izateko arrisku handiagoa dute (Solomon-Krakus et al., 2017). Riahi et al.-en (2019) arabera, gehiegizko pisua zutela hauteman zuten adingabeen antsietate- eta depresio-arriskua pisu normalaren pertzepzioa zuten adingabeena baino nabarmenki handiagoa zen.

3. KAPITULUA: ALDAGAI EMOZIONALAK GAINPISUA ETA OBESITATEA DUTEN AURRENERABEENGAN

Aurreko kapituluan, gainpisuari eta obesitateari atxikitutako hainbat aldagai emozional laburki aipatu dira, zeinak azaldutako gorputz-irudiaren alterazioekin egon baitaitezke. Azken urteetan, obesitatearen korrelatu psikologikoak aztertzeraz bideratutako ikerketen kopurua nabarmenki areagotu da, nahiz eta haurtzaroko ikerketak gutxiago izan eta sendotasunik gabeko emaitzak lortu (Aguilar et al., 2018; Esposito et al., 2014; Moradi et al., 2020). Orain arteko ebidentzia zientifikoak ez du argitzen GMIak arazo psikologikorik aurren duen, edota alderantziz gertatzen den (Burke eta Storch, 2015; Rankin et al., 2016), segur aski, haurtzaroan zehar, egoera nutrizionala luzera ebaluatzeko zailtasunak direla eta (Pryor et al., 2016).

Agertzen ari den gorputz berrira egokitzea eragin emozionala duen aldagai garrantzitsua da. Hala, aurrenerabezaroan aldaketa fisiologiko zein psikologiko erabakigarri ugari gertatu ohi dira. Izan ere, adin honetako osasun psikologikoak eragin ditzake bizitzaren gainerako aroak (Delgado-Floody et al., 2020).

Jarraian, bost aldagai emozional aurkeztuko dira: antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia, autoestimua baxua, oldarkortasuna eta elikadura-asaldurak. Hauek haur nahiz gazteen populazioan prebalentzia handiena izatearren hautatu dira. Aldi berean, aldagai bakoitzean sexuaz, adinaz eta GMIaz hitz egingo da, obesitatearen eta osasun mentalaren arteko erlazionaturiko faktoreak baitira (Ali et al., 2010).

Kapitulu hau aurrera eraman dadin, hurrengo datu base hauek erabili dira; *Web of Knowledge*, *Pubmed* eta *PsycINFO*. Hitz-gakoak honako hauek izanik: “*obes**”, “*overweight*”, “*child**”, “*anxiety*”, “*depression*”, “*self-esteem*”, “*impulsivity*” eta “*eating disorders*”.

3.1. Antsietatea

DSM-5ak (American Psychiatric Association, APA, 2014) antsietatea definitzen du “*etorkizuneko mehatxu baten alde zurretiko erantzuna; gihar-tentsioari etorkizuneko arrisku baten zaintzari edota jarrera zuhur eta ekiditzaileari lot dakiokena*”. Sintoma hauek ohikoak edo iraunkorrak direnean, pertsonarengan ondorez esanguratsua sor dezakete eta bere ohiko funtzionamendu hainbat arlotan eragin dezakete, hala nola, arlo akademikoan, familikoan edota sozialekoan. Hau gertatuz gero, antsietatearen nahasteren baten irizpideak betetzera iritsi daitezke.

Haurtzaroan, antsietatearen sintomek beldurra edo kezka barne har ditzakete, baita suminkortasuna eta haserrea ere. Halaber, haurrek nekea, buruko minak edo lo egiteko zailtasunak izan ditzakete. Kasu batzuetan, haurrek ez dituzte beldur eta kezka hauek gainditzen eta hauek oztopatzen dituzte familia, norbanako, eskolako eta gizarte arloetan. Antsietate-sintomatologia honek ondorio negatiboak izan ditzake, adin txikikoen garapena oztopa dezakeelako, patologia larriagoak garatuz, hala nola, antsietate nahasteak (adibidez; banaketa antsietatea, antsietate orokorra) (CDC, 2020; Suzuki et al., 2020).

Antsietate nahasteen prebalentziari dagokionez, mundu mailan adin txikikoen % 6,5ek nahasteren bat duela estimatzen da (Polanczyk et al., 2015). Espainiako ikerketa baten lagin komunitario batek 8-17

urte bitarteko adin txikiko % 5,5ek banaketa antsietateari egozten ziolarik, % 5,1ek beldur fisikoei (Orgilés et al., 2012).

Hainbat ikerketak ondorioztatu dute antsietateari lotutako nahasteen garapenaren eta haurtzaroko gehiegizko pisuaren arteko erlazioa egon daitekeela (Burke eta Storch, 2015). Honela, Lindberg et al.-ek (2020) adin txikikoengan obesitatea antsietatearen arrisku faktore garrantzitsu bat dela iradokitzen dute. Izan ere, Sepúlveda et al.-en (2018) ikerketan, elkarrizketa erdi-egituratuta baten bidez, obesitatea zuten 8 eta 12 urte bitarteko adin txikikoen % 19,5ek antsietate orokorra azaldu zuen, % 4,05ek banaketa antsietatea, % 2,5ek fobia soziala eta % 0,8k izu-ikara nahastea.

3.1.1. Sexuen arteko desberdintasunak

Sexuaren araberako desberdintasunei dagokienez, ikerketek ondorioztatzen dute antsietate-sintomatologia nesken gan ohikoagoa dela (Orgilés et al., 2012; Pompa eta Meza, 2014, 2017). Orgilés et al.-ek (2012) informazio hau beren ikerketa batean egiaztatu zuten, bertan, bi sexuen artean desberdintasun esanguratsuak aurkitu ziren, antsietate nahasteen sintomen ehuneko altuenak nesken gan agertuz.

Ildo berean, GMI, antsietate eta sexuaren arteko loturari buruzko emaitzek baieztatzen dute maila handiko antsietate orokorra izateko arrisku faktorea emakumea izatea dela (Burke eta Storch, 2015; Calderón et al., 2009). Honela, Burke-ren eta Storch-en (2015) metaanalisiak erakutsi zuen neskek mutilek baino antsietate-sintomatologiaren maila altuagoak zituztela eta pisuak gora egin ahala, maila hauek altuagoak izaten zirela.

Beste ikerketa batzuk, aldiz, ez datoz bat orain arte esandakoarekin. Kanadan egindako ikerketa batean gainpisua eta

obesitatea zuten bi sexuko kideen artean ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu (Pryor et al., 2016), ezta Grezian egindako batean (Vassiloudis eta Costarelli, 2019), ezta Espainiako beste batean ere (Blanco et al., 2019).

3.1.2. Adinaren arabeko desberdintasunak

Hainbat ikerketetan adinaren eta antsietate nahasteen artean korrelazio esanguratsua dagoela frogatu da. Ikerketa batzuek, adina areagotzen zen heinean, antsietate-sintomatologiaren gutxiagotzea aurkitu zuten (Blanco et al., 2019; Burke eta Storch, 2015). Honi dagokionez, Burke-n eta Storch-en (2015) arabera, txikienek antsietate-sintomatologia altuagoa adierazi zuten, eta hau ebaluazio negatiboaren heldur izatearekin erlazionatu zuten. Orgilés et al.-ek (2012) antsietate-nahasteen sintomak aztertu zituzten, eta zenbat eta helduagoa izan, orduan eta banaketa antsietate eta izu-ikararen sintomak baxuagoak zirela, baina fobia sozialaren eta antsietate orokorraren agerpenak altuagoak zirela aurkitu zuten.

Hau esanda, eta nahiz eta ikerketa batzuek nerabezaroan obesitatea izateak antsietate nahasteetarako arriskua areagotzen duela determinatu (adingabeko txikienean arriskuarekin konparatuz gero), korrelazio hau nerabezaroan GMI altua duten emakumeei soilik mugatuta dagoela dirudi (Anderson et al., 2007). Beste ikerketa batzuek aldiz, adinari eta antsietate-sintomatologiari dagokionez, ez zuten desberdintasun esanguratsurik aurkitu (Sepúlveda et al., 2018; Suzuki et al., 2020; Topçu et al., 2015).

3.1.3. GMIaren araberako desberdintasunak

Ikerketa askotan obesitatea antsietatea pairatzeko arriskutzat hartzen da, eta hau diziiplina anitzetako interbentzioekin arindu daitekeen arren, garrantzitsua da arrisku hau kontutan izatea (Pompa eta Meza, 2014). Orokorrean, obesitatea duten aurrenerabeek obesitatea ez duten aurrenerabeek baino psikopatologia handiagoa iradokitzen dute (Kalarchian eta Marcus, 2012).

Honela, gehiegizko pisua duten adingabekoek pisu normala duten adingabekoek baino antsietate-sintomatologia handiagoa erakusten dute (Blanco et al., 2019; Pryor et al., 2016; Rankin et al., 2016; Wang et al., 2019). Aguilar et al.-ren (2018) eta Vassiloudis-en eta Costarelli-ren (2019) ikerketetan GMI altuko adin txikikoek antsietate-sintomatologia gehiago izateko joera zutela frogatu zen, pisu normala zuten adingabekoen aldean. Bozkurt et al.-ek (2017), SCARED galdetegiaren bitartez, ondorio bera aurkitu zuten. Espainian, Calderón et al.-ek (2009) antsietatea arazo psikiatrikoak zein elikadura nahasteak garatzeko zehaztugabeko arriskutzat hartu zuten. Ikerketa honetan, GMIa areagotzen zen heinean, antsietatearen sintomak ere handitzen ziren, baita elikadura nahastei lotutako sintomak ere.

Bestalde, Moradi et al.-ek (2020) ez zuten gainpisua edo obesitatearen eta antsietate arriskuaren arteko erlaziorik aurkitu.

Antsietate nahasteen artean, agian, antsietate sozialaren eta gehiegizko pisuaren artean dagoen erlazioa zehazki aztertu beharko litzateke (Burke eta Storch, 2015). Gehiegizko pisua ebaluazio negatiboaren beldur izateko zaurgarritasun-faktorea izan daiteke, loditasunak bazterketa sor dezakeelako, eta iseka edo esamesa pairatzeko aukera izateagatik (Sagone eta De Caroli, 2013). Adibidez, Phillips et al.-ek (2012) obesitatea zuten neskek, obesitatea zuten

3. KAPITULUA

mutilen aldean, antsietate sozial handiagoa adierazi zutela aurkitu zuten.

6. taulan azpiatal honetako ikerlanen emaitzak laburki agertuko dira. Urtea, herrialdea, laginaren ezaugarriak eta erlazionatutako faktoreak aipatuko dira. Behatu daitekeen moduan, ikerketen gehiengoak antsietate-sintomatologia handiagoa aurkitu dute neskengan mutilengan baino. Adinari dagokionez, ikerketa gutxi ebaluatzen dute antsietatearen garapena haurtzaroan eta nerabezeroan zehar. Bi ikerketek ez zela desberdintasunik egon ondorioztatu zuten eta beste bik, adinarekin antsietate-sintomatologia murrizten zela baieztatu zuten, hauetako bat metaanalisia izanik. GMIari dagokionez, ikerlanek antsietate-sintomatologia gainpisua eta obesitatea duten adingabeengan handiagoa dela argi utzi zuten.

6. taula. Haur eta gazteen gainpisu eta obesitateari eta antsietateari buruzko ikerketak

Egiletasuna, urtea eta herrialdea	Laginaren ezaugarriak				Erlazionatutako faktoreak		
	N totala	Nesken %	Adina	% GP	Sexua ¹	Adina ²	GMIa ³
Aguilar et al., 2018, Mexiko	162	% 46,3	12-14	% 51,8	-	-	GP>PN
Anderson et al., 2007, AEB	559	% 47	9-18	% 22,1	-	-	E: GP>PN
Blanco et al., 2019, Espainia	100	% 60	8-12	% 50	E=G	↓	OB>PN
Bozkurt et al., 2017, Turkia	147	% 55,8	8-16	% 62,6	-	-	OB>PN
Burke eta Storch, 2015, MA	-	-	<18	-	E>G	↓	GP>PN
Calderón et al., 2009, Espainia	297	% 55,2	11-17	% 94,6	E>G	-	GP>PN
Esposito et al., 2014, Italia	421	% 53	8-11	% 35,2	OB: E=G	-	OB>PN
Orgilés et al., 2012, Espainia	2522	% 51	8-17	-	E>G	-	-
Pompa eta Meza, 2014, Mexiko	601	% 56,9	11-16	% 58,9	E>G	-	GP>PN
Pompa eta Meza, 2017, Mexiko	849	% 53,7	11-16	% 58,3	E>G	-	GP>PN
Pryor et al., 2016, Kanada	1221	% 54	6-13	-	E=G	-	GP>PN
Sepúlveda et al., 2018, Espainia	170	% 50	8-12	% 100	E=G	=	-
Suzuki et al., 2020, Japonia	16 048	% 48,8	6-12	-	-	=	E: GP>PN
Topçu et al., 2016, Turkia	367	% 64,3	9-16	% 54,5	OB: E=G	OB: =	OB>PN
Vassiloudis eta Costarelli, 2019, Grezia	528	% 51,5	10-12	% 33	E=G	-	GP>PN

MA: metaanalisisa. E: emakumea. G: gizona. PN: pisu normala. GP: gehiegizko pisua. OB: obesitatea. ¹E=G: ez dago desberdintasunik antsietate-sintomatologian bi sexuen artean. E>G: neskek mutilek baino antsietate-sintomatologia handiagoa adierazten dute. ²↓: antsietate-sintomatologia adinarekin gutxitzen da, = ez dira adinarekiko ezberdintasunik gertatzen. ³GP>PN: gehiegizko pisua duten adin txikikoek pisu normala dutenek baino antsietate-sintomatologia handiagoa adierazten dute. OB>PN: obesitatea (ez gainpisua) duten adin txikikoek pisu normala dutenek baino antsietate-sintomatologia handiagoa adierazten dute.

3.2. Depresioa

Del Barriok eta Carrascok (2013, 21. or.) honela definitzen dute haur eta nerabeen depresioa: “*jokabidearen etengabeko aldaketa da; hau da, gertaerez gozatzeko, besteekin komunikatzeko eta errendimendu akademikoaren gaitasunen beherakadan oinarritzen da, gorputz-funtzioetan aldaketak gertatuz eta, sarritan, protesta anitzeko ekintzekin batera*”. DSM-5 eskuliburuan, depresioa helduen nahastetzat hartzen da soilik, eta haurren depresioari aipamen txiki bat besterik ez zaio egiten. Bertan, narritadurak tristura ordezka lezake, eta pisu edo gose aldaketak espero den pisu-igoeraren porrota ordezka lezake (APA, 2014). Antsietateak bezala, sintoma horiek ere ondoeza eragiten dute pertsonarengan eta eguneroko bizitzan duen funtzionamendu mailan (Bernaras et al., 2013).

Berriki, Kim et al.-ek (2021) CDI-aren sintoma-sareen analisi bat egin dute eskola-umeen lagin zabal batean, eta bakardadea, bere buruarekiko gorrotoa, eskolako higuina eta autoestimua baxua depresio-sintomen sareko sintoma nagusiak izan zirela aurkitu dute. 7. taulan adingabeen depresio-sintomatologiaren sintoma bereizgarrienak jaso dira.

Haurren depresioaren prebalentzia globalari dagokionez, adin txikikoen % 2,6k depresio-asaldura bat diagnostikatuta du (Polanczyk et al., 2015), eta adin txikikoen % 5ek, gutxi gorabehera, depresio-aldi bat pairatuko du 19 urte bete aurretik (Soutullo et al., 2017). EAEn 7 urtetik 12 urtera bitarteko adingabeen egindako ikerketek erakutsi zuten hauen % 4-5ek, gutxi gorabehera, depresio-sintoma moderatuak edo klinikoki esanguratsuak adierazten zituztela (Bernaras et al., 2013; Jaureguizar et al., 2017).

7. taula. Haur eta nerabeen depresioaren aurkezpen klinikoa (Soutullo et al.-etik hartuta, 2017)

Prepuberalak (11 urte baino lehen)	Postpuberalak (11 urtetik 16 urtera)
- Portaera arazoak	- Arreta mantetzeko eta
- Ez diete araei erantzuten	kontzentratzeko zailtasunak
- Ohiko kasketak	- Eskola joateari uko egiten
- Aztoramendu handiagoa	diote
- Jateko gogoaren eta pisuaren	- Zereginetan eta interesetan
asaldurak	(jolasetan) interesa galtzen
- Negartsuagoak eta antsietatea	dute
agertzen da	- Aspertuta edo bakarrik
- Loaren asaldurak (gauean	sentitzen dira
esnatzen dira, amesgaiztoak)	- Suminkorrakoak
- Kexa fisikoak	- Kontrolatzeko zailtasun
- Aurreko etapa batera itzultzea	handiagoa
	- Konfiantza eta autoestimua
	galera
	- Loaren eta gosearen
	alterazioak
	- Bere buruaz beste egiteko
	ideiak

Lubyk (2009) zehaztu zuenez, haurren depresioa 6 urterekin antzeman daiteke. Gainera, emozioen garapen goiztiarrari buruzko aurkikuntzek haurren depresio goiztiarra aztertzeko funtsezko esparrua dirudite; izan ere, haur oso txikiek ondorio konplexuak pairatu ditzakete, hala nola, errua eta lotsa.

Arestian aipatu dugun moduan, gehiegizko pisuaren irismena esfera fisikotik haratago doa, ondorio emozional larriak baititu, eta horrek arrasto handia utz dezake adingabearengan eta haren ingurune hurbilenean (López-Morales et al., 2014). Depresio-fenomenoari dagokienez, haurtzaro goiztiarretik aurrera erlazio sendoagoa ezartzen da depresio-sintomatologiaren eta obesitatea duten adingabeen gizarte-testuinguruaren artean (Cañoles et al., 2015). Horrenbestez, obesitatea depresio-arriskuaren faktore garrantzitsua izan daiteke (Gibson-Smith et al., 2020; Lindberg et al., 2020). Hala ere, beste azterketa batzuek bi

noranzkoko harremana planteatzen dute bi aldagai horien artean, depresioa obesitatearen kausa edota ondorioa izanik (Mannan et al., 2016; Rankin et al., 2016). Dena dela, emaitzak kontraesankorrak dira oraindik, eta ezin da bi noranzkoaren eraginari buruzko ondorio zurririk atera (Mühlig et al., 2016).

3.2.1. Sexuen arteko desberdintasunak

Sexuari dagokionez, ikerketek neskek mutilek baino depresio-sintomatologian puntuazio handiagoa dutela erakusten dute (Delgado-Floody et al., 2020; González-Toche et al., 2017; Hoare et al., 2014). Argitaratu diren azken azterketek erakutsi dutenez, obesitatearen eta depresioaren arteko bi noranzko lotura neskengan mutilengan baino handiagoa da (Korczak et al., 2013; Mannan et al., 2016; Mühlig et al., 2016). Nesken artean, prebalentzia altuagoaren azalpena neskek beren pisuaz gehiago jabetzeko joera dutela izan baitaiteke (Steinsbeek et al., 2017).

Beste azterketa batzuek, ordea, sexuen eta depresio-sintomatologiaren artean alde nabarmenik ez dagoela diote (Blanco et al., 2019; Sepúlveda et al., 2018; Topçu et al., 2015), eta, beste batzuetan, mutilek neskek baino ehuneko altuagoak erakusten dituzte (Bernaras et al., 2013; Jaureguizar et al., 2017; López-Morales et al., 2014).

Sexuari eta GMIari dagokienez, gehiegizko pisua duten emakumeek gizonek baino depresio-sintomak izateko joera handiagoa dutela ikusi da (Anderson et al., 2007; Quek et al., 2017; Sutaria et al., 2019). Sutaria et al.-ek (2019) ez zuten gehiegizko pisua eta pisu normala zuten mutilen arteko desberdintasunik aurkitu. Baina, bai obesitatea zuten nesken eta pisu normala zutenen artean. Era berean,

López-Morales et al.-ek (2014), ikasleekin egindako ikerketaren arabera, % 28,7k depresioarekin lotutako sintomak zituen, eta horietatik % 18,9k gehiegizko pisua zuen. Benson et al. (2013), Esposito et al. (2014) eta Morrison et al.-ek (2015), berriz, ez zuten depresio-sintomatologian obesitatea zuten neska-mutilen arteko desberdintasun esanguratsurik aurkitu.

3.2.2. Adinaren arabeko desberdintasunak

Esan bezala, depresio-fenomenoek adin goiztiarreko hurrei eragin diezaieketen arren, askotan, depresio-sintomatologia ez da hautematen eskolaurreko etapan, adin txikiko gehienak ez baitira gai egoera depresiboak eragindako sufrimendu emozionala hitzez adierazteko (Domenech-Llaberia et al., 2003).

Del Barrioren arabera (2007), 11 urtetik aurrera nesken depresio mailak mutilenak baino altuagoak dira; adin hori baino lehenagoko intzidentziak oso antzekoak dira, eta, batzuetan, mutilek intzidentzia handiagoa izan dezakete, esanguratsua izatera heldu gabe. Era berean, Bernaras et al.-ek (2013) mutilengan eta neskengan depresio-sintomatologiak adinarekin behera egiten zuela ohartu ziren, nahiz eta neskengan pixka bat gora egin 12 urterekin.

Garapen-ikuspegi batetik, Pryor et al.-en azterketak (2016) erakutsi zuen gehiegizko pisua goiz (6 urte) garatu zuten adingabeek 13 urterekin depresio-arrisku handiagoa zutela; biktimizazioak eta argalago egoteko nahiak eragina izan zuten asoziazio horretan. Hala ere, garapen berantiarreko (10 urte) adingabeetan, 13 urterekin depresio-arriskua nabarmena izan zen, nahiz eta harreman honek argalago egoteko nahian besterik eragin ez zuen. Ildo beretik, Gibson-Smith et al.-ek (2020) 8 urterekin gainpisua edo obesitatea izatea, baina

13 urterekin ez, bizitzan zehar depresio-nahaste altuagoa izateko arrisku handiagoarekin lotu zela ohartu ziren.

Aurkikuntza interesgarria Marmorstein et al.-ek (2014) bere ikerketan egindakoa da, non obesitatearen eta depresio-nahastearen korrelazio handia nerabezaro goiztiarrean ematen den (11-14 urte), ez zen erlazio esanguratsurik hauteman, ordea, nerabezaro berantiarrean (14-20 urte) ezta helduaroan (20-24 urte) ere.

Hala ere, Quek et al.-en (2017), Sepúlveda et al.-en (2018) eta Wang et al.-en (2019) azken ikerketetan, ez zen adin desberdinetako haurren arteko desberdintasun esanguratsurik aurkitu. Jaureguizar et al.-ek (2017) ez zuten EAEko 7 eta 10 urte bitarteko adingabeen arteko desberdintasunik ere aurkitu.

3.2.3. GMIaren arabera ezberdintasunak

Azterketa askoren arabera, korrelazio positiboa dago haur eta gazteen gainpisuaren eta obesitatearen eta depresio-sintomatologiaren artean (Aguilar et al., 2018; Blanco et al., 2019; Delgado-Floody et al., 2020; González-Toche et al., 2017). Blanco et al.-en (2019) ikerketan, obesitatea zuten aurrenerabeek depresio-maila handiagoa izan zuten, obesitaterik gabeko aurrenerabeen aldean. Berriki egindako metaanalisi baten arabera, gehiegizko pisua duten adingabeek depresio-sintomatologia izateko joera handiagoa dute, pisu normala duten adingabeek baino (Wang et al., 2019). Era berean, beste metaanalisi batzuek obesitatea duten adingabeek pisu normala duten adingabeek baino depresio handiagoa edo depresio-sintoma gehiago dituztela adierazten dute; alabaina, gainpisua duten adingabeentzat ez da horrela (Quek et al., 2017; Rao et al., 2020; Sutaria et al., 2019). Hoare et al.-en (2014) ikerketan, obesitatea duten mutilek pisu normala duten

mutilek baino depresio-sintomatologia adierazteko probabilitate handiagoa zuten. Kontrakoa gertatu zen Anderson et al.-en (2007) ikerketan, non obesitatea zuten neskek puntuazio altuena lortu zuten, pisu normala zuten nesken aldean.

Beste azterketa batzuek, aldiz, ez dute depresio-sintomatologiaren eta gehiegizko pisua duten adingabeen arteko loturarik aurkitu (Cañoles et al., 2015; Jari et al., 2014), ezta gehiegizko pisua duten adingabeek pisu normala duten adingabeek baino depresio-sintoma gehiago izatea ere (Bozkurt et al., 2017). Benson et al.-ek (2013), bestalde, ondorioztatu zuten ez zela korrelaziorik izan CDI-arekin neurtutako depresioaren eta obesitatea zuten eta tratamendu espezializatura joaten ziren adin txikikoen GMIaren igoeraren artean. Duela gutxi egindako metaanlisi batek ez zuen gehiegizko pisuaren eta adin txikikoen depresio-sintomatologiaren arteko loturarik hauteman (Moradi et al., 2020).

8. taulan azpiatal honetako ikerlanen emaitzak laburbilduta daude: urtea eta herrialdea, laginaren ezaugarriak eta zerikusia duten faktoreak aipatuko dira. Beha daitekeenez, ikerketa gehienek ez dute bi sexuen arteko alderik aurkitu depresio-sintomatologian. Ezberdintasuna aurkitu dutenen artean, badirudi neskak direla, mutilen aldean, depresio-sintomatologia handiena adierazten dutenak. Adinari dagokionez, ikerketa gutxik ebaluatzen dute haien garapena haurtzaroan eta nerabezeroan. Horietako lautan ondorioztatu zen ez zela desberdintasunik izan, eta horietako bat obesitatea duten adingabeengan bakarrik izan zela, eta ikerketa bakar batek adierazi zuen depresio-sintomatologia adinarekin jaitsi egiten zela. GMIari dagokionez, ikerketen arabera, depresio-sintomatologia handiagoa da gainpisua eta obesitatea duten adingabeengan.

3. KAPITULUA

8. taula. Haur eta gazteen gainpisu eta obesitateari eta depresioari buruzko azterketak

Egiletasuna, urtea eta herrialdea	Laginareen ezaugarriak				Erlazionatutako faktoreak		
	N totala	Nesken %	Adina	% GP	Sexua ¹	Adina	GMIa ³
Aguilar et al., 2018, Mexiko	162	% 46,3	12-14	% 51,8	-	-	GP>PN
Anderson et al., 2007, AEB	674	% 49,3	9-18	% 20,2	-	-	E: GP>PN
Benson et al., 2013, AEB	117	% 62,4	7-17	% 100	E=G	-	-
Blanco et al., 2019, Espainia	100	% 60	8-12	% 50	E=G	↓	OB>PN
Bozkurt et al., 2017, Turkia	147	% 55,8	8-16	% 62,6	-	-	OB=PN
Cañoles et al., 2015, Txile	250	% 55,2	4-6	% 46,8	-	-	GP=PN
Delgado-Floody et al., 2020, Txile	598	% 45	10-13	-	E>G	-	GP>PN
Esposito et al., 2014, Italia	421	% 53	8-11	% 35,2	OB: E=G	-	OB>PN
González-Toche et al., 2017, Mexiko	165	% 55,2	8-12	% 47,3	E>G	-	GP>PN
Hoare et al., 2014, Australia	800	% 55	11-14	% 27	E>G	-	G: GP>PN
López-Morales et al., 2014, Mexiko	101	% 60,3	6-12	% 45,6	G>E	-	GP>PN
Morrison et al., 2015, Kanada	244	% 51,2	8-17	% 100	E=G	=	-
Pryor et al., 2016, Kanada	1221	% 54	6-13	-	E=G	-	GP>PN
Quek et al., 2017, MA	51 272	-	<21	-	OB: E>G	=	OB>PN

8. taula. Haur eta gazteen gainpisu eta obesitateari eta depresioari buruzko azterketak (*jarraipena*)

Egiletasuna, urtea eta herrialdea	Laginaren ezaugarriak				Erlazionatutako faktoreak		
	N totala	Nesken %	Adina	% GP	Sexua ¹	Adina ²	GMIa ³
Rao et al., 2020, MA	69.893	-	<19	30,3 %	-	-	OB>PN
Sepúlveda et al., 2018, Espainia	170	50 %	8-12	100 %	M=H	=	-
Sutaria et al., 2019, MA	143.603	52 %	<18	15,5 %	OB: M>H	-	OB>PN
Topçu et al., 2016, Turkia	367	64,3 %	9-16	54,5 %	OB: M=H	OB: =	OB>PN

MA: metaanalisisa. E: emakumea. G: gizona. PN: pisu normala. GP: gehiegizko pisua. OB: obesitatea. ¹E=G: ez dago bi sexuen arteko desberdintasunik depresio-sintomatologian. E>G: neskek mutilek baino depresio-sintomatologia handiagoa adierazten dute. ²↓: depresio-sintomatologia adinarekin gutxitzen da, = ez dira adinarekiko ezberdintasunik ematen. ³ GP>PN: gehiegizko pisua duten adin txikikoek pisu normala dutenek baino depresio-sintomatologia handiagoa dute. GP=PN: ez dago gehiegizko pisuaren eta pisu normalaren arteko alderik. OB>PN: obesitatea (ez gainpisua) duten adingabeek pisu normala dutenek baino depresio-sintomatologia handiagoa dute.

3.3. Autoestimu baxua

Pertsona batek bere buruarekiko dituen ideiek bere autokontzeptua eratzen dute. Era berean, bere buruari buruz egiten duen balorazioa autoestimua da, hau da, geure burua pentsatzen, epaitzen eta baloratzen dugun modua (Perpiñá et al., 2000). Honela, autoestimua balorazioa bezala definitzen da, pertsona batek bere sentimenduen, pentsamenduen eta esperientzien ebaluazioaren arabera, bere buruaz egiten duen hautemate edo epaiketa positibo edo negatiboa (Sánchez eta Ruiz, 2015).

Autoestimuak maitatua izateko baliotsu eta duin izatea jakiteari egiten dio erreferentzia (Hill, 2017). Hala ere, autoestimuak ez du zertan denboran zehar egonkorra izan behar, baizik eta bizitako esperientzien arabera aldakorra izan daiteke (Xue-Yan et al., 2016). Park-en arabera (2020), bere luzetaroko ikerketako datuek, autoestimua garapenean, ezegonkortasun maila erakusten dute aurrenerabezaro eta nerabezaro goiztiarrean zehar. Modu honetan, autoestimu egokia beharrezkoa da haurtzaro eta nerabezaroen, identitatea eratzen den aldi kritikoa delako (Ortega et al., 2015).

Autoestimu baxua, gorputz-asegabatasunarekin, antsietatearekin eta depresioarekin ere erlazionaturik dago (Duchesne et al., 2016). Hau neurri batean, gizarteak itxura fisiko eredugarria espero duelako izan daiteke. Honen ondorioz, itxura fisikoa negatiboki ebaluatzeko joera ohikoagoa da gehiegizko pisua duten ikasleengan (Sagar eta Gupta, 2018).

3.3.1. Sexuen arteko desberdintasunak

Mutil eta nesken autoestimu mailetan aurkitutako desberdintasunak direla eta (Contreras-Valdez et al., 2016),

garrantzitsua da bakoitza bere aldetik ebaluatzea. Modu honetan, egindako hainbat ikerketek neskek mutilek baino autoestimu baxuagoa adierazten dutela frogatu dute (Delgado-Floody et al., 2018a, 2018b, 2019). Adibidez, Kröner-Herwig et al.-en (2014) ikerketan, neskek mutilek baino autoestimu baxuagoaren berri ematen zutela ikusi zen, efektuaren tamaina moderatua izanik. Egile hauek, hau, normalean *selfaren* eta inguruaren prozesamendu kognitibo-emozional negatiboagoa egitearen ondorioa dela iradokitu dute. Espainian ere, nesken kasuan, autoestimu baxuagoa behatu zen mutilen aldean (Ortega et al., 2015).

Beste ikerketa batzuek aldiz, ez dute bi sexuen arteko desberdintasunik aurkitu (Blanco et al., 2019; Herrera-Monge et al., 2019; Khadri et al., 2020; Vassiloudis eta Costarelli, 2019). Reyes et al.-en (2019) ikerketan adibidez, parte-hartzaile guztiek autoestimu maila baxua agertu zuten.

Sexuari eta GMIari dagokienez, neska izatea eta pisu normala kontsideratzen denaren gainetik kokatzen den GMIA izatea autoestimu balore txikiagoak izatearekin lotuta dagoela ikusi da (Kröner-Herwig et al., 2014; Sagar eta Gupta, 2018). Shriver et al.-ek (2013) obesitatea izan arte 8 eta 10 urte bitarteko mutilen gorputz autoestimuak eraginik jasan ez dezakeela iradokitzen dute, neskek, aldiz, argal egoteko gizartearen presio handiagoari aurre egin behar diotenez, gainpisua izatean, gorputz-autoestimua kaltetua ikusi da. Gibson et al.-ek (2017) neskek eta mutilek bakarka konparatzean, gehiegizko pisua zuten bai neska eta mutilek puntuazio baxuagoak lortu zituzten pisu normala zuten kideen aldean.

Hala ere, Topçu et al.-ek (2015) autoestimuari dagokionez, gainpisua eta obesitatea zuten nesken eta mutilen artean desberdintasun

esanguratsurik ez zegoela adierazi zuten. Park-ek (2020) ere bere luzetarako ikerketan, sexuen arabera desberdintasunik ez zegoela ondorioztatu zuten, nahiz eta mutilek U formako aldaketa patroia argi bat erakutsi zuten, eta neskek aldiz ez.

3.3.2. Adinaren arabera desberdintasunak

Aurrenerabearoa aldaketa aldia dela kontutan hartuz, autoestimua mailak aldaketa eta gorabeherak esperimendatzeko espero da. Hala ere, zaila da gainpisua autoestimua izateko mingarriagoa haurtzaroan edo nerabearoan izango den argitzea ahalbidetuko duen irizpide bat ezartzea (Hill, 2017).

Kröner-Herwig et al.-ek (2014) aurrenerabearo eta nerabearoan sartu ahala, autoestimua gradualki gutxitzen dela zehaztu zuten. Ikerketa honetan, 13 urtetatik aurrerako nerabeengan autoestimua ez zen gutxitu. Izan ere, 13-14 urte eta 14-16 urteko taldeen artean ez zegoen desberdintasun esanguratsurik, baina adin txikieneko taldeak (11-12 urte) autoestimuan puntuazio altuagoak lortu zituen. Park-ek (2020) ere aurrenerabearoan murrizketa bat ikusi zuten, baina nerabearoan zehar autoestimua handiagotu zen.

Khadri et al.-ek (2020), bere aldetik, adingabe txikienean adingabe helduagoen aldean, puntuazio balore baxuagoak zitu zela ondorioztatu zuten. Egile hauen moduan, Blanco et al.-ek (2019) emaitza berak aurkitu zituzten. Reyes et al.-ek (2019) aurrenerabe helduengan autoestimua maila altuago zela ikusi zuten, mutilek beren autoestimua gehitzeko joera zuten bitartean neskek kontrako kasua behatu zuten.

Beste alde batetik, GMIaren eta autoestimua gutxitzeak denboran zehar erlaziorik duten galderari dagokionez, Wang et al.-ek

(2015) bizitzako lehen 11 urtetan gehiegizko pisua autoestimu baxuaren garapenean eragina zuen faktore bat ez zela determinatu zuten. Nowicka et al.-ek (2009), bere aldetik, adinarekin obesitatea zuten adingabeengan autoestimua gutxiagotzen zela frogatu zuten, esate baterako, nerabezaro berantiarrean autoestimu maila baxuagoak izan ziren aurrenerabezaroan baino.

Beste ikerketa batzuen emaitzak orain arte azaldutakoaren kontrakoa adierazten dute, izan ere, gainpisua eta obesitatea duten adingabeek, adina alde batera utzita ere, autoestimu baxua agertzen dutela frogatu zuten (Herrera-Monge et al., 2019; Topçu et al., 2015). Honela, Herrera-Monge et al.-ek (2019) gorputz-irudia eta erlazio afektiboak eraginik jasaten ez bazuten, autoestimu baxuak adinarekin txikiagotzerik jasaten ez zuela argudiatu zuten. Griffiths et al.-ek (2010) gauzatutako berrikuspenean ez zen obesitatea zuten haur eta nerabeen arteko desberdintasun argirik aurkitu, ikerketa batek ere ez zituelako konparatu edo informatu desberdintasunak bi adin taldeak barne hartzean.

3.3.3. GMIaren araberako desberdintasunak

Aurrenerabeekin eginiko ikerketek gehiegizko pisua dutenengan autoestimu baxu orokorra agertzen dela adierazi zuten (Griffiths et al., 2010; Sánchez eta Ruiz, 2015; Sikorski et al., 2015) eta hauek pisu normala duten aurrenerabeekin alderatuz esanguratsuki baxuagoa den autoestimua dutela (Delgado-Floody et al., 2019; Moradi et al., 2020; Rosa et al., 2019). Delgado-Floody et al.-ek (2018a) aurkitu zuten obesitatea zuten adingabeen % 53k autoestimu baxua zuela, gainpisua zuten % 32k jarraiki, eta azkenik, pisu normala zuten adingabeen % 22k. Egile hauen arabera, gehiegizko pisua eta

autoestimu baxua dituzten aurrenerabeen datuak larritzekoak dira, izan ere, egoera honek garapen pertsonal nahiz sozial egokian eragina izan dezake (Delgado-Floody et al., 2019).

Bestalde, beste ikerketa batzuetan autoestimuan ez da gehiegizko pisua eta pisu normala duten nerabeen arteko ezberdintasunik agertu (Khadri et al., 2020; Lee et al., 2012; Sánchez eta Ruiz, 2015). Khadri et al.-en (2020) ikerketan obesitatea zuten adingabeek autoestimu baxuagoa zuten bere kideen aldean, baina ez zen kategoria ponderalen arteko desberdintasun esanguratsurik aurkitu. Lee et al.-en (2012) kasuan ere, kategoria neurgarrien artean ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu, baina ikerketa honetan obesitatea zuten adingabeek, pisu normala zutenen aldean, autoestimu maila hobea zuten. Egileek gertaera hau obesitatea arazotzat ez hautemateari egotzi zioten.

Egile batzuek, emaitzak modu egokian interpretatzeko gorputz-asegabetasuna kontutan hartzea beharrezkoa dela esaten dute, azken honek obesitatearen eta autoestimu baxuaren artean bitartekari jardun dezakeelako (Contreras-Valdez et al., 2016). Beste autore batzuek, hala nola Sánchez eta Ruiz (2015), obesitatea zuten adingabe batzuk (% 6), familia eta lan intelektualaren arloak oso indarturik zeudelako autoestimu altua agertu zutela gehitu zuten.

9. taulan azpiatal honetako emaitzak laburturik agertuko dira. Urtea, herrialdea, laginaren ezaugarriak eta erlazionatutako faktoreak aipatuko dira. Beha daitekeen moduan, hainbat ikerketek ez dute desberdintasunik aurkitu sexuen arabera, eta beste batzuek, berriz, autoestimuan neskek mutilek baino puntuazio baxuagoak lortzen dituztela azaltzen dute. Adinari dagokionez, ez dute askok honen garapenaren ebaluazioa haurtzaroan eta nerabezaroan zehar egiten.

Hiru ikerketek autoestimua adinarekin areagotu egiten zela ondorioztatu zuten, eta aldiz beste bik, txikiagotu egiten zela. Sexuaren eta adinaren emaitzen koherentzia faltaren zergatia autoestimua ebaluatzeko erabilitako galdeketen aniztasunean egon daiteke. GMIari dagokionez, ikerketek gehiegizko pisua duten adingabeengan autoestimua baxuagoa dela argi utzi dute.

3. KAPITULUA

9. taula. Haur eta gazteen gainpisu eta obesitateari eta autoestimuari buruzko ikerketak

Egilea, urtea eta herrialdea	Laginarene ezaugarriak				Erlazionatutako faktoreak		
	N totala	Nesken %	Adina	% GP	Sexua ¹	Adina ²	GMIa ³
Aguilar et al., 2018, Mexiko	162	% 46,3	12-14	% 51,8	-	-	GP<PN
Blanco et al., 2019, Espainia	100	% 60	8-12	% 50	E=G	↑	OB<PN
Danielsen et al., 2012, Norvegia	4167	% 53	10-13	% 13,1	-	-	GP<PN
Delgado-Floody et al., 2018a, Txile	656	% 43,3	11-14	% 55,5	G>E	-	GP<PN
Delgado-Floody et al., 2018b, Txile	364	% 50,5	11-13	% 55,5	G>E	-	GP<PN
Delgado-Floody et al., 2019, Txile	164	% 43,3	11-14	% 55,5	G>E	-	GP<PN
Gibson et al., 2017, Australia	212	% 51	8-13	% 46	-	-	GP<PN
Herrera-Monge et al., 2019, Costa Rica	442	% 47,1	9-13	% 34,2	E=G	=	GP<PN
Khadri et al., 2020, Arabiar Emirerri Batuak	803	% 49,4	11-17	-	E=G	↑	GP=PN
Kröner-Herwig et al., 2014, Alemania	3509	% 50,4	11-16	-	G>E	↓	GP<PN
Lee et al., 2012, Malaysia	311	% 54,7	11-13	% 32,8	-	-	GP=PN
Nowicka et al., 2009, Suedia	107	% 53,2	8-19	% 100	G>E	↓	-
Ortega et al., 2015, Espainia	296	% 50	12-14	% 32,8	G>E	-	GP<PN
Reyes et al., 2019, Nikaragua	731	% 49,7	9-13	% 25	E=G	↑	-

9. Taula. Haur eta gazteen gainpisu eta obesitateari eta autoestimuari buruzko ikerketak (*jarraipena*)

Egilea, urtea eta herrialdea	Laginaren ezaugarriak				Erlazionatutako faktoreak		
	N totala	Nesken %	Adina	%GP/OB	Sexua ¹	Adin a ²	GMIa ³
Sánchez eta Ruiz., 2015, Mexiko	270	-	8-11	% 12,22	-	-	OB=PN
Topçu et al., 2016, Turkia	367	% 64,3	9-16	% 54,5	OB: E=G	OB: =	OB<PN
Vassiloudis eta Costarelli, 2019, Grezia	528	% 51,5	10-12	% 33	E=G	-	GP<PN
Xue-Yan et al., 2016, Txina	1410	% 46,9	9-12	% 23,1	E=G	-	GP<PN

E: emakumea. G: gizona. PN: pisu normala. OB: obesitatea. GP: gehiegizko pisua. ¹E=G: ez dago desberdintasunik autoestimuan bi sexuen artean. G>E: mutilek neskek baino autoestimua handiagoa agertzen dute. ²↓: autoestimua adinarekin gutxiagotzen da, ↑: adinarekin areagotzen da. ³GP<PN: gehiegizko pisua duten adin txikikoek autoestimua baxuagoa agertzen dute pisu normala duten adingabeen aldean. GP=PN: ez dago kategoria ponderaletan desberdintasunik. OB<PN: obesitatea duten adingabeek (ez gainpisua dutenek) autoestimua baxuagoa agertzen dute pisu normala duten adin txikoen aldean.

3.4. Oldarkortasuna

Oldarkortasunak, konstruktuzabal eta aurpegi anitzekoa denak, teoriaren eta tradizio zientifikoaren araberrako definizio eta ikuspegi desberdinak biltzen ditu (Deux et al., 2017). Ikertzeko Nazioarteko Elkarteak (International Society for Research on Impulsivity, ISRI, 2021) oldarkortasuna honela definitzen du: *"Behar bezalako hausnarketarik gabeko jokabide estilo bat da, gaitasun eta ezagutza bereko pertsona gehienek baino aurreikuspen gutxiagoz jokatzeko joera, edo barneko edo kanpoko estimuluen aurrean erreakzio azkarrak eta planifikatu gabek izateko joera, erreakzio horien ondorio negatiboak kontuan hartu gabe"*.

Oro har, hiru ikuspegi desberdin bereiz daitezke: 1) oldarkortasuna ezaugarri gisa, nortasunaren psikologiaren teorietan oinarritzen dena eta autotxosten-galdetegien bidez ebaluatzen dena (adibidez, Barratt-en Oldarkortasun Eskala, BIS-11, Patton et al., 1995) 2) erantzunaren inhibizioa (edo desinhibizioa), jokabide-inhibizioko atazen bidez operatibizatzen dena (adibidez, *go/no-go tasks*), eta 3) sariarekiko sentsibilitatea, jokabide-erabakiko atazen (adibidez, atzerapenen zenbaketaren) edo autotxosten-galdetegien bidez neurtzen dena. Ikerketek erakutsi dute hiru oldarkortasun motak GMI altu batekin lotuta egon daitezkeela (Guerrieri et al., 2008).

Adingabeengan, emozioen erregulazioa, jokabidea eta familia-, eskola- eta gizarte-inguruneke egokitzapen egokia ulertzeko funtsezko elementuetako bat oldarkortasuna aztertzea eta ebaluatzea da. Barratt-eko Oldarkortasun Eskala (BIS-11), 55 urte baino gehiagoko historia eta eraldaketa ugarirekin (Chahín et al., 2019), gehien erabiltzen den autotxosten-tresnetako bat izanik. Barratt-ek oldarkortasuna hiru osagaiz osatuta zegoela proposatu zuen:

- 1) oldarkortasun kognitiboa, erabaki azkarrak hartzeko joera;
- 2) oldarkortasun motorra, pentsatu gabe jarduteko joera; eta
- 3) oldarkortasun ez-planifikatua, etorkizuneko aurreikuspenik ez egitea (Stanford et al., 2009).

Ezaugarri horiek txikitatik agertzen dira eta adingabearen garapenean eragiten dute (Sánchez-Sarmiento et al., 2013). Era berean, oldarkortasunak haurtzaroan GMIa handitzea eragin dezake (Bennett eta Blissett, 2019; Meule et al., 2016; van den Berg et al., 2011). Izan ere, van den Akker et al.-ek (2014) oldarkortasunaren eta elikagaien gehiegizko irenstearen artean lotura dagoela iradoki zuten, eta horrek, ziurrenik, pisua handitzea ekarriko zukeela.

Meule et al.-en (2016) ikerketan, adibidez, oldarkortasuneko azpieskalen eta GMIaren arteko korrelazioak ez ziren esanguratsuak izan. Hala ere, zeharkako lotura bat aurkitu zen oldarkortasun kognitiboaren eta GMIaren artean dietaren auto-erregulazioaren arrakastaren bidez, baina oldarkortasun motorraren maila altuetan soilik. van den Berg et al.-en (2011) arabera, oldarkortasuna gain-elikaduraren bidez lotu zitzaion GMIari. Era berean, badirudi obesitatearen janari-seinaleekin lotzen dela gain-elikaduraren bidez (Nederkoorn et al., 2012).

3.4.1. Sexuen arteko desberdintasunak

Weinstein-en eta Dannon-en (2015) arabera, ikuspegi ebolutibo eta neurobiologikotik, adierazle askok azaltzen dute gizonak emakumeak baino oldarkorrangoak direla. Izan ere, hainbat azterlanen arabera, mutilek neskek baino oldarkortasun handiagoa dute (Crosbie et al., 2013; Fields et al., 2013; Francis eta Susman, 2009; Hosseini-Kamkar eta Morton, 2014). Fields et al.-en (2013) ikerketan, BIS-11-A

eskalan, mutilek neskek baino puntuazio altuagoak lortu zituzten. Era berean, adingabeen lagin zabal batean ($n = 14\ 388$) mutilek neskek baino erreakzio-denbora laburragoak zituztela ikusi zen (Crosbie et al., 2013). Emaidza horiei Francis-en eta Susman-en (2009) ikerketa gehitu behar zaie, non mutilek auto-erregulaziorako trebetasun maila nabarmenki baxuagoak erakutsi zituzten.

Hala ere, nesken eta mutilen arteko oldarkortasuna alderatzean, zenbait azterlanek adierazten dute ez dagoela alde nabarmenik bi sexuen artean (Bennett eta Blissett, 2019; Chahín et al., 2019; Nederkoorn et al., 2012; Verbeken et al., 2012) edota neskek puntuazio altuagoak lortzen dituztela (Pearce et al., 2018).

Sexuari eta GMIari dagokionez, Braet et al.-ek (2007) ikusi zuten, gehiegizko pisua zuten mutilak pisu normala zuten mutilen aldean oldarkortasun handiagoa erakutsi zutela. Nesken artean, ordea, ez zuten desberdintasunik aurkitu.

3.4.2. Adinaren arabera desberdintasunak

Ikerketa batzuen arabera, adingabe txikienek puntuazio altuagoak dituzte nerabeek baino (Crosbie et al., 2013; Pauli-Pott et al., 2010). Honi dagokionez, Crosbie et al.-ek (2013) erakutsi zuten mutilek neskek baino erreakzio-denbora baxuagoa zutela, eta sexu-alde hori nabarmenagoa zela haur txikienean artean. Pauli-Pott et al.-ek (2010) ziotenez, adingabe txikienek, helduagoen aldean, oldarkortasunaren ondorioz inhibizio-kontrol okerragoa erakutsi zuten. Weinstein-en eta Dannon-en (2015) arabera, badirudi oldarkortasunean sexuen arteko aldeak daudela, baina alde horiek nabarmenagoak dira haurtzaroan, eta, ondoren, helduaroan eta nerabezaroan heldze eta hormona aldaketan araberakoa izaten da.

Bub et al.-en (2016) eta Duckworth et al.-en (2010) ikerketetan, auto-erregulaziorako trebetasun hobeak duten adingabeek, horien artean oldarkortasun baxuagoa dutenek, nerabezarorako trantsizioan pisua handitzeko babes handiagoa zutela ikusi zuten. Datu horiek haurtzaro goiztiarreko oldarkortasuna eta itzaroteko gaitasun baxua pisuaren gehikuntza progresiboan inplikaturik daudela pentsatzera eraman gaitzake, baina garrantzia galtzen dute nerabezaroko hurrengo urteetan (Pauli-Pott et al., 2010).

Hala ere, beste ikerketa batzuen arabera, oldarkortasuna handiagoa da nerabezaroran adingabe txikiengan baino (Chahín et al., 2019; Pearce et al., 2018). Horrela, Chahín et al.-en (2019) ikerketan, oldarkortasun kognitiboaren eta oldarkortasun ez-planifikatuaren batezbestekoa handiagoa izan zen 14-17 urteko taldean 9-13 urteko taldean baino.

Azkenik, beste azterlan batzuek adinari dagokionez ez dute desberdintasunik aurkitu (Deux et al., 2017), lagin hori nerabeez bakarrik osatuta bazegoen ere.

Adinari eta GMIari dagokienez, haurren eta nerabeen laginak konparatu zituen berrikuspen sistematiko batek agerian utzi zuen bi garapen etapetan gehiegizko pisu zuten adingabeek prozesamendu automatiko edota arautzaile gaitasun okerragoa zutela (Kemps et al., 2020).

3.4.3. GMIaren araberrako desberdintasunak

Elikagaiak indargarri positiboak (plazera lortzea) zein negatiboak (ondoeza gutxitzea) izan daitezkeenez, sistema horien erantzuteko gaitasunak funtsezko eginkizuna izan dezake gorputzaren

pisua erregulatzeko orduan. Horretan datza inhibitzeko gaitasunaren garrantzia edo, aitzitik, jokabide oldarkorrarena (Dietrich et al., 2014).

Berrikiago egindako berrikuspen sistematiko batek, metodologia-aldaketak eta azterlanen artean egindako aurkikuntza inkoherenteak gorabehera, gehiegizko pisua duten adingabeengan erregulazio-prozesamendurako gaitasun txikiagoa dela aurkitu du (Kemps et al., 2020). Hala, GMI altuagoa oldarkortasun handiagoarekin lotuta egongo litzateke (Pan et al., 2018; Pauli-Pott et al., 2010; Pearce et al., 2018). Horregatik, gehiegizko pisua duten adingabeak pisu normala duten adingabeak baino oldarkorragoak dira (Braet et al., 2007; Nederkoorn et al., 2012; Verbeken et al., 2009, 2012; Wirt et al., 2014). Bonato-ren eta Boland-en (1983) azterketa klasikoan, obesitatea zuten adingabeek pisu normala zuten adingabeen aldean, berehalako saria janaria bazen, neurri handiagoan aukeratzen zuten eta hori obesitatea zuten adingabeentzako janariak izan zezakeen balioari egotzi zioten.

Ildo beretik, Thamotharan et al.-ek (2013) 21 urtetik beherako pertsonekin egin zuten metaanalisian, oldarkortasuna gehiegizko pisua zutenen artean handiagoa zela aurkitu zen. Hauek, beren bulkadak kontrolatzeko zailtasun gehiago zeukaten, eta epe luzerako helburuak maizago mespretxatzera jotzen zuten berehalako sarien mesedetan, sari hauek txikiagoak izan arren. Era berean, Goldschmidt et al.-ek (2015), 10 urterekin oldarkortasun handiagoa izateak 10 urtetik 16 urtera bitartean GMIIa igotzea zekarrela aurreikusi zuten. Bestalde, Wirt et al.-en (2014) ikerketaren arabera, obesitatea zuten adingabeen inhibizio-kontrola nabarmen baxuagoa zen gainpisua eta pisu normala zuten adingabeena baino.

Beste ikerketa batzuk ez datoz bat orain arte azaldutakoarekin. Bennett-en eta Blissett-en (2019) azterlanean, gurasoek oldarkorrago

puntuatu zituzten GMI altuagoa zuten adingabeak. Era berean, gehiegizko pisua zuten nerabeak kideak baino oldarkorragoak izan ziren atzerapenagatiko deskontuan (Fields et al., 2013). Hala ere, bi azterlan hauetan ez zen alde esanguratsurik aurkitu adingabeek beraiek auto-informatutako galdetegietan (Bennett eta Blissett, 2019; Fields et al., 2013), Espainian nerabeekin egindako azterlan batean ere ez zen ezberdintasunik aurkitu (Verdejo-García et al., 2010). Ildo beretik, Scholten et al.-ek (2014) egindako ikerketan, 9-12 urte bitarteko aurrenerabeen inhibiziorako gaitasun eza eta sariarekiko sentsibilitatea ez ziren GMIarekin erlazionatu.

10. taulan laburbilduta agertuko dira azpiatal honetako azterlanen emaitzak. Urtea eta herrialdea, laginaren ezaugarriak eta horrekin lotutako faktoreak aipatuko dira. Ikus daitekeenez, ikerketa batzuek desberdintasunak aurkitu dituzte bi sexuen artean, mutilek oldarkortasun handiagoa aurkeztuz, eta beste batzuek ez zuten desberdintasunik aurkitu. Adinari dagokionez, emaitzak ere ez dira ondorioztagarriak. Azterlan gutxitan neurtzen da taldeen arteko aldea edo oldarkortasunaren garapena haurtzaroan eta nerabezeroan. GMIari dagokionez, badirudi oldarkortasun handiagoa izateko joera dagoela gehiegizko pisua duten adingabeen artean, nahiz eta ikerketa batzuek neurtutako kategorien arteko alderik aurkitu ez duten.

Emaitzen bat-etortze falta oldarkortasuna ebaluatzeko erabilitako tresnei egotz dakieke; izan ere, autore batzuek nabarmendu dute auto-txostenek froga objektiboek baino tamainaren efektu txikiagoak ematen dituzte (Braet et al., 2007; Thamocharan et al., 2013). Lagin mota desberdinek (adibidez, biztanleria klinikoa eta ez-klinikoa) edo laginen tamaina txikiek ere eragin dezakete.

3. KAPITULUA

10. taula. Haur eta nerabeen gainpisu eta obesitatearen eta oldarkotasunari buruzko ikerketak

Autorea, urtea eta herrialdea	Laginaren ezaugarriak				Erlazionatutako faktoreak		
	N totala	Nesken %	Adina	% GP	Sexua ¹	Adina ²	GMIa ³
Bennett eta Blissett, 2019, Erresuma Batua	50	% 56	7-11	-	E=G	-	GP=PN
Braet et al., 2007, Belgika	109	% 50	10-18	% 51	G>E	-	GP>PN
Chahín et al., 2019, Kolonbia	600	% 49,6	9-17	-	E=G	↑	-
Crosbie et al., 2013, Kanada	14 388	% 51,1	6-18	-	G>E	↓	-
Deux et al., 2017, Alemania	98	% 61,2	12-20	% 27,5	-	=	GP=PN
Fields et al., 2013, AEB	61	-	14-16	% 68,3	G>E	-	GP=PN
Meule et al., 2016, Austria	122	% 51,6	10-18	% 56,6	-	-	GP=PN
Nederkoorn et al., 2012, Herbehereak	89	% 55,1	7-9	% 15,7	E=G	-	GP>PN
Pauli-Pott et al., 2010, Alemania	177	% 54,2	8-15	% 100	E=G	↓	-
Pearce et al., 2018, MA	30 387	% 49,8	<21	-	E>G	↑	GP>PN
Scholten et al., 2014, Herbehereak	1377	% 49,2	9-12	% 12,9	-	-	GP=PN
Thamotharan et al., 2013, MA	3898	% 49,8	2-21	-	-	-	GP>PN

10. taula. Haur eta nerabeen gainpisu eta obesitatearen eta oldarkotasunari buruzko ikerketak (*jarraipena*)

Autorea, urtea eta herrialdea	Laginaren ezaugarriak				Erlazionatutako faktoreak		
	N totala	Nesken %	Adina	% GP	Sexua ¹	Adina ²	GMIa ³
Verbeken et al., 2009, Belgika	81	% 59	10-14	% 50	-	-	GP>PN
Verbeken et al., 2012, Belgika	438	% 52,5	10-15	% 22,4	E=G	-	GP> PN
Verdejo et al., 2010, Espainia	61	% 39,3	13-16	% 44,3	-	-	GP= PN
Wirt et al., 2014, Alemania	498	% 50,2	6-8	% 8,4	-	-	OB> PN

MA: metaanalisia. E: emakumea. G: gizona. PN: pisu normala. OB: obesitatea. GP: gehiegizko pisua. ¹E=G: ez dago desberdintasunik oldarkortasunean bi sexuen artean. G>E: mutilek neskek baino oldarkortasun handiagoa aurkezten dute. E>G: neskek mutilek baino oldarkortasun handiagoa aurkezten dute.² ↓: adinarekin oldarkortasuna gutxiagotzen da, ↑: adinarekin areagotzen da, = ez da aldaketarik ematen.³GP>PN: gehiegizko pisua duten adin txikikoek pisu normala dutenek baino oldarkortasun handiagoa aurkezten dute. GP=PN: ez dago desberdintasunik neurtutako kategorietan. OB>PN: obesitatea duten adingabeek (eta ez gainpisua) pisu normala dutenek baino oldarkortasun handiagoa aurkezten dute.

3.5. Elikadura-asaldurak

Oyarce et al.-ek (2016) elikadura-jokabidea honela definitzen dute: "*gizakiaren elikagaiekiko harremanak ezartzen duen ekintzen multzoa*". Egile horien arabera, elikadura-jokabidea bi dimentsioren bidez ebalua daiteke: 1) elikaduraren hasiera (adibidez, bilaketa eta gosea) eta 2) elikaduraren amaiera (adibidez, asetasuna).

Elikadura Jokabide Nahasteen (EJN) kasuan, elikaduraren edo elikadurarekin lotutako portaeren nahasmendu iraunkorra dute ezaugarri eta horrek elikagaien kontsumoa edo xurgapena asaldatzen du, osasun fisikoari edota funtzionamendu psikosozialari kalte nabarmena eginez (APA, 2014). Hau da, EJNak dituzten pertsonak asaldatutako elikadura-patroia aurkezten dute (elikadura murriztea, jateko bultzada jasanezina izatea, eta abar), irenstearen ondorioak "konpentsatzera" bideratutako praktika batzuekin batera (botaka egitea, libragarriak hartzea, ariketa fisiko irrazionala edo gehiegizkoa egitea, etab.) (Perpiñá, 2015).

Asaldura horiek (adibidez, jatean kontrola galtzea, jatean desinhibitzea, goserik ez dagoenean jatea) gero eta ohikoagoak dira populazio pediatrikoan (Bacopoulou et al., 2018; He et al., 2017), argaltasunaren gizarte-balioaz eta elikadurarekin eta dieta-jokaeretikiko duen loturaz gehiago jabetzen baitira (Damiano et al., 2015). Perpiñá-ren (2015) arabera, haurtzarora eta lehen nerabezarora dira elikadurarekin lotutako nahasmenduetarako zaurgarritasun handieneko aldiak. He et al.-ek (2017) aurkitu zuten, gehiegizko pisua zuten adingabeengan betekaden prebalentzia % 22,2koa zen, eta kontrolaren galeraren prebalentzia % 31,2koa.

Alterazio horiek gehiegizko pisuaren gehitzearekin eta obesitatearekin lotzen dira, bai eta EJNa izateko arriskuarekin eta

ondoez psikologikoarekin ere (Cena et al., 2017). Gainera, asaldaturako elikadura jokabideak (adibidez, betekadak) adingabeen pisua gehitzea partzialki azaltzen duela egiaztatu zen (Goldschmidt et al., 2015).

EJNen arrisku-faktoreak (adibidez, gorputz-asegabetasuna, autoestimua baxua, depresioa eta dieta-jokabideak) obesitatea duten adingabeengan agertu ohi dira, eta horrek helduaroan EJNa garatzeko zaurgarritasuna areagotu dezake (Jebeile et al., 2021; Smith et al., 2020). Era berean, jarrera negatiboak (adibidez, pisuari buruzko kezka) aurreiritzi- eta estigmatizazio-esperientziak bultzatzen dituzte eta EJNa garatzen lagundu (Elizathe et al., 2017; Hayes et al., 2018).

3.5.1. Sexuen arteko desberdintasunak

EJNen ikerketako lehen urteetan, hauek emakume gazteen eta herrialde garatuaren ia arazo eskusibotzat jotzen ziren, nahiz eta ideia hori denboran zehar aldatuz joan den (Ortiz et al., 2017).

Hainbat ikerketaren arabera, EJNak eta gainpisuarekiko estigma neskengan mutilengan baino ohikoagoak dira (Côté et al., 2020; Harrison et al., 2020; Jendrzyca eta Warschburger, 2016; Schuck et al., 2018). Kanadako 8 eta 12 urte bitarteko adingabeekin aurrera eramandako azterketa batean, neskek mutilek baino puntuazio handiagoak lortu zituzten ChEAT galdetegian (Côté et al., 2020). Harrison et al.-en (2020) azterlanean bezala EATarekin; non parte-hartzaileen % 31k gutxienez elikagai-nahasmendu bat zuela adierazi zuten, ohikoenak betekadak izanik. Schuck et al.-en (2018) arabera, adingabeen % 25etik % 33ra gizen sentitzen ziren, pisuaren erruz haserre, jan ostean larrituta, modu murriztailean jaten zuten eta pisua kontrolatzeko ariketa fisikoa egiten zuten; eta, proportzio txikiagoan bada ere, gosariari uko egiten eta betekadak ere zitu zela adierazi zuten.

Beste azterlan batzuek ez dute desberdintasunik aurkitu bi sexuen artean (Bacopoulou et al., 2018; Elizathe et al., 2017, 2018; Hong et al., 2015). Evans et al.-en (2017) luzetarako azterketan, ez zen desberdintasunik aurkitu nesken eta mutilen artean, ez 9 urterekin, ezta 12 urterekin ere, eta Elizathe et al.-en (2017) azterlanean, ez zen alderik egon bi sexuen artean ChEATaren puntuazio osoan, ezta azpi-eskaletan ere. Horregatik, Ferreira et al.-ek (2012) sexuen arteko aldeak 13 urte inguruan sortzen direla adierazi zuten.

Bestalde, Al Sabbah et al.-en (2010) arabera, pisua kontrolatzeko muturreko jokabideak (okak, argaltzeko pilulak edo libragarriak) eta tabakismoa mutilen artean nesken artean baino ohikoagoak ziren. Izan ere, gehiegizko pisua zuten mutilen % 13,8k eta nesken % 3,5ek pisua kontrolatzeko tabakoa erabiltzen zuten.

Sexuari eta GMIari dagokienez, gehiegizko pisua duten neskek, mutilen aldean, elikadura-asaldurak izateko arrisku handiagoa dute (Jendrzyca eta Warschburger, 2016). Sepúlveda et al.-ek (2018), bestalde, ez zuten gehiegizko pisua zuten adingabeen arteko alderik aurkitu bi sexuen artean. Hala ere, Gibson et al.-en (2017) ikerlanean, gehiegizko pisua zuten neskek zein mutilek pisu normala zuten ikaskideek baino puntuazio altuagoak lortu zituzten. Gainera, pisu normala zuten neskek ere elikadura-nahasmenduen sintoma gehiago zituzten.

3.5.2. Adinaren arabeko desberdintasunak

Askotan, EJNak haurtzaroan edo nerabezaroan hasten diren nahasmendu kronikoak dira, eta helduarora arte luza daitezke (DeSocio eta Riley, 2021; Vannucci et al., 2014). Campbell-en eta Peebles-en (2014) arabera, joerek haur txikien artean elikadura-aldaketak

areagotzen ari direla erakusten dute. Yilmaz et al.-en (2019) luzetarako ikerketak erakutsi zuenaren arabera, EJA bat garatu zuten nerabeei (adibidez, bulimia-nerbioso eta betekada-asaldura) haurtzaroan GMIa batezbeste altuagoa izan zuten nahastea garatu ez zutenek baino. Gainera, GMIa 7 urtetik aurrera hasi zen nabarmenki aldentzen mutilengan eta askoz lehenago neskengan.

Beste ikerketa batzuek, adinean aurrera egin ahala, adingabeek ez zutela pisu-kontrolerik jokabiderik hartzen ikusi zuten (Al Sabbah et al., 2010; Ferreira et al., 2012; Pamies-Aubalat et al., 2011). Horrela, Evans et al.-ek (2017) ikusi zutenek, aldagai horretan puntuazioak nabarmen altuagoak izan ziren 9 urterekin 12 urterekin baino.

Beste azterlan batzuek, ordea, erakutsi dute elikadura-asaldurak adinarekin areagotu egiten direla (Westerberg-Jacobson et al., 2012) edo adinari dagokionez ez dagoela desberdintasunik (Hong et al., 2015; Jendryca eta Warschburger, 2016; Stice, 2016); horrek nahasmendu horiek 9 urtetik aurrerako bai mutilengan bai neskengan eragina dutela iradokitzen du (Elizathe et al., 2018).

Emaizta hauen arteko desadostasunak aplikatutako galdetegien eta aztertutako adin-tarteen desberdintasunen ondorio izan daitezke.

3.5.3. GMIaren arabeko desberdintasunak

Obesitatea eta elikadura-nahasmenduak dituzten adingabeek osasun fisikoko eta psikologikoko arazo larriagoak izateko joera handiagoa dute, eta, honek, biztanleria-talde zaugarria bihurtzen ditu (Hayes et al., 2018). Adingabe batzuek, EJNrik aurkeztu ez arren, elikadurarekin eta pisuarekin lotutako hainbat sintoma agertzen dituzte (Campbell eta Peebles, 2014; Evans et al., 2017). Nahiz eta EJNen arrisku-faktoreak ohikoagoak izan daitezkeen, obesitatea duten

adingabeengan pisu normala duten pareen aldean, faktore horiek ez dira nonahikoak (Braet et al., 2014; Jebeile et al., 2021; Stice, 2002).

Kategoria ponderalen arteko aldeei dagokienez, hainbat azterlanek adierazten dute gehiegizko pisua duten aurrenerabeek elikagai-asaldurak izateko arrisku handiagoa dutela (Côté et al., 2020; Harrison et al., 2020; Sepúlveda et al., 2020). Horrela, Côté et al.-en (2020) ikerketan, obesitatea zuten adingabeek gainpisua eta pisu normala zuten adingabeek baino elikadura-alterazio gehiagoren berri eman zuten, eta Harrison et al.-enean (2020) gehiegizko pisua zuten 11-19 urte bitarteko nerabeek libragarriak, diuretikoak eta argaltzeko pilula gehiago erabiltzen zituztela jakinarazi zuten. Ildo beretik, Pamies-Aubalat et al.-en (2011) ikerlanean, gehiegizko pisua zuten adingabe espainiarrek pisua kontrolatzeko jokabide gehiago erabiltzen zituzten (adibidez, dieta) pisu normala zuten adingabeek baino. Era berean, Al Sabbah et al.-en (2010) arabera, ehunekoak handiagoak izan ziren gehiegizko pisua zuten nesken artean.

Nahiz eta GMIa EJN baterako arrisku-faktoreetako bat dela esaten den, Bacopoulou et al.-ek (2018) ez zuten haien arteko loturarik aurkitu, eta elikadura-jokabide arriskutsuak pisu normala nahiz gehiegizko pisua duten adingabeek erabiltzen dituzten aurre egiteko mekanismoa dirudiela adierazi zuten.

11. taulan laburbilduta agertuko dira azpiatal honetako azterketen emaitzak. Urtea eta herrialdea, laginaren ezaugarriak eta horrekin lotutako faktoreak aipatuko dira. Ikus daitekeenez, azterlan batzuek ez dute bi sexuen arteko alderik aurkitu; beste batzuetan, berriz, neskek elikadura-alterazioak izateko arrisku handiagoa erakutsi dute. Adinari dagokionez ere, emaitzak ez dira eztabaidaezinak. Azterlan gutxitan neurtzen da haurtzaroan eta nerabezaroan elikadura-

alterazioak izateko arriskua. Gainera, jasotako azterlan batzuek aurrenerabegaroko datuak ez ezik, nerabezaro erdiko zein berantiarreko datuak ere erakusten dituzte.

GMIari dagokionez, ikerketek agerian utzi dute elikadura-alterazioak izateko arriskua handiagoa dela gehiegizko pisua duten adingabeen artean. Errealitatean, elikadura-asaldurak izateko probabilitatea handiagoa da, bai gehiegizko pisua duten adingabeen kasuan baita pisu urritasuna duten adingabeen kasuan ere. Elikagai-patroi desagokiak eta janariaren erabilera, egoera emozional negatiboak maneiatzeko, zein autoestimu hobea lortzeko, zein berdinen taldean hobeto egokitzeko, EJNak garatzeko arrisku-faktoreak dira.

3. KAPITULUA

11. taula. Haur eta nerabeen gainpisu eta obesitatearen eta elikadura-asaldurak izateko arriskuari buruzko ikerketak

Autorea, urtea eta Herrialdea	Laginaren ezaugarriak				Erlazionatutako faktoreak		
	N total	Nesken %	Adina	% GP	Sexua ¹	Adina ²	GMIa ³
Al Sabbah et al., 2010, Palestina	8885	% 51,1	12-18	% 15,2	G>E	↓	GP>PN
Bacopoulou et al., 2018, Grezia	90	% 73,3	11-18	% 44,4	E=G	-	GP=PN
Calderón et al., 2009, Espainia	297	% 55,2	11-17	% 94,6	-	-	GP>PN
Côté et al., 2020, Kanada	874	% 56	8-12	% 29,2	E>G	-	OB>PN
Danielsen et al., 2012, Noruega	4167	% 53	10-13	% 13,1	-	-	GP>PN
Elizathe et al., 2018, Argentina	100	% 37	9-13	% 100	E=G	=	-
Elizathe et al., 2017, Argentina	94	% 52,1	9-13	% 46,2	E=G	-	-
Evans et al., 2017, Erresuma Batua	516	% 50,7	11-13	-	E=G	↓	-
Gibson et al., 2017, Australia	212	% 51	8-13	% 46	-	-	GP>PN
Harrison et al., 2020, Jamaika	521	% 53,4	11-19	% 15,3	E>G	-	GP>PN
Hong et al., 2015, Korea	3227	% 47,6	10-24	-	E=G	=	-
Iannaccone et al., 2016, Italia	222	% 38,7	13-19	% 50	-	-	OB>PN
Jendrzyca et al., 2016, Alemania	1486	% 52	6-11	% 13,6	E>G	=	GP>PN

11. Taula. Haur eta nerabeen gainpisu eta obesitatearen eta elikadura-asaldurak izateko arriskuari buruzko ikerketak (*jarraipena*).

Autorea, urtea eta herrialdea	Laginaren ezaugarriak				Erlazionatutako faktoreak		
	N total	Nesken %	Adina	% GP	Sexua ¹	Adina ²	GMIa ³
Pamies-Aubalat et al., 2011, Espainia	2142	% 52,8	12-16	-	E=G	↓	GP>PN
Sepúlveda et al., 2020, Espainia	239	% 57,7	8-12	% 78,1	-	-	GP>PN
Sepúlveda et al., 2018, Espainia	170	% 50	8-12	% 100	=	=	-
Schuck et al., 2018, Alemania	1524	% 55,1	11-17	-	E>G	-	-

E: emakumea. G: gizona. PN: pisu normala. OB: obesitatea. GP: gehiegizko pisua. ¹E=G: ez dago desberdintasunik elikadura-asaldurarako arriskuan bi sexuen artean. G>E: gizonak emakumeek elikadura-asalduretarako arrisku handiagoa aurkezten dute. E>G: emakumeek gizonak baino elikadura-asalduretarako arrisku handiagoa aurkezten dute. ²↓: adinarekin elikadura-asalduretarako arriskua gutxiagotzen da, = ez da aldaketarik ematen. ³GP>PN: gehiegizko pisua duten adin txikikoek pisu normala dutenek baino elikadura-asalduretarako arrisku handiagoa aurkezten dute. GP=PN: ez dago desberdintasunik kategoria ponderalen artean. OB>PN: obesitatea duten adingabeek (eta ez gainpisua) pisu normala dutenek baino elikadura-asalduretarako arrisku handiagoa aurkezten dute.

4. KAPITULUA: ONDORIOAK

Gainpisuaren eta obesitatearen prebalentzia aurrenerabezaroon

OMEk gainpisua eta obesitatea honela definitzen ditu: “*gantz-metaketa anormala edo gehiegizko gantz-metaketa, osasunerako kaltegarria izan daitekeena*” eta obesitatea XXI. mendeko pandemia dela dio. Ebaluazio-metodoei dagokienez, adipositatearen zuzeneko eta zeharkako neurriak daude. Ikerketa honetan gainpisua eta obesitatea diagnostikatzeko OMEren GMIaren sailkapena erabili da, haurrengan gehien erabiltzen den metodoetako bat baita. Prebalentziari dagokionez, azken hamarkadetan gehiegizko pisuaren mailak gora egin du. Gure inguruan, lau adingabetik batek gehiegizko pisua du. Espainian, 2017. urteko azterketa berrienean, 2 eta 17 urte bitartekoan % 28,56ko prebalentzia aipatzen da, gainpisuaren % 18,26koa eta obesitatearen % 10,30ekoa. Kopuru horiek kezagarriak dira, transmititu ezin diren gaixotasunekin lotura zuzena dutelako, hala nola, diabetesa edo hipertentsioa, eta horiek ere adin goiztiarretan areagotzen ari dira. Gainpisuak eta obesitateak jatorri heterogeneoa eta multifaktoriala dute, eta hainbat faktorek eragiten dute: sexua, adina, elikadura, jarduera fisikoa, loa eta pantailak neurritz kanpo erabiltzea, besteak beste. Gehiegizko pisuaren prebalentzia handiak osasun-erronka suposatzen du, are gehiago adingabeengan, ondorengo adinetan erikortasun fisiko eta psikologikoak izateko arriskua baitago.

Gorputz-irudiaren alterazioak gainpisua eta obesitatea duten aurrenerabeengan

Kapitulu honetan gorputz-irudiaren konstruktua azaldu da. Irudikapen mental konplexu gisa definitzen da, eta hura osatzen duten hiru faktoreen arabera hauteman, esperimintatu edo senti daiteke.

Gorputz-irudiaren eraketa umetoki barnetik has daiteke. Lehenengo haurtzaroan, nerabezaroko lehen urteetara arte garatzen jarraitzen duen gorputz-eskema bat bereganatzen da. Nerabezaroan eskema hori barneratu egiten da eta ñabardura garrantzitsua hartzen du, pubertaroan sartzen delako eta maila fisikoan zein psikologikoan gertatzen diren aldaketa ebolutiboak gertatzen direlako. Gorputz-irudia osagai hautemangarrien (gorputzaren edo haren atalen tamainaren zehaztasuna edo zorroztasuna) eta subjektiboen (gorputz-tamainarekiko eta irudiarekiko sentimenduak) bidez ebalua daiteke. Era berean, gorputz-irudia distorsio baten edota gorputz-asegabetasunaren ondorioz asalda daiteke. GMiA gorputz-irudiarekin erlazionatuta dagoela ikusi da; izan ere, elkarri eragiten diote. Hala, adin goiztiarretik, gorputz-tamaina estimatzea zaila izan daiteke gehiegizko pisua duten adin txikikoek azpiestimaziora jotzen baitute, eta, gainera, gorputz-asegabetasun altu batera ere, eta horrek elikadura-asaldurak eta jokabide desegokiak izateko arriskua areagotzen du.

Aldagai emozionalak gainpisua eta obesitatea duten aurrenerabeengan

Azken urteotan, ikerketa obesitatearen korrelatu psikologikoak aztertzeraz bideratuta egon da, nahiz eta haurtzaroan ikerketa kopurua baxuagoa izan den eta emaitzek sendotasunik adierazi ez duten. Badirudi aurrenerabezaroko osasun psikologikoa garrantzia hartzen ari dela etorkizuneko garapenean erabakigarria izan daitekeelako. Hala, 8 eta 12 urte bitarteko haurren egoera psikologikoa aztertzeke bost aldagai emozional hautatu dira (antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia, autoestimua baxua, oldarkortasuna eta elikadura-asalduren arriskua). Kausazko harremana eztabaidagarria da, baina,

nolanahi ere, gehiegizko pisua duten adingabeen ongizate psikologikoa hobetzeko faktore horiek kontuan hartzea beharrezkoa da. Zehazki, badirudi adingabe hauek antsietate-sintomatologian, depresio-sintomatologian, oldarkortasunean eta elikadura-asalduren arriskuan maila altuagoak dituztela eta autoestimuan maila baxuagoak. Sexuari erreparatuz, badirudi ez dagoela desberdintasunik elikadura-asalduren arriskuan. Gainera, neskek antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia eta autoestimu-baxua maila altuagoak dituzte eta oldarkortasun-maila txikiagoak. Adinari dagokionez, handitu ahala antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia eta elikadura-asalduren arriskua gutxitu egiten direla esan daiteke, baita autoestimu-eta oldarkortasun-mailak ere handitzen direla.

Jarraian atal enpirikoan aurkezten den ikerketaren bidez, 8 eta 12 urte bitarteko adingabeengan gorputz-irudiarekin eta aspektu emozionalekin lotutako faktoreak aztertu nahi dira, adin horietan literatura zientifikoa mugatuagoa baita, 8-9 urtekoen artean batez ere. Era berean, aurkezten den ikerlana ez da datu antropometrikoetan soilik oinarritzen, aldagai emozionalak ere biltzen ditu, osasunaren psikologiatik bideratutako programak garatuz eta aplikatuz, etorkizunean gainpisua eta obesitatea duten aurrenerabeen ongizate fisiko eta psikologikoa ezagutzeko eta hobetzeko asmoz.

II. ATAL ENPIRIKOA

SARRERA

Doktoretza-tesi honen atal teorikoan adierazi den bezala, gainpisuari eta hurren obesitateari dagozkien aldagai psikologikoak elikadura-jarraibideak eta ariketa fisikoa bezalako aldagaiak baino gutxiago aztertu dira. Hala ere, ikuspegi aplikatutik, ezaugarri psiko-emozionalak eta gorputz-irudia hautemateko modua ezagutzea garrantzitsua da esku-hartze programak gara daitezen.

Helburu horiek kontuan hartuta, doktoretza-tesi honen zati enpirikoa lau kapituluetan egituratu da. Lehenengo kapituluan, ikerketa honen helburuak eta hipotesiak azalduko dira. Bigarren kapituluan, erabilitako metodoa aurkeztuko da, parte-hartzaileen ezaugarriak, erabilitako diseinu mota, ebaluazio tresnak, jarraitutako prozedura eta egindako analisi estatistikoak deskribatuko dira. Hirugarren kapituluan, egindako ikerketan lortutako emaitzak aurkeztuko dira, hiru azterlanetan banatuta: lehenengoan, aztertutako laginean gainpisuaren eta obesitatearen gaineko prebalentzia aztertuko da; bigarren ikerketan pisu normala, gainpisua eta obesitatea duten neska-mutileen arteko desberdintasunak aztertuko dira, gorputz-irudiarekiko pertzepzioan eta egogobetetzean; jarraian, hirugarren azterketan, aurrenerabeen egoera emozionala aztertuko da, sexuaren, adinaren eta kategoria ponderalen arabera. Amaitzeko, laugarren kapituluan ondorioak, ikerketaren mugak eta etorkizuneko ikerketa-ildoak aurkeztuko dira.

Aurrenerabezaroan gainpisuari eta obesitateari lotutako alderdi psikologikoak ezagutzea funtsezkoa da diziplina anitzeko taldeek osasun sarean ezarriko dituzten ebaluazio eta esku-hartze estrategiak diseinatu ahal ditzaten. Zehazki, obesitatea edo elikadura-nahasteak dituzten pertsona helduen etorkizuneko garapena eragotziko duten estrategiak.

1. KAPITULUA: HELBURUAK ETA HIPOTESIAK

1.1. Helburu nagusia

Ikerketa honen helburu nagusia gainpisuaren/obesitatearen eta aldagai soziodemografiko, psikologiko eta emozionalen arteko erlazioa aztertzea izan zen, Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko aurrenerabeengan.

Ikerketa honen helburu nagusiaren arabera, hipotesi global hau formulatu da:

“Gorputz-masaren indizeari dagokionez, gainpisua eta obesitatea duten 8-12 urte bitarteko aurrenerabeek emozio-oreka okerragoa izango dute pisu normala duten aurrenerabeen aldean; hau da, gorputz-distortsio eta -asegabetasun gehiago, antsietate-sintomatologia gehiago, depresio-sintomatologia gehiago, autoestimua baxuago, oldarkortasun handiagoa eta elikadura-portaeran asaldurak izateko arrisku gehiago”.

Helburu orokor hori beste 3 berariazko helburuetan banatu da, zati enpiriko honetan aurkeztuko diren 3 azterlan osatzen dituztenak.

1.2. Berariazko helburuak eta hauei lotutako hipotesiak

Ondoren, egindako azterlan bakoitzari lotutako helburuak eta hipotesiak zehaztuko dira.

1. azterlana. Azterlan honen helburua gehiegizko pisuak (gainpisua eta obesitatea) aurrenerabezaroan duen prebalentzia ezagutzea eta sexuaren eta adinaren desberdintasunak aztertzea da. Helburu horren arabera, hipotesi hauek planteatu dira:

1. KAPITULUA

1. 8-12 urte bitarteko aurrenerabeen % 30-40k gehiegizko pisua izango du (gainpisua eta obesitatea).
2. Gainpisuaren eta obesitatearen prebalentzia handiagoa izango da mutilengan neskegan baino.
3. Gehiegizko pisuaren prebalentzia adinarekin batera txikiagotu egingo da.

2. azterlana. Azterlan honen helburua gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileen gorputz-distortsioaren eta -asegabetasunaren mailak aztertzea da, pisu normala duten parte-hartzaileen aldean, sexua eta adinaren arabera. Helburu horri lotuta, hipotesi hauek planteatu dira:

4. Hautemandako gorputz-tamaina deskribatzeko, parte-hartzaileek ehuneko handiagoarekin hautatuko dituzte batezbesteko irudiak (3., 4. eta 5. irudiak), eta ez da alderik egongo sexuari eta adinari dagokienez.
5. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino bere gorputz-tamaina gehiago gutxietsiko dute.
6. Neskek bere gorputz-tamaina gainestimatu dute eta mutilek gutxietsi egingo dute, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
7. Gutxiespenagatiko gorputz-distortsioaren maila handiagoa izango da 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileen artean, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
8. Desiratutako gorputz-tamaina deskribatzeko, parte-hartzaileek ehuneko handiagoarekin hautatuko dituzte batezbesteko irudiak (3., 4. eta 5. irudiak). Neskek mutilek baino irudi argal

gehiago aukeratuko dituzte. Ez da alderik egongo kategoria ponderalari eta adinari dagokienez.

9. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino gorputz-tamaina txikiagoa izan nahi dutenez, gorputz-asegabetasun maila handiagoak adieraziko dituzte.
10. Neskek mutilek baino gorputz-tamaina txikiagoa izan nahi dutenez, gorputz-asegabetasun maila altuagoak adieraziko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
11. Gorputz-tamaina txikiagoa izan nahi dutenez, gorputz-asegabetasun maila baxuagoa izango da 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileen artean, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.

3. azterlana. Azterlan honen helburua izan zen aldagai psikologikoetan eta emozionaletan (antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia, autoestimua, oldarkortasuna eta elikadura-asalduren arriskua) dauden aldeak aztertzea, sexuaren eta adinaren arabeko kategoria ponderalen arabera (pisu normala, gainpisua eta obesitatea). Helburu horrekin lotuta, hipotesi hauek planteatu dira:

12. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino antsietate-sintomatologia maila altuagoak erakutsiko dituzte, eta hau sexuan eta adinean mantenduko da.
13. Neskek mutilek baino antsietate-sintomatologia maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.

14. 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileek baino antsietate-sintomatologia maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
15. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino depresio-sintomatologia maila altuagoak erakutsiko dituzte, eta hau sexuan eta adinean mantenduko da.
16. Neskek mutilek baino depresio-sintomatologia maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
17. 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileek baino depresio-sintomatologia maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
18. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino autoestimua maila baxuagoak erakutsiko dituzte, eta hau sexuan eta adinean mantenduko da.
19. Neskek mutilek baino autoestimua maila baxuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
20. 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileek baino autoestimua maila baxuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
21. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino oldarkortasun maila altuagoak erakutsiko dituzte, eta hau sexuan eta adinean mantenduko da.

22. Mutilek neskek baino oldarkortasun maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
23. 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileek baino oldarkortasun maila baxuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
24. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino elikadura-asaldurak pairatzeko arrisku maila altuagoak erakutsiko dituzte, eta hau sexuan eta adinean mantenduko da.
25. Ez da alderik egongo bi sexuen artean elikadura-asalduraren arriskuari dagokionez, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.
26. 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileek baino elikadura-asaldurak pairatzeko arrisku handiagoa erakutsiko dute, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.

2. KAPITULUA: METODOA

2.1. Parte-hartzaileak

Ikerketa hau PENSOI proiektuaren (Prebentzioa, Hezkuntza eta Nutrizioa Haurren Gainpisuan eta Obesitatean) baitan kokatzen da, 6 eta 12 urte bitarteko adingabeen gainpisua eta obesitatea prebenitzen saiatzen da, eta, beraz, hasiera batean, Debagoieneko (Gipuzkoa) adin tarte honetako ikasle guztiekin ezarri zen harremana ($n = 3250$). Doktore-tesiaren ardatza 8 eta 12 urte bitarteko ikasleak ebaluatzea denez, adin-tarte horretan ez zeuden adingabeak baztertu ziren, eta lagina 2331 aurrenerabekoa izan zen.


Ikerketa honetan parte hartzeko, onarpen-irizpide hauek zehaztu ziren:

- Ezaugarri antropometrikoen neurketa onartzea.
- Adimen-urritasunik edo galdetegiak betetzea eragozten duen bestelako desgaitasunik ez izatea.
- Proiektuan parte har zezaten adingabeen gurasoen edo tutoreen baimen informatua izatea.

Behin onarpen-irizpideak aplikatuta, 1937 adingabek osatu zuten azken lagina, hasierako laginaren % 83,10ek. 304 kasutan (% 13,04) gurasoek ez zuten beren seme-alabek ikerketan parte hartzeko baimenik eman, 18 adingabek (% 0,77) ez zuten onarpen-irizpideren bat bete eta ezin izan ziren 72 adingaberen neurri antropometrikoak hartu (% 3,09), neurketaren egunean ez zeudelako ikastetxean.

Ikerketa honen helburu orokorrari dagokionez, pisu urritasuna duten aurrenerabeak laginetik kanpo utzi ziren. Hala, bigarren azterlaneko gorputz-irudiaren aldaketak aztertzeko, lagina 1771 parte-

hartzailez osatu zen. Hirugarren azterlanean, lagina 1492 parte-hartzailek osatu zuten, aldagai emozionalen puntuazio guztiak zituzten subjektuak soilik hartu baitziren kontuan (ikus 7. irudia).




7. irudia. Parte-hartzaileak hautatzeko prozesua azaltzen duen fluxu-diagrama

2.1.1. Laginaren deskribapena sexuaren, adinaren eta ikasturte akademikoaren arabera

Laginaren guztizkotik ($n = 1937$), 926 (% 47,8) neskek ziren eta 1011 (% 52,2) mutilak. Adinari dagokionez, banaketa hau izan zen: 8 eta 9 urte bitarteko 763 parte-hartzaile (% 39,4) ($M = 8,66$, $DT = 0,47$) eta 10-12 urte bitarteko 1174 parte-hartzaile (% 60,6) ($M = 10,59$, $DT = 0,671$). 12. taulan sexuaren banaketa ezarritako adin-taldeen arabera azalduko da, eta 8. irudian adinaren banaketa sexuaren arabera.

12. taula. Sexu eta adinaren arabeko maiztasun eta portzentajeak

	Neskek		Mutilak	
	<i>N</i>	%	<i>N</i>	%
8 - 9 urte	385	50,5	378	49,5
10 - 12 urte	541	46,1	633	53,9



8. irudia Sexuaren arabeko adinaren banaketa

Ikasturte bakoitzeko banaketari dagokionez, 500 parte-hartzaile (% 25,8) Derrigorrezko Lehen Hezkuntzako hirugarren mailan zeuden, 520 (% 26,8) laugarren mailan, 473 (% 24,4) bosgarren mailan eta 444 (% 22,9) seigarren mailan.

Ikerketan, Debagoieneko (Gipuzkoa) ikastetxe guztiak parte hartu zuten ($n = 16$). Horrela, ikastetxe publiko eta itunpeko guztiak sartuz, parte-hartzaileen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren

araberako banaketa zuzena eta orekatua lortu zen. Ikastetxe motari dagokionez, 895 ikaslek (% 46,2) ikastetxe publiko batean ikasten zuten, eta 1042k (% 53,8) itunpeko ikastetxe batean. Ikerketa honetan parte hartu zuten ikastetxeak [A eranskin](#)ean zehaztu dira.

2.2. Diseinua

Ikerketa honetan erabilitako diseinua deskribatzailea eta konparatiboa da. Era berean, adin desberdinetako aurreenerabeen datuak bildu baziren ere, datu horiek aldi bakar batean jaso ziren; beraz, zeharkako diseinua da.

2.3. Ebaluazio-tresnak

Jarraian, azterlanaren xede diren aldagaiak ebaluatzeko ikerketan erabilitako ebaluazio-tresnak deskribatuko dira. Espainiako laginekin baliozkotutako tresna laburrak aukeratu ziren. Halaber, guztiek fidagarritasun eta baliozkotasun psikometriko egokiak dituzte.

Aztertutako aldagaiak eta erabilitako ebaluazio-tresnak 13. taulan erakutsiko dira. Tresna bakoitzaren deskribapena, aplikazio-, zuzenketa- eta interpretazio-arauak eta proba babesten duten propietate psikometrikoak azalduko dira.

13. taula. Ebaluazio-tresnak

Ebaluazio-tresna	Aztertutako aldagaiak	Item kopurua	Eskala	Fidagarritasuna (Cronbach-en α)
Aldagai antropometrikoak				
Kern MFB digitala 1.0	Pisua		Kilogramoak	
Seca Bodymeter	Altuera		Zentimetroak	
Aldagai psikologikoak				
Gorputz-irudiaren ebaluazioa (BIA; de Gracia et al., 2007)	Gorputz-distortsioa Gorputz-asegabetasuna	2	Oso argaletik obesitatera doazen gorputz-tamaina ezberdinetako 7 figurako eskala behagarria	
Haurtzaroko nahasmendu emozionalekin lotutako antsietatearen screening froga (SCARED; Vigil-Colet et al., 2009)	Antsietate-sintomatologia	41	Likert: 0tik (Ia inoiz) 2ra (Askotan)	0,84
Haurtzaroko Depresioaren froga (CDI; Barrio eta Carrasco, 2004)	Depresio-sintomatologia	27	Likert: 0tik (intentsitate edo maiztasun baxuena) 2ra (intentsitate edo maiztasun altuagoa)	0,76
Haurtzaroko elikadurarekiko jarrerren testa (ChEAT; de Gracia et al., 2007)	Elikadura-asalduretarako arriskua	26	Likert: 0tik (Inoiz) 4ra (Beti)	0,80
Nortasun aldagaiak				
Lawrence-ren autoestimua galdetegia (LAWSEQ; de Gracia et al., 2007)	Autoestimua	16	Dikotomikoa: Bai-Ez	0,69
Barratt-en haurren oldarkortasunaren eskala (BIS-11c; Cosi et al., 2008)	Oldarkortasuna	26	Likert: 0tik (Inoiz/ia inoiz) 3ra (Beti/ia beti)	0,58

Gorputzaren pisua, altuera eta GMiA

Tresnen deskribapena

- Pisu digitala: Kern MFB digitala 1.0; tartea: 0,1-150 kg, doitasuna: 100 g.
- Estadiometroa: seca Bodymeter 206; 0-220 cm-ko tartea, 1 mm-ko zehaztasuna.

Aplikazio- eta interpretazio-arauak

Lehenik eta behin, pisaketa zapatarik gabe eta arropa arinarekin egin zen, balantzaren erdian jarrita, eta lurra ukitzen edo aztertzaileei heltzen ari ez zirela egiaztatuta. Datuak horretarako prestatutako orri batean erregistratu ziren.

Ondoren, subjektuaren altuera neurtu zen. Subjektua estadiometroari bizkarra emanda jartzen zen. Neurketa hori egiteko, pertsonak estadiometroarekiko bizkarrezurra zuzen eta bertikalki jarrita izatea, eta pisua bi oinetan banatuta egotea beharrezkoa zen. Hankek zuzen eta orpoek elkarrekin egon behar zuten, 60 gradu inguruko angelua osatuz. Orpoek, ipurmasailek eta eskapulek hormarekiko bertikal paralelo bat osatu behar zuten. Buruak, Frankfurteko plano horizontalean egon behar zuen, hau da, orbitaren beheko muturrak eta kanpoko entzumen hodiaren goiko ertzak, lurrarekiko paraleloa zen irudimenezko lerro bat marraztu behar zuten. Ileko objektuak, hala nola; mototsak, txirikordak, kendu edo birkokatu egin behar ziren, neurri estu bat lortzeko. Behin neurria hartuta, emaitza erregistro-orrian jaso zen.

GMiA pisua (kilogramotan adierazita) altueraren karratuarekin (metroan adierazita) zatitzearen emaitza gisa lortu zen.

Azterlan honetan, haurtzaroko neurtutako aldagaiak zehazteko (pisu urritasuna, pisu normala, gainpisua eta obesitatea), OMEk egindako taula estandarizatuen ebaketa-puntuak erabili ziren (de Onis et al., 2007). Taula horiek sexua eta adina kontuan hartuta GMiA sailkatzen dute, eta 5 eta 19 urte bitarteko haurrei ezartzen zaizkie. OMEren irizpideen arabera, pisu urritasuna mediana baino desbideratze tipiko bat edo gutxiago duen GMI balioan ezartzen da. Pisu normala medianatik desbideratze tipiko bat azpitik eta gainetik desbideratze tipiko bat baino gutxiago duen GMI balioan ezartzen da. Gainpisua medianatik gorako desbideratze tipiko bat eta bi baino gutxiago duen GMI balioan ezartzen da; eta obesitatea medianatik gorako desbideratze tipikoak 2 edo gehiago duen GMI balioan (ikus 14. taula). OMEren sailkapena hautatu da, Bergel et al.-en (2014) ustez, sailkapen honek banakoak beren nutrizio-egoeraren arabera identifikatzeko unean irizpide prebentiboagoa duelako.

14. taula. OMEren araberako GMiaren sailkapena

Neurtutako aldagaia	Balioak
Pisu urritasuna	$< -1 DT^*$
Pisu normala	$\geq -1 DT\text{-tik} < +1 DT\text{-ra}$
Gainpisua	$\geq +1 DT\text{-tik} < +2 DT\text{-ra}$
Obesitatea	$\geq +2 DT$

* *DT* = desbideratze tipikoa.

Gorputz-irudiaren ebaluazioa (BIA)

Erreferentzia: Collins, M. E. (1991). Body figure perceptions and preferences among preadolescent children. *International Journal of Eating Disorders*, 10, 199–208. [https://doi.org/10.1002/1098-108X\(199103\)10:2<199::AID-EAT2260100209>3.0.CO;2-D](https://doi.org/10.1002/1098-108X(199103)10:2<199::AID-EAT2260100209>3.0.CO;2-D)

Bertsio espainiarra: de Gracia et al., 2007.

Ebaluatzen du: gorputz-distortsioa eta -asegabetasuna.

Aplikazio adina: 8-12 urte.

Item kopurua: 2.

Aplikazio bidea: auto-aplikazioa.

Deskribapena

Ikusizko eskala da, non bi sexuetako eta gorputz-tamaina desberdinetako 7 haur agertzen diren bereizita, figura oso mehe baten irudikapenetik obesitatea duen irudi bateraino. Puntuazioen tartea 1 (argaltasuna) eta 7 (obesitatea) bitartekoa da.

Aplikazio-, zuzentze- eta interpretazio-arauak

Ikerketa honetan, tresna osatzen duten 5 itemetatik 2 erabili ziren hautemandako gorputz-tamaina eta desiratutako gorputz-tamaina baloratzeko. Zehazki, 7 figuretako bat aukeratuta, subjektuei bi galderari erantzuteko eskatu zitzaien:

1. *Zein irudia da zure antza gehien duena? (Hautemandako gorputz-tamaina).*
2. *Zeinen antza gustatuko litzazuke izatea? (Desiratutako gorputz-tamaina).*

Tresna hau gorputz-distortsioa eta -asegabetasuna aztertzeko erabili zen, BIARI esker bi indize lor baitaitezke: bata, benetako gorputz-tamainari esleitutako irudiaren eta subjektuak hautemandako gorputz-tamainaren arteko aldea lortzeko (gorputz-distortsioa); eta

bestea, hautemandako gorputz-tamainaren eta desiratutako gorputz-tamainaren arteko aldea lortzeko (gorputz-asegabetasuna).

Parte-hartzaileen kategoria ponderalaren eta BIAN agertzen diren figurak bat etortzeko, irudiei honako kategoria ponderalak esleitu zitzaizkien (ikus 15. taula).

15. taula. GMIaren arabera irudien sailkapena

	Zenbakia	Neurtutako aldagaia	Izendapena	
	1, 2	Pisu urritasuna (< -1 DT)	Mehea	
	3, 4, 5	Pisu normala (≥ -1 -tik < +1 DT-ra)	Batezbestekoa	
	6	Gainpisua ($\geq +1$ -tik < +2 DT-ra)	Batezbestekoa baina handiagoa	
	7	Obesitatea ($\geq +2$ DT)	Handia	

Gorputz-distortsioa lortzeko, “Zein irudia da zure antza gehien duena?” galderari erantzuteko aurrenerabeak hautatutako figuraren (hautemandako gorputz-tamaina) eta haren kategoria ponderalari zegokion irudiaren (benetako gorputz-tamaina) arteko aldea erabili zen.



2. KAPITULUA

Balio positiboek gorputz-tamainaren *gainestimazioagatik distortsioa* adierazten zuten eta balio negatiboek, berriz, *gutxiesteagatik*. Desadostasunak honela sailkatu ziren:

≥ -2	Gorputz-tamainaren gutxiespen garrantzitsuagatik distortsioa	Gorputz-tamaina benetan zena baino askoz ere meheagoa zenaren pertzepzioa
-1	Gorputz-tamainaren gutxiespenagatik distortsioa	Gorputz-tamaina benetan zena baino meheagoa zenaren pertzepzioa
0	Ez dago distortsiorik	Ez zegoen ezberdintasunik hautemandako tamainaren eta benetako tamainaren artean
+1	Gorputz tamainaren gainestimazioagatik distortsioa	Gorputz-tamaina benetan zena baino handiagoa zenaren pertzepzioa

Parte-hartzaile bakoitzaren *gorputz-asegabetasuna* aztertzeko, “*Zeinen antza gustatuko litzaizuke izatea?*” (hautemandako gorputz-tamaina) galderari erantzuteko aurrenerabeak aukeratutako irudiaren eta “*Zein irudia da zure antza gehien duena?*” (desiratutako gorputz-tamaina) galderari erantzuteko aukeratutako irudiaren arteko aldea erabili zen.



Balio positiboek gorputz-tamaina txikiagoa izan nahi izateagatik *gorputz-asegabetasuna* adierazten dute, eta balio negatiboek, berriz, gorputz-tamaina handiagoa nahi izateagatik. Desadostasunak honela sailkatu ziren:

≥ -2	Subjektuak hautemandakoa baino gorputz-tamaina askoz handiagoa izan nahi zuen	Desiratutako gorputz-tamaina hautemandako gorputz-tamaina baino bi irudi talde handiagoa edo gehiago izan zen
-1	Subjektuak gorputz-tamaina handiagoa izan nahi zuen	Desiratutako gorputz-tamaina hautemandako gorputz-tamaina baino irudi bat handiagoa izan zen
0	Subjektuak gorputz-tamaina bera izan nahi zuen	Ez zegoen ezberdintasunik hautemandako gorputz-tamainaren eta desiratutakoaren artean
+1	Subjektuak gorputz-tamaina txikiagoa izatea nahi zuen	Desiratutako gorputz-tamaina hautemandako gorputz-tamaina baino irudi bat txikiagoa izan zen
$+2 \leq$	Subjektuak gorputz-tamaina askoz txikiagoa izan nahi zuen	Desiratutako gorputz-tamaina hautemandako gorputz-tamaina baino bi irudi talde txikiagoa edo gehiago izan zen

Ezaugarri psikometrikoak

Collins-en (1991) jatorrizko lanean lortutako item-irizpide korrelazio-koefizienteak honako hauek izan ziren: hautemandako irudiaren eta pisuaren artean aurkitutako korrelazioa $r= 0,36$ izan zen, eta hautemandako irudiaren eta GMIaren artean aurkitutakoa $r= 0,37$. BIA eskalaren Espainiako egokitzapenean lortutako emaitzak hautemandako irudiaren kanpo-baliozkotasunera mugatzen dira, bi irizpide-aldagaiari dagokienez: pisua eta GMIa (Marcó et al., 2004). Egokitzapen horretan, egileek 0,60ko korrelazio-koefizientea lortu zuten hautemandako irudiaren eta pisuaren artean, eta 0,66koa hautemandako irudiaren eta GMIaren artean. Lan honetan, hautemandako irudiaren eta pisuaren arteko korrelazioa 0,54 izan zen, eta hautemandako irudiaren eta GMIaren arteko korrelazioa 0,58.

Haurtzaroko asaldura emozionalekin lotutako antsietatearen screening froga (SCARED)

Erreferentzia: Birmaher, B., Khetarpal, S., Brent, D., Cully, M., Balach, L. eta Kaufman, J. (1997). The Screen for Child Anxiety Related Emotional Disorders (SCARED): Scale construction and psychometric properties. *Journal of the American Academy of Child and Adolescent Psychiatry*, 36(4), 545–553. <https://doi.org/10.1097/00004583-199704000-00018>.

Bertsio espainiarra: Vigil-Colet et al. (2009).

Ebaluatzen du: antsietate-sintomatologia.

Aplikazio adina: 8-18 urte.

Item kantitatea: 41.

Aplikazio bidea: auto-aplikazioa.

Deskribapena

SCARED galdetegiak 8 eta 18 urte bitarteko haur eta nerabeengan antsietatearen sintomak ebaluatzen ditu. Eskala 41 itemek osatzen dute, 3 erantzun-aukerarekin: 0 (inoiz ez edo oso gutxitan), 1 (batzuetan), 2 (ia beti edo beti).

SCARED-ak 4 faktoreri buruzko informazioa ematen du:

- Somatikoa/panikoa: 1, 6, 12, 15, 18, 19, 22, 24, 27, 34, 36 eta 38 itemak.
- Antsietate orokorra: 5, 14, 21, 23, 28, 31, 33, 35 eta 37 itemak.
- Banaketa antsietatea: 2, 4, 7, 8, 9, 11, 13, 16, 17, 20, 25, 29 eta 30 itemak.
- Fobia soziala: 3, 10, 26, 32, 39, 40 eta 41 itemak.

Aplikazio-, zuzenketa- eta interpretazio-arauak

Subjektuak azken hiru hilabeteetan gertatu zaionari edo sentitu denari gehien egokitzen zaion erantzuna aukeratu behar du. Galdetegiak puntuazio osoa ematen du, item bakoitzeko puntuazioen batura, alegia.

Eskala osoan, 25 puntu edo gehiago lortuz gero, antsietate-asalduraren bat dagoela adieraz daiteke. Era berean, faktore bakoitzerako puntuazioak lor daitezke. Espainiako biztanleria ez-klinikoarentzat Canals et al.-ek (2012) honako ebaketa-puntu hauek ezarri zituzten: 6ko puntuazioa faktore somatikoan/izuan, 7ko puntuazioa antsietate orokorraren faktorean, 10eko puntuazioa banaketa antsietatearen faktorean eta 6ko puntuazioa fobia sozialaren faktorean. Ikerketa honetan eskala osoaren eta azpi-eskalen zuzeneko puntuazioarekin lan egin da; zenbat eta puntuazio handiagoa, orduan eta antsietate-sintomatologia handiagoa.

Ezaugarri psikometrikoak

SCARED-aren Espainiako egokitzapenean (Vigil-Colet et al., 2009), bai puntuazio globalak bai faktore bakoitzaren puntuazioek barne-sendotasun ona erakutsi zuten (Cronbach-en α 0,69tik 0,86ra).

Lan honetan, eskala osorako Cronbach-en α koefizientea 0,84 da. Lau faktoreen kasuan, koefizienteak honako hauek dira: 0,71 antsietate somatikoarentzat, 0,56 antsietate orokorrarentzat, 0,66 banaketa antsietatearentzat eta 0,69 fobia sozialarentzat.

Haurren depresioaren froga (CDI)

Erreferentzia: Kovacs, M. (1992). *Children's Depression Inventory*. Multi-Health Systems, Inc.

Bertsio espainiarra: del Barrio eta Carrasco (2004).

Ebaluatzen du: depresio-sintomatologia.

Aplikazio adina: 7-15 urte.

Item kopurua: 27.

Aplikazio bidea: auto-aplikazioa.

Deskribapena

CDI-k 27 item ditu eta horien bidez 7 eta 15 urte bitarteko haurren depresio-sintomatologia ebaluatzen da. Item bakoitza sintomen intentsitate edo maiztasun desberdina adierazten duten 3 esaldiz osatuta dago.

Galdetegi honek bi eskala ditu:

- Disforia (umore depresiboa, tristura, kezka): 1, 4, 5, 7, 8, 9, 10, 12, 16, 17, 18, 20, 21, 22, 25 eta 27 itemak.
- Autoestimua negatiboa (eraginkortasunik ezaren, itsusitasunaren, gaiztakeriaren judizioak): 2, 3, 6, 11, 13, 14, 15, 19, 23, 24 eta 26 itemak.

Zalantzarik gabe, haurren depresioaren aditu guztiek gehien erabiltzen duten eta hobekien onartzen duten tresnetako bat da.

Aplikazio-, zuzenketa- eta interpretazio-arauak

Subjektuak item bakoitza osatzen duten hiru esaldietatik azken bi asteetan bere sentimenduak edo ideiak hobekien deskribatzen dituenak aukeratu behar du. Item bakoitzak hiru erantzun-aukera ditu:

- 0 (sintomatologiarik eza)
- 1 (sintomatologia arina)
- 2 (sintomatologia larria)

Eskalak guztizko puntuazioa ematen du, item bakoitzari emandako puntuazioen batura. Halaber, eskala bakoitzerako puntuazioak lor daitezke (disforia eta autoestimua negatiboa). Biztanleria deprimitua eta ez deprimitua bereizteko kalkulaturako ebaketa-puntua 19 izan zen, % 94ko sentikortasunarekin eta % 95eko espezifikotasunarekin (Figueras et al., 2010). Ikerketa honetan, eskala

osoaren eta azpi-eskalen zuzeneko puntuazioarekin lan egin da. Zenbat eta puntuazio altuagoa, orduan eta depresio-sintomatologia handiagoa, disforia handiagoa eta autoestimua baxuagoa.

Ezaugarri psikometrikoak

CDI-aren Espainiako egokitzapenean (del Barrio eta Carrasco, 2004), Cronbach-en α metodoaren bidez lortutako fidagarritasuna 0,80koa izan zen, bi erdien metodoaren bidez lortutakoa 0,79koa, eta test-retest fidagarritasuna 0,38koa. Lan honetan, guztizko eskalarako Cronbach-en α koefizientea 0,76 izan zen. Disforia-eskalan, Cronbach-en α eskala 0,62 izan zen, eta autoestimua negatiboko eskalan, 0,64.

Lawrence-en autoestimua galdetegia (LAWSEQ)

Erreferentzia: Lawrence, D. (1981). The development of a self-esteem questionnaire. *British Journal of Educational Psychology*, 51, 245–251.

Bertsio espainiarra: de Gracia et al. (2007).

Ebaluatzen du: autoestimua haurrengan.

Aplikazio adina: 6-16 urte.

Item zenbakia: 16.

Aplikazio bidea: auto-aplikazioa.

Deskribapena

Eskala honek 6-16 urte bitarteko adingabeen autoestimua orokorra neurtzen du 16 itemen bidez, horietatik 4 distraigarri. Item bakoitzak bi erantzun-aukera ditu: 0 (ez) eta 2 (bai). LAWSEQk subjektuak bere balioaz eta kontsiderazio pertsonalaz duen pertzepzioa balioesten du.

Aplikazio-, zuzenketa- eta interpretazio-arauak

Subjektuak item bakoitzari erantzun behar zion "bai" edo "ez" aukera markatuz. 4., 7., 9. eta 12. itemak distraigarriak dira, eta guztizko puntuaziotik kanpo geratzen dira. Negatiboki erantzundako item bakoitzean 2 puntu eman ziren, eta baiezko erantzunetan, berriz, 0 puntu, lehenengo itemean izan ezik, alderantzizkoa baita. Galdeketaren puntuazio-tartea 0tik 24ra bitartekoa da, eta autoestimu handiagoari puntuazio handiagoa dagokio.

Ezaugarri psikometrikoak

Jatorrizko azterlanean (Lawrence, 1981) eskalaren barne-fidagarritasuna Cronbach-en α 0,76koa izan zen, ondoren Hart-ek (1985) berretsi zuen, test-retest korrelazioa $r=0,64$ tik lau hilabetera eta Coopersmith Self-Esteem Inventory-rekin bat datorren baliozkotasun onargarri bat ($r=0,73$). LAWSEQ delakoaren Espainiako egokitzapenak barne-fidagarritasun onargarria aurkeztu zuen, 0,67ko Cronbach-en α batekin eta elkarren arteko $r=0,61$ eta $r=0,69$ item-gutzizko korrelazioarekin (de Gracia et al., 2007). Lan honetan Cronbach-en α 0,69koa izan zen.

Barratt-en oldarkortasun eskala haurrentzat (BIS-11c)

Erreferentzia: Patton, J. H., Stanford, M. S. eta Barratt, E. S. (1995). Factor structure of the Barratt impulsiveness scale. *Journal of Clinical Psychology*, 51, 768–774.

Bertsio espainiarra: Cosi et al. (2008).

Ebaluatzen du: oldarkortasuna.

Aplikazio adina: 8-12 urte.

Item kantitatea: 26.

Aplikazio bidea: auto-aplikazioa.

Deskribapena

BIS-11c eskala oldarkortasuna ebaluatzeko diseinatutako autotxosten-tresna da. 26 item ditu, lau puntuko erantzun-formatuarekin (inoiz ez/oso gutxitan, batzuetan, askotan, beti/ia beti). BIS-11c oldarkortasun 3 azpi-eskalaz osatuta dago:

- Oldarkortasun motorra (OM) (pentsatu gabe jarduteko joera): 3, 4, 6, 9 eta 14 itemak.
- Oldarkortasun ez-planifikatua (OEP) (etorkizuneko plangintzarik eza): 1, 7, 10, 11, 12, 19, 22 eta 26 itemak.
- Oldarkortasun kognitiboa (OK): 2, 5, 8, 13, 15, 16, 17, 18, 20, 21, 23, 24 eta 25 itemak.

Aplikazio-, zuzenketa- eta interpretazio-arauak

Subjektuak bere izateko edo pentsatzeko ohiko erara gehien hurbiltzen den erantzun-aukera aukeratu behar du. Item bakoitzak 4 erantzun-aukera ditu, 0 (*inoiz ez/oso gutxitan*), 1 (*batzuetan*), 2 (*askotan*) eta 3 (*beti/ia beti*) balioekin puntuatzen direnak. Oldarkortasun ez-planifikatuaren azpi-eskalako itemek alderantzizko puntuazioa dute.

Azpi-eskala bakoitzeko puntuazioa lortzeko, item bakoitzean lortutako puntuazio partzialak batu behar dira. Guztizko puntuazioa lortzeko, item guztietan lortutako puntuazioak batu behar dira. Zenbat eta puntuazio handiagoa, orduan eta oldarkortasun handiagoa.

Ez dago galdesorta honetarako ezarritako ebaketa-punturik. Così et al.-en (2008) balidazio-artikuluaren, batezbesteko puntuazio hauek lortu zituzten: guztizkoa ($M = 28,56$, $DT = 8,65$), motorra ($M = 11,46$, $DT = 7,11$), ez-planifikatua ($M = 12,44$, $DT = 4,91$) eta kognitiboa ($M = 4,66$, $DT = 2,21$).

Ezaugarri psikometrikoak

BIS-11c-aren Espainiako egokitzapenean (Cosi et al., 2008), Cronbach-en α koefizientea 0,76 izan zen eskala osorako, eta azpi-eskalen koefizienteak hauek izan ziren: OM: $\alpha = 0,82$; OEP: $\alpha = 0,71$; OK: $\alpha = 0,60$. Lan honetan eskala osorako 0,58ko fidagarritasun-indizea lortu zen. Azpi-eskaletan honako fidagarritasun-indize hauek lortu ziren: OM: $\alpha = 0,67$; OEP: $\alpha = 0,73$; eta OK: $\alpha = 0,72$.

Haurtzaroko elikagaienganako jarreraren testa (ChEAT)

Erreferentzia: Maloney, M. J., McGuire, J. B. eta Daniels, S. R. (1988). Reliability testing of a children's version of the Eating Attitude Test. *Journal of the American Academy of Child and Adolescent Psychiatry*, 27(5), 541–543.

<https://doi.org/10.1097/00004583-198809000-00004>

Bertsio espainiarra: de Gracia et al. (2007).

Ebaluatzen du: elikadura-asaldurarako arriskua elikagaienganako jarreraren, dieta jokaeren eta elikadurarekiko kezka bitartez.

Aplikazio adina: 8-13 urte.

Item kantitatea: 26.

Aplikazio bidea: auto-aplikazioa.

Deskribapena

ChEAT elikadurarako jarrera testaren (*Eating Attitudes Test*, EAT-40, Garner eta Garfinkel, 1979) haurtzaroko egokitzapena da. 26 item ditu, elikadura-jarreraren, dieta-jokabideen eta haurtzaroko dietarekiko kezka bidez elikadura-alterazioak izateko arriskua ebaluatzen du.

Itemak hiru faktoretan taldekatzen dira:

Gutxiespena mekanismo egokitzaille bat izan daiteke, obesitatearen ondorio psikosozial negatiboetatik norbera babestea ahalbidetzen duena (Armstrong et al., 2014). Ideia honi jarraiki, hainbat ikerketek erakutsi dute gainpisua eta obesitatea duten eta beren tamaina modu zehatzagoan hautematen duten gazteek gainpisua ez duten horien aldean ziur aski deprimituago daudela (Gray et al., 2012) eta estres psikologiko gehiagoren berri ematen dutela (Xie et al., 2011). Halaber, gorputz-tamainaren gutxiespenak bizitza estilo osasuntsu baten sustapena zaildu dezake (Cattelino et al., 2015) eta gainestimazioak jateko ohitura murriztatzailleetara bultzatu dezake (Liechty, 2010). Honek, adingabeek beren gorputz-tamaina hautematen duten moduak, benetako gorputz-tamainak baino gehiago eragin dezakeela iradokitzen du, bai beren ongizate fisikoan nahiz psikologikoan (López et al., 2018). Ondorioz, autopertzepzio zehatzago batek osasunaren babes faktore moduan funtziona dezake (Mann et al., 2004).

<p>8. HIPOTESIA. Desiratutako gorputz-tamaina deskribatzeko, parte-hartzaileek ehuneko handiagoarekin hautatuko dituzte batezbesteko irudiak (3., 4. eta 5. irudiak). Neskek mutilek baino irudi argal gehiago aukeratu dituzte. Ez da alderik egongo kategorian ponderalari eta adinari dagokienez.</p>	<p>Partzialki baieztatzen da</p>
---	---

Emaitzek adierazi zuten parte-hartzaileen % 98,1ek batezbesteko irudiak aukeratu zituela beren desiratutako gorputz-tamaina deskribatzeko, % 7,9k irudi argalagoak aukeratu zituen eta soilik % 0,1ek irudi handiagoak desiratu zituen. Sexuari eta kategorian ponderalari dagokienez, ez zen irudien hautaketan desberdintasun esanguratsurik aurkitu. Bi adin tarteetako taldeetan, aldiz, desberdintasunak aurkitu ziren, izan ere, 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek, 10-12 urte bitartekoen aldean, irudi argalago eta batezbesteko irudi gutxiago aukeratu zituzten. Hau pisu normala eta gainpisua zuten 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileengan 10-12 urte bitartekoen aldean ere gertatu zen, baina ez obesitatea zuten parte-hartzaileengan. Datu hauek **8. hipotesia partzialki baieztatzea** ahalbideratzen dute.

Irudien hautaketari dagokionez, beste ikerketetako emaitzak gure antzekoak dira. Adibidez, Knowles et al.-en (2014) eta Ling et al.-en (2015) ikerketetan, 6 eta 13 urte bitarteko adingabeen % 98k baino gehiagok beren desiratutako gorputz-tamaina adierazteko 1etik 4rako irudiak hautatu zituen. Halaber, adingabe batzuk 2 eta 3ak irudi idealtzat hautatzen dituzte (Sánchez eta Ruiz, 2015) eta praktikoki inork ez zituen irudi handiagoak hautatu desiragarri moduan (López et al.,

2018), honek aurrenerabeengan jada obesitatearen ideiek duten pisua seinalatuz.

<p>9. HIPOTESIA. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino gorputz-tamaina txikiagoa izan nahi dutenez, gorputz-asegabetasun maila handiagoak adieraziko dituzte.</p>	<p>Baieztatzen da</p>
--	------------------------------

Emaitzek adierazi zuten pisu normala zuten parte-hartzaileen % 23,2k, gainpisua zuten parte-hartzaileen % 64,9k eta obesitatea zuten parte-hartzaileen % 78,1ek gorputz-asegabetasuna adierazi zutela. Emaitza hauek **9. hipotesia baieztatzea** ahalbidetzen dute, izan ere, gainpisua eta obesitatea zuten parte-hartzaile gehiagok gorputz-tamaina txikiagoa izan nahi zuten, pisu normala zuten parte-hartzaileen aldean. Beraz, GMIa zenbat eta handiagoa izan, orduan eta gorputz-asegabetasun handiago izango dela ondoriozta dezakegu.

Gure azterlanean, laginaren % 7,9k irudi argala izatea desiratzen zuen (1 eta 2) eta desira hau nabarmenagoa zen GMI altuagoa zuten adingabeengan, hauek beren gorputz-irudiarekin ase gabeago egoteko joera dute (Côté et al., 2020; Leppers et al., 2017). Desira hau positiboa izan daiteke, gehiegizko pisua duten adingabeek irudi argalagoa desiratzen badute, pisu osasuntsuagoa lortzeko saiakerak egingo dituzte (Daraganova, 2013), beti ere, pisua galtzeko saiakera hauek gainbegiratuta eginez gero, dieta gauzatzea anorexia eta bulimia nerbiosoa bezalako elikadura-nahaste bat garatzeko arrisku aldagaietako bat izan daitekeelako.

<p>10. HIPOTESIA. Neskek mutilek baino gorputz-tamaina txikiagoa izan nahi dutenez, gorputz-asegabetasun maila altuagoak adieraziko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Partzialki baieztatzen da</p>
---	---

Sexuaren araberako emaitzek gorputz-asegabetasunean desberdintasun esanguratsuak adierazi zituzten. Neskek gorputz-tamaina txikiagoa desiratzearen gorputz-asegabetasun maila altuagoak adierazi zituzten eta mutilek, gorputz-tamaina handiagoa nahi izateagatik gorputz-asegabetasuna adierazi zuten. Kategoria ponderalari dagokionez, pisu normalaren emaitzak lagin osoarenaren antzekoak dira. Gainpisua zuten mutilek, nesken aldean, gorputz-asegabetasuna agertu zuten irudi handiagoak desiratzegatik. Obesitatea zuten parte-hartzaileengan ez zen bi sexuen araberako desberdintasunik aurkitu. Emaitzek **10. hipotesia partzialki baieztatzea** baimentzen dute.

Orokorrean, neskek irudi argalagoak desiratzen dituzte (Dion et al., 2016; Guadarrama-Guadarrama et al., 2018; Ling et al., 2015). Honela, nesken zatitzailearen araua dela baieztatu daiteke, sexu femeninoarentzat aipatzen den arau-mailako ondorez berretsiz (Phares et al., 2004; Rodin et al., 1984). Honela, Greenleaf et al.-en (2004) arabera, baliteke neskek hautemandako irudi argalagoak aukeratzea, ez soilik gorputz-asegabetasun posiblearengatik, baizik eta irudiak berak gogora ekartzen duen esanahi propioarengatik ere.

Mutilek, bere aldetik, irudi argalagoak edo sendoagoak desiratzen dituzte (Ricciardelli et al., 2009). Gure azterlanean, beste ikerketa batzuetan ez bezala (Grogan, 2017; Paraskeva eta Diedrichs,

2020), mutilek ez zituzten irudi argalagoak aukeratu, baizik eta sendoagoak. Desira hau gorputz gihartsuagoa nahi izateak eragin dezake, ikerketa honetan azken aldagai hau ez zen ebaluatu.

<p>11. HIPOTESIA. Gorputz-tamaina txikiagoa izan nahi dutenez, gorputz-asegabetasun maila baxuagoa izango da 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileen artean, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Ez da baieztatzen</p>
--	-------------------------------------

Adinarekin erlazionatuta, bi taldeetako parte-hartzaileen % 50 baino gehiagok ez zuten gorputz-asegabetasuna adierazi. Bi adin tarteetako taldeen artean ez zen desberdintasun esanguratsurik aurkitu, ezta kategoria ponderal ezberdinetan ere. Emaitez **11. hipotesia errefusatzea** baimentzen dute.

Emaiza hau Knowles et al.-ek (2014) eta Park-ek (2020) aurkitutakoaren kontrakoa da, baina Dion et al.-ek (2016) aurkitutakoaren antzekoa izanik, non gorputz-asegabetasunari dagokionez ez zen adinaren eta GMIaren arteko inongo interakziorik aurkitu. Arrazoi bat izan daiteke edertasun-idealen mezuekiko esposizioa denboran aurreratu izana; hala, haur txikienek oso adin goiztiarretan edertasun-estereotipoei buruzko mezu gehiago jasotzen dituzte. Gorputz-forma idealari buruzko gizarte-sinesmenak 6 urteko neskatok xurgatu eta barneratu dituzte, gerora garatu daitezkeen gorputz-asegabetasun afektiboaren eta autoestimu txikiagoaren azpian oinarri kognitibo bat dagoela pentsaraztera eraman gaitzakeena, esate baterako, pubertaroaren hasieran (Dohnt eta Tiggemann, 2006). Honek elikadura-asalduren garapenerako arrisku egoera bat suposatzen du eta

nerabezaroaren aurretik programa prebentiboak ezartzearen beharra adierazten du.

3. AZTERLANA: Aldagai emozionalak gainpisua eta obesitatea duten aurrenerabeengan

Azterketa honen helburua aldagai psikologikoetan eta emozioaletan (antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia, autoestimua, oldarkortasuna eta elikadura-asalduren arriskua) zeuden aldeak aztertzea izan zen, sexuaren eta adinaren arabeko kategoria ponderalen arabera (pisu normala, gainpisua eta obesitatea).

<p>12. HIPOTESIA. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino antsietate-sintomatologia maila altuagoak erakutsiko dituzte, eta hau sexuan eta adinean mantenduko da.</p>	<p>Ez da baieztatzen</p>
--	-------------------------------------

Laginareen osotasunari dagokionez, antsietate-sintomatologia mailan ez zen hiru kategoria ponderalen arteko desberdintasunik aurkitu. Honek **12. hipotesia errefusatzea** ahalbidetzen du. Moradi et al.-en (2020) ikerketan bezala, desberdintasunak ez ziren estatistikoki esanguratsuak izan, baina gehiegizko pisua zuten aurrenerabeek puntuazio handiagoak lortu zituzten bai puntuazio totalean, baita galdetegiko azpi-eskaletan ere. Hiru kategoria ponderaletan antsietate orokorraren nahasterako ebaketa-puntua gaintitu zela nabarmendu beharra dago.

Kategoria ponderalen artean desberdintasun esanguratsurik aurkitu ez bada ere, posible da obesitatea duten adingabeek antsietate-sintomatologia gehiago agertzea beste kideen aldean, adinkideekiko

erlazioa areagotzen den heinean. Aurrenerabezaroan ebaluazio eta erkaketa sozialak hasten dira, eta obesitatea duten haurrek beldur handiagoa senti dezakete kideen ebaluazio negatiboaren edo estigmatizazioaren aurrean (Burke eta Storch, 2015).

<p>13. HIPOTESIA. Neskek mutilek baino antsietate-sintomatologia maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Partzialki baieztatzen da</p>
--	---

Sexuarekin erlazionatutako emaitzek adierazi zuten neskek mutilek baino antsietate-sintomatologia handiago agertu zutela. Eraitza hau azpi-eskala guztietan behatu zen, somatiko eta izu-ikaran izan ezik. Kategoria ponderalei dagokienez, emaitzak hipotesien norabide berean doaz pisu normala eta gainpisua duten parte-hartzaileengan, baina ez obesitatea duten parte-hartzaileengan. Obesitatea duten neskek SCARED galdetegiko ebaketa-puntua gaititu zuten. Eraitza hauek **13. hipotesia partzialki baieztatzea** ahalbidetzen dute eta aurreko azterlanen ildo berean doaz (Burke eta Storch, 2015; Pompa eta Meza, 2014, 2017). Neskek mutilek baino gorputz-irudi negatiboagoa eta autoestimua baxuagoa izateko joera dutela dirudi, eta hau antsietatearen areagotzearekin erlazionatzen da (Shriver et al., 2013).

<p>14. HIPOTESIA. 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileek baino antsietate-sintomatologia maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Partzialki baieztatzen da</p>
---	---

Laginaren osotasunean, 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek, 10-12 urte bitartekoen aldean, antsietate-sintomatologian puntuazio handiagoak lortu zituzten. Kategoria ponderalei dagokienez, emaitzek adierazi zuten pisu normalean zein gainpisan antsietate-sintomatologia adinarekin gutxiagotu egiten zela, obesitatea zuten parte-hartzaileengan gertatzen ez zen bezala. Datu hauek **14. hipotesia partzialki baieztatzea** baimentzen dute.

Burke-n eta Storch-en (2015) arabera, neska eta mutil txikienek antsietate-sintomatologia maila altuagoak adieraz ditzakete ebaluazio negatiboaren aurreko beldur posiblea dela eta. Obesitatea duten parte-hartzaileen emaitzei dagokienez, adinak antsietate-sintomatologiarekin erlaziorik ez duela dirudi. Sepúlveda et al.-ek (2018) 8 eta 12 urte bitarteko obesitatea zuten aurrenerabeekin egindako ikerketan ere gauza bera aurkitu zuten.

Antsietate-nahasteen sintomei dagokienez, Orgilés et al.-en (2012) ikerketan bezala, somatiko/izu eta banaketa antsietateko azpi-eskaletan puntuazioak adinarekin jaitsi egin ziren, baina antsietate orokorraren puntuazioa adinarekin areagotu egin zen. Fobia sozialaren azpi-eskalan, emaitzak ez zetozen bat, esate baterako, gure kasuan adinarekin gutxiagotu egin zen eta Orgilés et al.-en (2012) ikerketan areagotu egin zen.

<p>15. HIPOTESIA. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino depresio-sintomatologia maila altuagoak erakutsiko dituzte, eta hau sexuan eta adinean mantenduko da.</p>	<p>Partzialki baieztatzen da</p>
--	---

Aurkitutako emaitzek agerian utzi dute GMiA zenbat eta handiagoa izan orduan eta depresio-sintomatologia handiagoa izango dela. Hala ere, hiru kategoria ponderalen arteko desberdintasunak obesitatea zuten parte-hartzaileengan eta pisu normala zuten parte-hartzaileengan soilik esanguratsuak izan ziren. Datu hauek **15. hipotesia partzialki baieztatzea** baimentzen dute.

Aurreko ikerketek depresio-sintomatologia eta gehiegizko pisuaren arteko lotura positibo bat aurkitu dute (Blanco et al., 2019; Delgado-Floody et al., 2020) eta zehatzago obesitatea duten parte-hartzaileengan (Quek et al., 2017; Rao et al., 2020; Sutaria et al., 2019), hau gure emaitzen ildo beretik doa.

<p>16. HIPOTESIA. Neskek mutilek baino depresio-sintomatologia maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Ez da baieztatzen</p>
--	-------------------------------------

Emaitzek adierazi zuten mutilek neskek baino depresio-sintomatologia maila altuagoak zituztela, kategoria ponderaletan nesken eta mutilen arteko inongo desberdintasunik ez aurkituz, ondorioz, **16. hipotesia ez da baieztatzen.**

Emaitza hauek EAEn egindakoekin bat datoz (Bernaras et al., 2013; Jaureguizar et al., 2017), non mutilek neskek baino puntuazio altuagoak lortu zituzten depresio-sintomatologian.

<p>17. HIPOTESIA. 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileek baino depresio-sintomatologia maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Partzialki baieztatzen da</p>
---	---

Adinari dagokionez, ikerketa honetan lortutako emaitzek depresio-sintomatologia adinarekin gutxiagotzen dela frogatzen dute. Hau pisu normala duten adingabeengan gertatzen da, baina ez gehiegizko pisua duten adingabeengan, beraz, **17. hipotesia partzialki baieztatzen** da. Bernaras et al.-ek (2013) baieztatzen duten moduan, depresio sintomak jada presente daude 8-9 urterekin.

Hainbat ikerketen arabera, adin goiztiarretan obesitatearen presentziak etorkizuneko depresio nahaste bat izatearen probabilitatea areagotzen du (Gibson-Smith et al., 2020; Pryor et al., 2016), honen ondorioz, azterlan honetako datuek garrantzia hartzen dute tratamendu goiztiar batek etorkizuneko depresio nahasteak prebeni ditzakeelako.

<p>18. HIPOTESIA. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino autoestimua maila baxuagoak erakutsiko dituzte, eta hau sexuan eta adinean mantenduko da.</p>	<p>Partzialki baieztatzen da</p>
--	---

Ikerketa honetan gehiegizko pisua zuten parte-hartzaileek, pisu normala zuten parte-hartzaileen aldean, autoestimu maila baxuagoak zituzten, aurretik egindako ikerketa batekin bat etorritz, non 8 eta 13 urte bitarteko 212 adingabeko laginean GMIaren eta autoestimua arteko korrelazio negatiboa lortu zen (Gibson et al., 2017). Gure kasuan,

obesitatea zuten taldearen eta gainpisua eta pisu normala zutenen arteko desberdintasun esanguratsuak aurkitu ziren. Aitzitik, gainpisua eta pisu normala zuten taldeen arteko desberdintasunak ez ziren estatistikoki esanguratsuak izan. Emaitza hauek **18. hipotesia partzialki baieztatzea** baimentzen dute.

Aztertutako ikerketa gehienetan, gehiegizko pisua autoestimua baxuago batekin erlazionatuta egon zen. Hori pisuarekin lotutako irainek eta kideen errefusatzeak eragin dezakete (Lee et al., 2020). Halaber, gehiegizko pisua eta autoestimua baxua dituzten adingabeek gorputz-asegabatasun handiagoa eta elikadura-asalduren arrisku handiagoa ager ditzakete (Iannaccone et al., 2016).

<p>19. HIPOTESIA. Neskek mutilek baino autoestimua maila baxuagoak lortuko dituzte, eta hau kategorial ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Ez da baieztatzen</p>
---	---------------------------------

Sexuari dagokionez, ez zen neska eta mutilen arteko desberdintasun esanguratsurik aurkitu. Aurreko ikerketen ildo berean (Blanco et al., 2019; Khadri et al., 2020; Vassiloudis eta Costarelli, 2019), ikerketa honetan aurrenerabeek autoestimuan lortutako puntuazioak antzekoak izan ziren, eta ez zen kategorial ponderalen arteko desberdintasunik aurkitu. Datu hauek **19. hipotesia errefusatzea** ahalbidetzen dute.

Hala ere, Danielsen et al.-ek (2012) diote aurkikuntza horiek ondorio klinikoak izan ditzaketela. Haren ikerketan ikusi zuten nesken autoestimua sustapena itxura fisikoarekin lotutako gaitan jar daitekeela arreta; mutilen kasuan, berriz, gaitasun atletikoa arlo garrantzitsuagoa izan daiteke, eta hori ez da ikerketa honetan kontuan hartu.

(2013) haurtzaroko obesitatearen paperaren inguruko metaanalisian ondorioztatzen duten moduan, autoinformeek froga objektiboek baino efektuaren tamaina txikiagoak lortzen dituzte.

<p>22. HIPOTESIA. Mutilek neskek baino oldarkortasun maila altuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Baieztatzen da</p>
--	------------------------------

Sexuari dagokionez, ikerketa honetako mutilek neskek baino oldarkortasun indize handiagoak lortu zituzten, eta hau kategoria ponderal guztietan gertatu zen. Honek **22. hipotesia baieztatzea** baimentzen du. Aurreko ikerketetan bezala, oldarkortasunarekin erlazonatutako konstruktuetan parte-hartzaile maskulinoek puntuazio altuagoak lortu zituzten (Fields et al., 2013), neskek baino erreakzio denbora motzagoak agertuz (Crosbie et al., 2013).

Bi sexuen arteko desberdintasun hauek eboluzioaren teoriaren bidez azal daitezke, teoria honetan, mutilen arrakasta dominantzia eta lehiakortasunaren menpe dagoenez, sariaren aurreko sentibilizazio handiagoa agertuko dutela aurreikusten da. Zuckerman-en hiru faktoreen teoriak eta sariaren aurreko sentibilizazioarenak antzeko iragarpenak egiten dituzte, oldarkortasunaren osagaien eta helduaroko bulkaden kontrolaren nahasteen garapenaren arteko asoziazioetan oinarrituz (Weafer eta de Wit, 2014).

<p>23. HIPOTESIA. 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileek baino oldarkortasun maila baxuagoak lortuko dituzte, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Ez da baieztatzen</p>
---	-------------------------------------

Ikerketa honetan ez zen bi adin taldeen arteko desberdintasunik aurkitu, ondorioz, **23. hipotesia errefusatzan** da. Aurreko ikerketetan ez bezala, ez zen adin txikiagoa eta handiagoa zuten parte-hartzaileen arteko desberdintasunik aurkitu. Eraitza bera aurkitu zen Alemanian nerabeekin egindako azterlan batean (Deux et al., 2017).

<p>24. HIPOTESIA. Lagin multzorako, gainpisua eta obesitatea duten parte-hartzaileek pisu normala duten parte-hartzaileek baino elikadura-asaldurak pairatzeko arrisku maila altuagoak erakutsiko dituzte, eta hau sexuan eta adinean mantenduko da.</p>	<p>Baieztatzen da</p>
---	----------------------------------

Laginaren osotasunari dagokionez, gainpisua eta obesitatea zuten parte-hartzaileek pisu normala zuten kideek baino elikadura-asaldurak pairatzeko arrisku handiagoa agertu zuten. Eraitza hauek **24. hipotesia baieztatzea** ahalbidetzen dute. Ikerketa honetan bezala, Côté et al.-ek (2020) obesitatea zuten adingabeek elikadura-asaldura gehiagoren berri eman zutela adierazi zuten, gainpisua zuten adingabeak eta pisu normala zutenei jarraiki. Halaber, Gibson et al.-en (2017) ikerketako gehiegizko pisua zuten 8 eta 13 urte bitarteko aurrenerabeek elikadura-asaldurak pairatzeko arrisku handiagoa adierazi zuten. Azterlaneko parte-hartzaileengan argaltasunarekiko kezka eta

eduki kaloriko altuko janaria kontsumitzeko errefusa modu esanguratsuan agertzen dira.

Gainpisua eta obesitatea egungo edertasunaren kanonaren parte ez direla kontutan hartzen badugu, gehiegizko pisuaren autopertzepzioa gorputz-formaren asegabetasunarekin eta autoestimu baxuarekin erlazionatuko da, honek pisua jaisteko saiakerak ekarriz (Perpiñá, 2015). Obesitatea elikadura-asaldurak garatzeko arrisku faktoreetako bat bezala definitu da honengatik, eta ondorioz, nerabeak ez dira pisua galtzera eta beharrezko gainbegiratze gabe bere kabuz dieta egitera animatu behar (Jebeile et al., 2021).

<p>25. HIPOTESIA. Ez da alderik egongo bi sexuen artean elikadura-asalduraren arriskuari dagokionez, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Baieztatzen da</p>
---	------------------------------

Emaitzek adierazten dute aurrenerabezaroan ez zela neska eta mutilen arteko desberdintasun esanguratsurik egon, ondorioz, **25. hipotesia baieztatu** daiteke. Hainbat ikerketek ChEAT (Elizathe et al., 2018), EAT-26 (Bacopoulou et al., 2018; Hong et al., 2015) eta EAT-40 (Pamies-Aubalat et al., 2011) galdetegietan adingabeek antzera puntuatzen dutela adierazi zuten.

Elizathe et al.-en (2017) ikerketan, ez zen bi sexuen arteko desberdintasunik egon ChEAT-en puntuazio totalen ezta azpi-eskaletan, baina ikerketa honetan magnitude txikiko desberdintasunak aurkitu ziren bulimiaren azpi-eskalan, mutilek puntuazio altuenak lortuz, agian neskek baino oldarkortasun maila altuagoak ere zituztelako.

<p>26. HIPOTESIA. 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek 10-12 urte bitarteko parte-hartzaileek baino elikadura-asaldurak pairatzeko arrisku handiagoa erakutsiko dute, eta hau kategoria ponderal guztietan mantenduko da.</p>	<p>Partzialki baieztatzen da</p>
--	---

Ikerketa honetan, 8-9 urte bitarteko parte-hartzaileek, 10-12 urte bitartekoen aldean, ChEAT-en puntuazio altuagoak lortu zituzten, obesitatearen kategoria ponderalean kenduta non ez zen desberdintasunik aurkitu. Emaiza hauek **26. hipotesia partzialki baieztatzea** baimentzen dute.

8 eta 12 urte bitarteko aurrenerabeekin egindako eta adinaren eta elikadura-asalduren arriskuaren arteko erlaziorik aurkitu ez zuten azterlanetan ez bezala (Elizathe et al., 2018; Jendrzyca eta Warschburger, 2016), ikerketa honetan parte-hartzaile gazteenek elikadura-asaldura arrisku handiagoa agertu zuten. Emaiza hauek Al Sabbah et al.-ek (2010); Evans et al.-ek (2017) eta Pamies-Aubalat et al. -ek (2011) 11 eta 18 urte bitarteko populazioan aurkitutakoaren antzekoak dira.

Vannucci et al.-en (2014) arabera, elikatze jokabide erregulatu gabeak aurrenerabezaroan agertzen hasten dira, aro honek beren hautaketekin bat egiten du adingabeak autonomia gehiago izaten eta familiako kideen presentzia gabe bakarrik jaten hasten diren garapen aroarekin. Ikerketa honetako emaitzek nerabezaroan bertan sartu aurretik, esku-hartzeak egitearen garrantzia indartzen dute (Evans et al., 2017).

Egindako azterketen laburpena

Ikerketa honek gainpisuaren eta obesitatearen arteko erlazioa aztertu du, baita zenbait aldagai soziodemografiko, psikologiko eta emozional ere 8 eta 12 urte bitarteko haurren. Laginaren % 34,8k gehiegizko pisua zuen. Mutilen ehuneko handienak obesitatea izan zuten, nesken ehunekoaren aldean, baina ez zen alderik aurkitu gainpisua zuten adingabeen artean, ezta bi adin-taldeen artean ere.

Oro har, obesitatea duten aurrenerabeek bere gorputz-tamaina gutxietsi egin zuten (% 99,5) eta gorputz-asegabetasun handia adierazten dute (% 78,1). Era berean, puntuazio handiagoak aurkitu ziren antsietate-sintomatologian, depresio-sintomatologian eta elikadura-asaldurak izateko arriskuan, eta puntuazio baxuagoak autoestimuan.

Gainpisua zuten aurrenerabeei dagokienez, bere gorputz-tamaina ere gutxietsi zuten (% 95,9) eta gorputz-asegabetasun handia adierazten zuten (% 64,9). Era berean, aldagai psikologiko eta emozionaletan, gainpisua zuten aurrenerabeek, oro har, obesitatea zuten ikaskideek baino puntuazio baxuagoak lortu zituzten, baina pisu normala zuten ikaskideek baino puntuazio handiagoak.

Pisu normala zuten aurrenerabeei dagokienez, gehienek ez zuten gorputz-distorsiorik adierazi, hots, gutxiespena % 6,2koa izan zen, eta gorputz-asegabetasunaren ehunekoa txikiagoa izan zen, % 32koa izan arren. Ebaluatutako gainerako aldagaien puntuazioak ere nabarmen txikiagoak izan ziren, batez ere depresio-sintomatologian, autoestimuan eta elikadura-asaldurak izateko arriskuan.

Azkenik, azpimarratu behar da, lagin komunitarioa izanik, azterketa honetako adingabeek ez zutela nahasterik pairatu, baina arrisku-faktore batzuk adierazi zituztela, ebaluatutako alderdi

emozionalen aurrean zaurgarritasun handiagoa ekar dezaketenak, eta, bereziki, arrisku hori handiagoa izan zen gehiegizko pisua eta obesitatea duten adingabeengan.

4.2. Ikerketaren ekarpenak

Azterlanaren emaitzak aurkeztu ondoren, haren ekarpen batzuk aipatuko dira. Alde batetik, Gipuzkoako eskualde batean eskolatutako adingabeak hartu dira. Landu den lagina handia dela esan dezakegu eta Gipuzkoako 8 eta 12 urte bitarteko adingabeen adierazgarria. Horrelako laginaren tamaina duten eta gorputz-irudia eta alderdi emozionalak ebaluatzen dituzten ikerketarik ez da gure ingurunean existitzen.

Gainera, adingabeko guztien datu antropometrikoak zuzenean jaso dira. Horrek sendotasun erantsia dakar; izan ere, autozuzendutako datuek pisuaren gutxiespena eta altueraren gainestimazioa eragiten dituzte, eta horrek pertsona gutxiago sailkatzen ditu gehiegizko pisuaren eta obesitatearen kategorian (Sánchez-Álvarez et al., 2012). Zuzeneko neurriak hartzeak arriskua duten pertsonak modu egokiagoan detektatzea dakar.

Doktoretza-tesi honen beste indarguneetako bat aldagai emozional hauek ebaluatzea da: antsietate-sintomatologia, depresio-sintomatologia, autoestimua, oldarkortasuna eta elikadura-asalduren arriskua 8 eta 9 urte bitarteko aurrenerabeengan. Hau garrantzitsua da, egindako ikerketek gehienbat nerabeak hartzen dituztelako kontuan (Smolak, 2011), eta orain arte 10 urtetik beherakoei buruzko datu gutxi daudelako. Bestalde, ebaluazio-tresna guztiak euskaratu dira, eta horrek ahalegin berezia eskatzen du. Gainera, tesi honetan lortutako emaitzen arabera, 10 urte bete baino lehen, funtsezkoa izan daiteke gorputz-irudiaren eta aldagai emozionalen gainean esku hartzea.

4.3. Mugak eta etorkizuneko ikerketa-ildoak

Azterlan guztiek bezala, honek ere baditu muga batzuk. Lehenik eta behin, ez da luzetarako azterketa. Erregresio-ereduen eta egitura-ekuazioen bidez ebaluatutako aldagaien arteko kausalitate erlazioak ezar daitezke (adibidez: GMI handiagoa autoestimua baxuarekin lotuta badago, edo alderantziz), eta, beraz, azalpen-eredu doituagoak ezartzea. Hau etorkizunerako lana da.

Zenbait autorek gorputzeko gantz maila handia duten adingabeak identifikatzeko *z-scores* direlakoak erabiltzea gomendatzen dute. Ikerketa honetan, ordea, GMIa erabili da neurri antropometriko gisa, Cole et al.-en (2005) gomendioei jarraituz.

Gainera, tesi honetan pisu urritasuna duten adingabeak (% 8,6) ez sartzea erabaki zen, ez baitzen azterketa honen xedea. Hala ere, horrek ez du esan nahi adingabeen talde hori aztertu behar ez denik. Leppers et al.-en (2017) arabera, gorputz-irudiaren aldaketak kategoriatan ponderalaren espektro osoan ebaluatzea etorkizuneko ikerketen indargunea izan liteke. Horregatik, kasu honetan gerorako ikerketa-lerro bat da.

Hirugarren muga bat haurren osasun emozionalaren adierazleak ebaluatzeko galdera-sorten erabilerarekin lotuta egon daiteke. Autore batzuek beren mugak adierazten dituzte, baina beste batzuek informazioa emateko erabilgarriak izan daitezkeela diote (Jansen et al., 2008). Agian, zailtasun handiena 10 urtetik beherako haurrena izango litzateke, ebaluazioak gidatuagoa izan behar baitu.

Gorputz-irudiaren ebaluazioari dagokionez, ikerketa batzuetan kritikatu egin da Collins-en (1991) eskalako irudiak ez datozela bat GMI jakin batekin; hala ere, aurretiko ikerketak (Holub, 2008; Kornilaki, 2015; Maximova et al., 2008) hirugarren, laugarren eta

bosgarren irudiek batezbesteko gorputz-tamaina adierazten dute, eta lehenengo biek eta azken biek gorputz argalei eta lodiei, hurrenez hurren.

Era berean, Gardner-ek eta Brown-ek (2010) zehaztu zuten aurkitutako asegabetasun-maila kalkulatzeko eskala horiekin gehiegizko estimazioa egiten dela. Izan ere, tresna horiei esker, irudietako bat besterik ezin da hautatu, eta, beraz, gorputz-gogobetetasuna izateko, pertsonak irudi bera hautemandakoaren eta desiratuaren artean aukeratu behar du (Neves et al., 2017). Muga hori kontuan hartuta, gorputz-distortsioa eta -asegabetasuna irudi-multzo batean ebaluatzeko ahalegina egin zen (1 eta 2 irudi argalak) eta batezbesteko irudien (3, 4 eta 5) arteko aldea erabili zen.

Irudien bidez egindako ebaluazioari egin zaion beste kritika bat Gardner-ena eta Brown-ena (2010) da. Hauek aipatu zuten irudien aurkezpena goranzkoa denean, argaltasunetik obesitatera, parte-hartzaileek beren tamaina gutxietsi egiten dutela. Honi aurre egiteko aukera bat irudiak ausazko sekuentzia batean aurkeztea litzateke eta Neves et al.-ek (2017) haurren gorputz-irudia ebaluatzeko tresna espezifikoak sortzea gomendatzen dute.

Doktoretza-tesi honen azken muga da irakasleen (n= 86) eta adingabeen gurasoen (n= 1665) bildutako datuak ez aurkeztea. Etorkizunari begira, familiak aztertzea proposatzen da, esku-hartze sistemiko batek eraginkortasun handiagoa emango bailuke gainpisua eta obesitatea duten aurreneberabeen ongizate fisiko eta psikologikoa sustatzeko tratamenduetan.

Beste ikerketa-ildoak ikasleen eta irakasleen obesitatearekiko aurreiritziak ebaluatzea litzateke. Ikerketa-ildo hori tesi honen egileak landu du, ikerketa honetan jasotako datuen bidez (ikus [D eranskina](#)).

D eranskinean gainpisua eta obesitatea duten adingabeen obesitatearekiko eta eskola-egokitzapenarekiko aurreiritziak ebaluatu ziren ikerketa aurkezten da. Hauek dira ondorio nagusiak:

- Adingabeek irudi lodiei kalitate positibo gutxiago eta negatibo gehiago esleitu zizkieten.
- Irudi lodiak ez ziren hain hautatuak izan, gizarte eta jolas jardueretan parte hartzeko orduan.
- Irakasleen ikuspegitik, gehiegizko pisua zuten adingabeek eskola-doikuntza okerragoa izan zuten.

Azkenik, premiazkoa da hainbat jarduera-eremu (familia, eskola eta komunitatea) kontuan hartzen dituzten prebentzio-programak diseinatzea eta ezartzea. Gehiegizko pisua duten aurreneberabeen ehuneko handiek, distortsioa eta asegabetasuna direla eta, depresio-sintomatologia handiagoa dutela, elikadura-asaldurak izateko arrisku handiagoa dutela eta autoestimu txikiagoa dutela ikusita, garrantzitsua da osasuna prebenitu eta sustatzeko programak ezartzea, gainpisuaren eta obesitatearen tasak gutxitzeko eta haurtzaroan eta nerabezaroan ongizate psikologikoa sustatzeko (Quek et al., 2017; Waters et al., 2011).

Esku-hartze hauek estrategia espezifikoak eskaini behar dizkiete gainpisua eta obesitatea duten adingabeei, elikadura-ohiturak hobetzeko eta bizimodu osasungarriak indartzeko (Leppers et al., 2017). Estatu mailan “ENTREN-F” programa (Sepúlveda, 2018) erreferente bat da; haurren gainpisua eta obesitatea tratatzeko esku-hartze psiko-familiarreko programa da, eta faktore psikologikoak eta familiakoak kontuan hartzen ditu. Faktore horiei eskolako lana gehitu beharko litzaieke. Haurren obesitateak osasunean duen eragina dela eta,

doktoretza-tesi honen emaitzek Gipuzkoako aurreenerabeak ardatz dituen programa espezifiko bat prestatzeko gida gisa balio nahi dute.

ERREFERENTZIAK

- Acosta-Hernández, M. E., Gasca-Pérez, E., Ramos-Morales, F. R., García-Rodríguez, R. V, Solís-Páez, F., Evaristo-Portilla, G., & Soto-Cid, A. H. (2013). Factores, causas y perspectivas de la obesidad infantil en México. *Revista de Los Estudiantes de Medicina de La Universidad Industrial de Santander*, 26(1), 59–68. <http://medicasuis.org/antiores/volumen26.1/6.pdf>
- Africa, J. A., Newton, K. P., & Schwimmer, J. B. (2016). Lifestyle interventions including nutrition, exercise, and supplements for nonalcoholic fatty liver disease in children. *Digestive Diseases and Sciences*, 61(5), 1375–1386. <https://doi.org/10.1007/s10620-016-4126-1>
- Aguilar, C. K., Blanco, L., Villarreal, E., Vargas, E. R., Galicia, L., & Martínez, L. (2018). Asociación de sobrepeso u obesidad con trastornos del estado de ánimo en adolescentes. *Archivos Latinoamericanos de Nutrición*, 68(4), 321–327.
- Aguilar, M. J., Sánchez, A. M., Madrid, N., Mur, N., Expósito, M., & Hermoso, E. (2015). Lactancia materna como prevención del sobrepeso y la obesidad en el niño y el adolescente; revisión sistemática. *Nutrición Hospitalaria*, 31(2), 606–620.
- Al Sabbah, H., Vereecken, C., Abdeen, Z., Kelly, C., Ojala, K., Németh, Á., Ahluwalia, N., & Maes, L. (2010). Weight control behaviors among overweight, normal weight and underweight adolescents in Palestine: Findings from the national study of Palestinian schoolchildren (HBSC-WBG2004). *International Journal of Eating Disorders*, 43(4), 326–336. <https://doi.org/10.1002/eat.20698>
- Albañil, M., Rogero, M., Sánchez, M., Olivas, A., Rabanal, A., & Sanz,

- M. (2011). Riesgo de mantener obesidad desde la infancia hasta el final de la adolescencia. *Revista Pediatría de Atención Primaria*, 13(50), 199–211.
- Ali, M. M., Fang, H., & Rizzo, J. A. (2010). Body weight, self-perception and mental health outcomes among adolescents. *The Journal of Mental Health Policy and Economics*, 13(2), 53–63.
- American Psychiatric Association. (2014). *Manual diagnóstico y estadístico de los trastornos mentales DSM-5*. Editorial Médica Paramericana.
- Anderson, S. E., Cohen, P., Naumova, E. N., Jacques, P. F., & Must, A. (2007). Adolescent obesity and risk for subsequent major depressive disorder and anxiety disorder: prospective evidence. *Psychosomatic Medicine*, 69(8), 740–747. <https://doi.org/10.1097/PSY.0b013e31815580b4>
- Aranceta-Bartrina, J., Gianzo-Citores, M., & Pérez-Rodrigo, C. (2020). Prevalencia de sobrepeso, obesidad y obesidad abdominal en población española entre 3 y 24 años. Estudio ENPE. *Revista Española de Cardiología*, 73(4), 290–299. <https://doi.org/10.1016/j.recesp.2019.07.011>
- Aranceta, J., Pérez, C., Ribas, L., & Serra, L. (2005). Epidemiología y factores determinantes de la obesidad infantil y juvenil en España. *Revista Pediatría de Atención Primaria*, 7(Supl I), 13–20.
- Armstrong, B., Westen, S. C., & Janicke, D. M. (2014). The role of overweight perception and depressive symptoms in child and adolescent unhealthy weight control behaviors: A mediation model. *Journal of Pediatric Psychology*, 39(3), 340–348. <https://doi.org/10.1093/jpepsy/jst091>
- Bacopoulou, F., Foskolos, E., Stefanaki, C., Tsitsami, E., & Voursora,

- E. (2018). Disordered eating attitudes and emotional/behavioral adjustment in Greek adolescents. *Eating and Weight Disorders*, 23(5), 621–628. <https://doi.org/10.1007/s40519-017-0466-x>
- Baile, J. I. (2003). ¿Qué es la imagen corporal? *Cuadernos del Marqués de San Adrián*, 2, 53–70.
- Bauman, A., Rutter, H., & Baur, L. (2019). Too little, too slowly: international perspectives on childhood obesity. *Public Health Research & Practice*, 29(1), e2911901. <https://doi.org/10.17061/phrp2911901>
- Bennett, C., & Blissett, J. (2019). Multiple measures of impulsivity, eating behaviours and adiposity in 7-11-year-olds. *Appetite*, 133, 217–222. <https://doi.org/10.1016/j.appet.2018.11.002>
- Benson, L. P., Williams, R. J., & Novick, M. B. (2013). Pediatric obesity and depression: a cross-sectional analysis of absolute BMI as it relates to children's depression index scores in obese 7- to 17-year-old children. *Clinical Pediatrics*, 52(1), 24–29. <https://doi.org/10.1177/0009922812459949>
- Benthan, J., Di Cesare, M., Bilano, V., Bixby, H., Zhou, B., Stevens, G. A., Riley, L. M., Taddei, C., Hajifathalian, K., Lu, Y., Savin, S., Cowan, M. J., Paciorek, C. J., Emandi, A. C., Hayes, A. J., Katz, J., Kelishadi, R., Kengne, A. P., Khang, Y.-H., ... et al. (2017). Worldwide trends in body-mass index, underweight, overweight, and obesity from 1975 to 2016: A pooled analysis of 2416 population-based measurement studies in 128.9 million children, adolescents, and adults. *The Lancet*, 390(10113), 2627–2642. [https://doi.org/10.1016/S0140-6736\(17\)32129-3](https://doi.org/10.1016/S0140-6736(17)32129-3)
- Bergel, M. L., Cesani, M. F., Cordero, M. L., Navazo, B., Olmedo, S., Quintero, F., Sardi, M., Torres, M. F., Aréchiga, J., Méndez De

- Pérez, B., & Marrodán, M. D. (2014). Valoración nutricional de escolares de tres países iberoamericanos: Análisis comparativo de las referencias propuestas por el International Obesity Task Force (IOTF) y la Organización Mundial de la Salud. *Nutrición Clínica y Dietética Hospitalaria*, 34(1), 8–15. <https://doi.org/10.12873/341bergel>
- Berger, K. S. (2015). *Psicología del Desarrollo. Infancia y Adolescencia* (9th ed.). Editorial Médica Paramericana.
- Berger, N. A. (2018). Young adult cancer: Influence of the obesity pandemic. *Obesity*, 26(4), 641–650. <https://doi.org/10.1002/oby.22137>
- Bernaras, E., Jaureguizar, J., Soroa, M., Ibabe, I., & de las Cuevas, C. (2013). Evaluación de la sintomatología depresiva en el contexto escolar y variables asociadas. *Anales de Psicología*, 29(1), 131–140. <https://doi.org/10.6018/analesps.29.1.137831>
- Black, R. E., Victora, C. G., Walker, S. P., Bhutta, Z. A., Christian, P., de Onis, M., Ezzati, M., Grantham-McGregor, S., Katz, J., Martorell, R., & Uauy, R. (2013). Maternal and child undernutrition and overweight in low-income and middle-income countries. *The Lancet*, 382(9890), 427–451. [https://doi.org/10.1016/S0140-6736\(13\)60937-X](https://doi.org/10.1016/S0140-6736(13)60937-X)
- Blanco, M., Solano, S., Alcántara, A. I., Parks, M., Román, F. J., & Sepúlveda, A. R. (2019). Psychological well-being and weight-related teasing in childhood obesity: a case–control study. *Eating and Weight Disorders*, 25(3), 751–759. <https://doi.org/10.1007/s40519-019-00683-y>
- Bogl, L., Silventoinen, K., Hebestreit, A., Intemann, T., Williams, G., Michels, N., Molnár, D., Page, A., Pala, V., Papoutsou, S., Pigeot,

- I., Reisch, L., Russo, P., Veidebaum, T., Moreno, L., Lissner, L., & Kaprio, J. (2017). Familial resemblance in dietary intakes of children, adolescents, and parents: Does dietary quality play a role? *Nutrients*, *9*(8), 892. <https://doi.org/10.3390/nu9080892>
- Bonato, D. P., & Boland, F. J. (1983). Delay of gratification in obese children. *Addictive Behaviors*, *8*, 71–74.
- Borghese, M. M., Tremblay, M. S., Leduc, G., Boyer, C., Bélanger, P., LeBlanc, A. G., Francis, C., & Chaput, J.-P. (2015). Television viewing and food intake during television viewing in normal-weight, overweight and obese 9- to 11-year-old Canadian children: a cross-sectional analysis. *Journal of Nutritional Science*, *4*, e8. <https://doi.org/10.1017/jns.2014.72>
- Bozkurt, H., Özer, S., Yılmaz, R., Sönmezgöz, E., Kazancı, Ö., Erbaş, O., & Demir, O. (2017). Assessment of neurocognitive functions in children and adolescents with obesity. *Applied Neuropsychology: Child*, *6*(4), 262–268. <https://doi.org/10.1080/21622965.2016.1150184>
- Braet, C., Claus, L., Verbeken, S., & Van Vlierberghe, L. (2007). Impulsivity in overweight children. *European Child and Adolescent Psychiatry*, *16*(8), 473–483. <https://doi.org/10.1007/s00787-007-0623-2>
- Braet, C., O'Malley, G., Weghuber, D., Vania, A., Erhardt, É., Nowicka, P., Mazur, A., Frelut, M. L., & Ardelt-Gattinger, E. (2014). The assessment of eating behaviour in children who are obese: A psychological approach. A position paper from the European Childhood Obesity Group. *Obesity Facts*, *7*(3), 153–164. <https://doi.org/10.1159/000362391>
- Bras, J., & Bustos, G. (2005). Obesidad. In J. Bras & G. Bustos (Eds.),

- Pediatría en Atención Primaria* (2nd ed., pp. 763–772). Masson.
- Brault, M.-C., Turcotte, O., Aimé, A., Côté, M., & Bégin, C. (2015). Body Mass Index accuracy in preadolescents: Can we trust self-report or should we seek parent report? *Journal of Pediatrics*, *167*(2), 366–371. <https://doi.org/10.1016/j.jpeds.2015.04.043>
- Brener, N. D., Eaton, D. K., Lowry, R., & McManus, T. (2004). The association between weight perception and BMI among High School students. *Obesity Research*, *12*(11), 1866–1874. <https://doi.org/10.1038/oby.2004.232>
- Bronfenbrenner. (1986). Ecology of the family as a context for human development: Research perspectives. *Developmental Psychology*, *22*(6), 723–742. <https://doi.org/10.1037/0012-1649.22.6.723>
- Brownell, C. A., Nichols, S. R., Svetlova, M., Zerwas, S., & Ramani, G. (2010). The head bone's connected to the neck bone: When do toddlers represent their own body topography? *Child Development*, *81*(3), 797–810. <https://doi.org/10.1111/j.1467-8624.2010.01434.x>
- Bub, K. L., Robinson, L. E., & Curtis, D. S. (2016). Longitudinal associations between self-regulation and health across childhood and adolescence. *Health Psychology*, *35*(11), 1235–1245. <https://doi.org/10.1037/hea0000401>
- Bueno, M. (2004). Endocrinología pediátrica en el siglo XXI. El modelo de la obesidad: pasado, presente y futuro. *Anales de Pediatría*, *60*(Supl 2), 26–29.
- Burke, N. L., & Storch, E. A. (2015). A meta-analysis of weight status and anxiety in children and adolescents. *Journal of Developmental & Behavioral Pediatrics*, *36*(3), 133–145. <https://doi.org/10.1097/dbp.0000000000000143>

- Burke, V., Beilin, L. J., Simmer, K., Oddy, W. H., Blake, K. V., Doherty, D., Kendall, G. E., Newnham, J. P., Landau, L. I., & Stanley, F. J. (2005). Predictors of body mass index and associations with cardiovascular risk factors in Australian children: A prospective cohort study. *International Journal of Obesity*, 29(1), 15–23. <https://doi.org/10.1038/sj.ijo.0802750>
- Cai, L., Zhang, T., Ma, J., Ma, L., Jing, J., & Chen, Y. (2017). Self-perception of weight status and its association with weight-related knowledge, attitudes, and behaviors among Chinese children in Guangzhou. *Journal of Epidemiology*, 27(7), 338–345. <https://doi.org/10.1016/j.je.2016.08.011>
- Caird, J., Kavanagh, J., O'Mara-Eves, A., Oliver, K., Oliver, S., Stansfield, C., & Thomas, J. (2014). Does being overweight impede academic attainment? A systematic review. *Health Education Journal*, 73(5), 497–521. <https://doi.org/10.1177/0017896913489289>
- Calderón, C., Forns, M., & Varea, V. (2009). Obesidad infantil: Ansiedad y síntomas cognitivos y conductuales propios de los trastornos de alimentación. *Anales de Pediatría*, 71(6), 489–494. <https://doi.org/10.1016/j.anpedi.2009.07.030>
- Campbell, K., & Peebles, R. (2014). Eating disorders in children and adolescents: State of the art review. *Pediatrics*, 134(3), 582–592. <https://doi.org/10.1542/peds.2014-0194>
- Canals, J., Hernández-Martínez, C., Cosi, S., & Domènech, E. (2012). Examination of a cutoff score for the Screen for Child Anxiety Related Emotional Disorders (SCARED) in a non-clinical Spanish population. *Journal of Anxiety Disorders*, 26(8), 785–791. <https://doi.org/10.1016/j.janxdis.2012.07.008>

- Cañoles, F., Araneda, N., Silva, H., & Sanhueza, A. (2015). Correlación entre Índice de Masa Corporal y sintomatología depresiva en una muestra de niños preescolares de la región de Los Ríos, Chile. *International Journal of Morphology*, 33(3), 860–864. <https://doi.org/10.4067/S0717-95022015000300009>
- Carrascosa, A., Fernández, J. M., Fernández, Á., López-Siguero, J. P., López, D., & Sánchez, E. (2011). Estudios españoles de crecimiento 2010. *Revista Española de Endocrinología Pediátrica*, 2(Suppl), 25–26.
- Cash, T. F. (2002). A “negative body image”. Evaluating epidemiological evidence. In T. F. Cash & T. Pruzinsky (Eds.), *Body image: A handbook of theory, research and clinical practice* (pp. 269–276). Guilford Press.
- Cash, T. F., & Smolak, L. (Eds.). (2011). *Body Image: a handbook of Science, Practice and Prevention* (2nd ed.). Guilford Press.
- Cattellino, E., Bina, M., Skanjeti, A. M., & Calandri, E. (2015). Anthropometric characteristics of primary school-aged children: Accuracy of perception and differences by gender, age and BMI. *Child: Care, Health and Development*, 41(6), 1098–1105. <https://doi.org/10.1111/cch.12216>
- CDC Centers for Disease Control and Prevention. (2020). *Anxiety and Depression in Children*. <https://www.cdc.gov/childrensmetalhealth/depression.html>
- Cena, H., Stanford, F. C., Ochner, L., Fonte, M. L., Biino, G., De Giuseppe, R., Taveras, E., & Misra, M. (2017). Association of a history of childhood-onset obesity and dieting with eating disorders. *Eating Disorders*, 25(3), 216–229. <https://doi.org/10.1080/10640266.2017.1279905>

- Chahín, N., Moncada, C. E., & Acosta, H. U. (2019). Estudio de las propiedades psicométricas de la Escala Barratt de Impulsividad (BIS-11) en niños y adolescentes. *Terapia Psicológica*, 37(1), 129–140. <https://doi.org/http://dx.doi.org/10.4067/S0718-48082019000200129>
- Cho, J. H., Han, S. N., Kim, J. H., & Lee, H. M. (2012). Body image distortion in fifth and sixth grade students may lead to stress, depression, and undesirable dieting behavior. *Nutrition Research and Practice*, 6(2), 175–181. <https://doi.org/10.4162/nrp.2012.6.2.175>
- Chueca, M., Azcona, C., & Oyarzábal, M. (2002). Obesidad infantil. *Anales del Sistema Sanitario de Navarra*, 25(Suppl 1), 127–141.
- Chung, A. E., Perrin, E. M., & Skinner, A. C. (2013). Accuracy of child and adolescent weight perceptions and their relationships to dieting and exercise behaviors: A NHANES study. *Academic Pediatrics*, 13(4), 371–378. <https://doi.org/10.1016/j.acap.2013.04.011>
- Coelho, E. M., Padez, C., Moreira, P., Rosado, V., & Mourão-Carvalho, I. (2013). BMI and self-perceived body shape in Portuguese children. *Revista de Psicología del Deporte*, 22(2), 371–376.
- Cohen, J. (1988). *Statistical power analysis for the behavioral sciences*. Lawrence Erlbaum. <https://www.sciencedirect.com/science/book/9780121790608>
- Cole, T. J., Bellizzi, M. C., Flegal, K. M., & Dietz, W. H. (2000). Establishing a standard definition for child overweight and obesity worldwide: international survey. *British Medical Journal*, 320(7244), 1240–1243.

<https://doi.org/10.1136/bmj.320.7244.1240>

Cole, T. J., Faith, M. S., Pietrobelli, A., & Heo, M. (2005). What is the best measure of adiposity change in growing children: BMI, BMI %, BMI z-score or BMI centile? *European Journal of Clinical Nutrition*, 59(3), 419–425.
<https://doi.org/10.1038/sj.ejcn.1602090>

Cole, T. J., & Lobstein, T. (2012). Extended international (IOTF) body mass index cut-offs for thinness, overweight and obesity. *Pediatric Obesity*, 7(4), 284–294. <https://doi.org/10.1111/j.2047-6310.2012.00064.x>

Collins, M. E. (1991). Body figure perceptions and preferences among preadolescent children. *International Journal of Eating Disorders*, 10(2), 199–208. [https://doi.org/10.1002/1098-108X\(199103\)10:2<199::AID-EAT2260100209>3.0.CO;2-D](https://doi.org/10.1002/1098-108X(199103)10:2<199::AID-EAT2260100209>3.0.CO;2-D)

Contreras-Valdez, J. A., Hernández-Guzmán, L., & Freyre, M.-Á. (2016). Body dissatisfaction, self-esteem, and depression in girls with obesity. *Revista Mexicana de Trastornos Alimentarios*, 7(1), 24–31.

<https://doi.org/http://dx.doi.org/10.1016/j.rmta.2016.04.001>

Cooper, A. R., Goodman, A., Page, A. S., Sherar, L. B., Esliger, D. W., van Sluijs, E. M. F., Andersen, L. B., Anderssen, S., Cardon, G., Davey, R., Froberg, K., Hallal, P., Janz, K. F., Kordas, K., Kreimler, S., Pate, R. R., Puder, J. J., Reilly, J. J., Salmon, J., ... Ekelund, U. (2015). Objectively measured physical activity and sedentary time in youth: the International children's accelerometry database (ICAD). *International Journal of Behavioral Nutrition and Physical Activity*, 12(1), 113.
<https://doi.org/10.1186/s12966-015-0274-5>

- Cosi, S., Vigil-Colet, A., Canals, J., & Lorenzo-Seva, U. (2008). Psychometric properties of the Spanish adaptation of the Barratt Impulsiveness Scale-11-A for children. *Psychological Reports, 103*(2), 336–346. <https://doi.org/10.2466/pr0.103.2.336-346>
- Costa, L. da C., Santos, D. A., Almeida, S. de S., & de Vasconcelos, F. de A. (2015). Association between inaccurate estimation of body size and obesity in schoolchildren. *Trends in Psychiatry and Psychotherapy, 37*(4), 220–226. <https://doi.org/10.1590/2237-6089-2015-0009>
- Côté, M., Legendre, M., Aimé, A., Brault, M.-C., Dion, J., & Bégin, C. (2020). The paths to children's disordered eating: The implications of BMI, weight-related victimization, body dissatisfaction and parents' disordered eating. *Clinical Psychology in Europe, 2*(1), e2689. <https://doi.org/10.32872/cpe.v2i1.2689>
- Crosbie, J., Arnold, P., Paterson, A., Swanson, J., Dupuis, A., Li, X., Shan, J., Goodale, T., Tam, C., Strug, L. J., & Schachar, R. J. (2013). Response inhibition and ADHD traits: Correlates and heritability in a community sample. *Journal of Abnormal Child Psychology, 41*(3), 497–507. <https://doi.org/10.1007/s10802-012-9693-9>
- Cruzat-Mandich, C., Díaz-Castrillón, F., Lizana-Calderón, P., & Castro, A. (2016). Comparación por sexo en imagen corporal, síntomas psicopatológicos y conductas alimentarias en jóvenes entre 14 y 25 años. *Revista Médica de Chile, 144*, 743–750. <https://doi.org/10.4067/S0034-98872016000600008>
- Cunningham, S. A., Kramer, M. R., & Narayan, K. M. V. (2014). Incidence of childhood obesity in the United States. *New England*

- Journal of Medicine*, 370(5), 403–411.
<https://doi.org/10.1056/NEJMoa1309753>
- Dallacker, M., Hertwig, R., & Mata, J. (2018). The frequency of family meals and nutritional health in children: a meta-analysis. *Obesity Reviews*, 19(5), 638–653. <https://doi.org/10.1111/obr.12659>
- Damiano, S. R., Gregg, K. J., Spiel, E. C., McLean, S. A., Wertheim, E. H., & Paxton, S. J. (2015). Relationships between body size attitudes and body image of 4-year-old boys and girls, and attitudes of their fathers and mothers. *Journal of Eating Disorders*, 3(1), 16. <https://doi.org/10.1186/s40337-015-0048-0>
- Danielsen, Y. S., Stormark, K. M., Nordhus, I. H., Mæhle, M., Sand, L., Ekornås, B., & Pallesen, S. (2012). Factors associated with low self-esteem in children with overweight. *Obesity Facts*, 5(5), 722–733. <https://doi.org/10.1159/000338333>
- Daraganova, G. (2013). Body image of primary school children. In *LSAC Annual Statistical Report*.
